

ETORRIKO DENA

5. KONGRESUA NAFARROAKO KULTUR KUDEAKETA

2024ko apirilaren 16a eta 17a

Centro Huarte— Uharte Zentroa



Argitaratzailea: KUNA, Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte

info@gestionculturana.org

Testuen itzulpena: Kike Díez de Ulzurrún Sagalá

Diseinua eta maketazioa: Amore Verbum Traducciones

Edizioa: 2024ko abendua

Argitalpen honetan azaldutako ideiak eta iritziak egileei dagozkienak dira, eta ez dituzte nahitaez editoreen iritziak islatzen.

© Kongresuaren edizioa eta argazkiak: KUNA, Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte

© Irudietatik: egileak. Irudiak eta bideoak dibulgaziorako erabili dira, eta egileenak dira.



EDUKIAK

4. orrialdea

Etorriko den etorkizuna | Paula Gordaliza Pastor, irakasle laguntzaile doktorea Estatistika, Matematika eta Informatika sailean (NUP) eta INAMATEko kidea (NUP).

17. orrialdea

Aliantza-estrategiak Nafarroako kultur politiketan | Ignacio Apezteguia (Nafarroako Gobernuko Kulturako zuzendari nagusia - Vianako Printzea erakundea), **Xabier Alcuaz** (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko presidentea) eta **Nora Bengotxea** (Aranguren Ibarreko Udaleko kultura teknikaria).

32. orrialdea

Estrategia eta politika kulturalak Nafarroarentzat | Eztabaida Kultura Batzordeko parlamentariekin.

45. orrialdea

Kultura sortzeko modu berriak | Nestor Prieto eta Francisco Brives, abangoardiako artearen eta esperimentazio artistikoaren zentroa den **La Neomudejar** (Madril) zentroko artistak eta kultur kudeatzaileak eta zuzendarikideak, eta **Gema Rupérez**, diziplina anitzeko artista eta **Ababol** jaialdiko zuzendaria, arte publikoaren, memoriaren eta despopulazioaren jaialdia (Zaragoza).

56. orrialdea

Kontserbatik museora: Herri baten historia. La Fábrica Vieja - Museo de la Conserva | Paz Salcedo López. El Navarrico kontserba-familiako erosketa-arduraduna eta hirugarren belaunaldia.

61. orrialdea

Kulturara eskuratzeko modu berriak | Elkarriketa **Clara Harguindey** eta **Daniel Pecharromán Desmusea**ko zuzendarikideen, kolektibo artistikoaren eta kultura-bitartekaritzaren digitalaren

69. orrialdea

Kultura kontsumitzeko modu berriak | Jaume Ripoll, Filminen sortzaileetako bat.

85. orrialdea

Kultura zeharkatzea — Belaunaldiak aurrez aurre? | Fernando Sáenz de Ugarte, kultur kudeatzaile eta ekoizlea, eta **Iván Carmona**, Suakaiko fundatzaile eta biolontxelo-jotzailea.





Etorriko den etorkizuna

PAULA GORDALIZA PASTOR

Irakasle laguntzaile doktorea Estatistika, Matematika eta Informatika Sailean (NUP) eta INAMATEko kidea (NUP)

Aldez aurretik barkatu formularen batekin pixka bat estutzen bazaituztet; saiatuko naiz ia formularik ez jartzen, baina ezinbestekoak dira nik lan egiten dudan hizkuntzan, eta zerbait-zerbait agertuko da, baina saiatuko naiz hitzez ahalik eta hobekien azaltzen.

Hitzaldiari *Algoritmoetan konfiantza izateko Matematikak* izenburua eman diot, laguntzen ari zaizkigun komunikabide guztietan entzuten ari baikara hori, edo teknologia mota horren erabilera masiboki orokortzen ari da eremu guztietan. Entzuten ari gara -duela milaka urtetik gizarteak aurre egin behar izan dien beste arazo askorentzat bezala- matematika hor dagoela gertatzen ari dena ulertzen laguntzeko eta hobetzen saiatzeko. Aurkezpena modu horretan antolatu dut; transmititu nahi dizkizuedan ideiak dira, eta ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz.

1. Matematika, mundua ulertzeko ezinbestekoa
2. Matematika, ezinbestekoa adimen artifiziala ulertzeko eta hobetzeko
3. Nola definitzen da matematikoki ekitate algoritmikoa?
4. Lerratze algoritmikoa ezabatzeko ekarpen batzuk
5. Algoritmoak ebaluatzeko eta ikuskatzeko proposamena.

Hasteko eta bat, azaldu nahi dut zergatik uste dudan matematikak ezinbestekoak eta hain garrantzitsuak direla mundua ulertzeko; horrek esan nahi du, jakina, oso garrantzitsuak eta ezinbestekoak direla adimen artifizialaren mundua ulertzeko. Eta gero zerbait gogorxeagoa ukituko dut, ekitate algoritmikoa matematikoki nola definitzen den azaltzen saiatuko bainaiz; algoritmo batek biztanleriaren azpitalde bat ere diskriminatzen ez duela ziurtatzeko aukera ematen didan nozio hori. Eta labur-labur azalduko dizkizuet ezagutzaren arlo honetan egin ditudan ekarpenetako batzuk, eta, azkenik, gogoeta bat egingen dut arlo horretan ikertzen ari den komunitate matematikoak azkenaldian dituen erronkei buruz.

Matematika benetan garrantzitsua da. Gizateriak milaka urte daramatza matematika edozertarako erabiltzen, Pitagorasen Teorematik hasita, ziur bainago denok ezagutzen

duzuela, hezkuntza mailako maila guztietan ere, matematikak leku handia baitu: lehen hezkuntzan, DBHn, batxilergoan, unibertsitateko titulazio guztietan, edo gehienetan, esatera ausartuko nintzateke, batez ere zientzia eta teknologietan, baina baita arlo sozial edo biologiko bateko beste titulazio batzuetan ere; beti dauzkagu estatistika, matematika, datuen zientzia eta gisako irakasgaiak. Eta, jakina, milaka matematikari eta estatistikari daude, dela matematika aztertzen, dela jakintzaren muga saiatzen direnak, arlo horretan aurrera egiteko eta benetako arazoei irtenbideak emateko.

Badira nazioartean lan hori egiten duten pertsona eta sari oso aitortuak, baina, jakina, askoz ere pertsona gehiago daude, sari horiek jasotzen dituztenez gain. Eta zergatik da hain garrantzitsuak matematika? Pertsona batzuentzat matematika garrantzitsua da, agian oso ederrak direlako, dibertigarriak direlako; atzean benetan gai harrigarriak daudelako, ezta? Adibidez, zalantzarik gabe, denok ezagutzen ditugun edertasun handiko obren atzean, proportzio matematikoak daudela, urrezko arrazoia, etab.; arkitekturako obra handien atzean matematikak daude, eraikin benetan harrigarriak egiten dituztenak; naturan ere ikusten dugu matematikak modu harrigarrian agertzen direla, hala kiribiletan nola fraktalen eraketetan, ibaien bihurtuneetan, erleen abarasketan... Zertxobait desberdina den beste modu batean ere aurkitzen ditugu eta dibertitzen laguntzen digute hainbat jokotan, hala nola erruletan, pokerrean, ausazko edozein jokotan, xakean, estrategia jokoetan, etab. Eta beste pertsona batzuentzat, matematikaren edertasuna berez dago haietan. Batzuei zenbait kontu zehatzek eragiten diete lilura; adibidez, Eulerren formula izan daiteke, perfekzio matematikoa esaten zaiona, eta horrek bultzaturik, pintadak egiten dituzte edo bere harekin berarekin tatuatzeko dira. Baina hori egia bada ere, hau da, matematikak fenomeno horien guztien atzean daudela, matematikaren garrantzia ez da haren edertasuna, haren erabilgarritasuna baizik.

Matematikak garrantzitsuak dira baliagarriak direlako. Eta gauza horiek agian pixka bat gutxiago erakarriko gaituztela onartzen badut ere, horiek dira gure egunerokoan moldatzeko erabiltzen ditugun kontuak. Oso argi izan behar dugu herritar guztiek oinarritzko nozio batzuk izan behar lituzketela ma-

Matematikak garrantzitsua dira, BALIAGARRIAK direlako:

Hori da haien edertasun nagusia.

Herritar guztiek behar dituzte matematika-gaitasunak

1. Oinarritzko matematika-gaitasun orokorra → Biztanleria osoak

Pentsioen errebalorizazioa (KPI)

Hipotekak eguneratzea (EURIBOR)

Langabeziaren bilakaera (EPA)

Kreditu bat ematea (arriskuen analisisa).

Epidemien ebaluazioa eta kontrola: GIB, A gripea, ebola, zika, COVID

Azterlanak eta txostenak komunikabideetan

GOOGLE eta gisako bilatzaileen erabilera

Sare sozialen atzean dauden algoritmoak

2. Teknologia Matematikoa eta Estatistikoa erabiltzea, modelizazio eta analisi kuantitatiborako → goi-mailako profesional tituludunak

3. Modelizazio matematikorako eta analisi kuantitatiborako trebetasun aurreratuak → Espezialistak

tematikan, hainbat gaitan moldatu ahal izateko: pentsioen errebalorizazioa, Euriborra, EPA, kredituak, epidemiek nola eboluzionatzen duten ulertzea, ezta?, duela gutxi COVIDek eragin diguna bezala. Albistegietan ikusten genituen zer matematika modelo garatzen ari ziren horren inguruan. Ulertze aldera, komunikabideetan agertzen den edozein ikerketa edo txosten, bai egunkarietan, bai demagun albistegietan, edozein analisi estatistiko grafikoekin eta zenbakiekin batera agertzen dira, ezta?. Horrek zer esan nahi duen, ehunekoak, etab.

Eta, berrikitan, denok gaude hein batean jada bilatzaileen mendean, Google-ren mendean; sare sozialak egunero erabiltzen ditugu, baina, nola funtzionatzen du horrek? Hori, esan dezagun, oinarritzko maila batean, denok gure egunerokoan ditugun gauzekin.

Ondoren, bigarren maila bat egongo litzateke, eredu matematikoen erabilerrari dagokiona, analisi kuantitatiboak, maila aurreratuxeagoko teknikak, hots, unibertsitateko tituludun guztiek izan beharko luketena, azaltzen edo defendatzen saiatuko diren edozer gauzari sendotasun bat, nozio kritiko bat eman ahal izateko. Eta hirugarren maila batean benetan espezialistak egon-en lirateke, matematikan trebetasun aurreratuak dituzten eta zientziaren eta teknologiaren arlo askotan ezagutzaren mugan laguntzen saiatzen diren ikertzaileak. Azken maila horretan kokatzen da nire karrera, eta, bereziki, matematikak laguntzen duten aplikazioetako bat adimen artifiziala da, eta hori da kontatuko dizuedana.



Matematikak ere ezinbestekoak dira adimen artifizialaren mundua ulertzeko eta hobetzeko. Eta zergatik dago hain modan adimen artifiziala? Duela urte

batzuetatik hona etengabe entzuten dugu. Ba ukaezina delako AA bizitza errazagoa egiten ari zaigula.

Denok ditugu etxean edo gure eskuan domotikako aplikazio askotara konektatutako telefono mugikorra, argazkiak egiten ditugu, bidaltzen ditugu, sare sozialetara igotzen ditugu, Internet bidez erosketak egiten ditugu; agian interesatzen zaigu etorkizunean ezar daitezkeen auto autonomoen gaia, edo industrian ere hainbat gauza hasi gara ikusten, hala nola lantegi edo etxalde adimentsuak, etab. Maila guztietan eragiten digu.

Eta, bereziki, adimen artifizialaren zati bat, machine learning edo ikaskuntza



automatikoa deitzen dena, hots, teknologia mota horien azpimultzo bat dena, zehatzagoak direnak datu multzoekin entrenatzen lan egiten dutelako. Bada, gero eta abiadura handiagoan kudeatzeko eta biltegiratzeko gai diren datu multzoez elikatzen dira, eta konexioak egiten dituzte, eta gai dira konexioak egiteko iragarpenak egite aldera eta algoritmoak entrenatzeko, interesatzen zaizkigun arazoei erantzun ahal izateko. Adimen artifizialaren azpimultzo horren barnean, oraindik aplikazio gehiago daude eta arlo profesional askotan arazoak konpontzen dizkigute. Irudien errekonozimendua, testu-

en eta diskurtsoen errekonozimendua, bio eremuko diagnostiko medikoak, online iruzurra atzamatea, web gomendioak, trafikoaren iragarpena... Edo-zein eremu profesionalean, ziur nago aurkituko dugula adimen artifiziala lagungarria zaigun adibiderik.

Eta duela oso gutxi, hau zorabiozko abiaduran ari delako aurrera egiten, adimen artifizial sortzailearekin bonbardatzen ari zaizkigu. GPT txat hori ikusten




ari gara, eta badirudi eskatzen diogun guztia sortzeko gai dela. Batzuetan pixka bat huts egiten du, baina jendea erabiltzen ari da, benetan. Eta ez dago soilik GPT txata. Ohartzen bazarete, GPT txata OpenAIren aplikazio bat da, baina, zenbat daude jada? Horiek guztiak dagoeneko AA sortzailekoak dira.

Eta adibide bat jarriko dizuet haietako batekin: Midjourney, irudiak sortzeko erabiltzen dena. Nik eskatzen diot, erakutsi edonolako margolan bat, eta irudi bat jartzen dit. Orduan, badirudi orain AAK artea ere sor dezakeela, ezta? Hona hemen egiazki ezagunak hainbat lanen lau irudi ditugu. Lehen koadrantean hiru margolan ditugu: horietako bi IAK eginak dira eta beste batzuk Van Goghenak dira. Zein da Van Goghena? Hirugarrena, ezta? Baina lehenengo

biak, benetan harrigarria da noraino nahasi gaitzakeen. Bigarrenen Monet bat daukagu; denok dakigu zein den egiazkoa, baina ohartu zaitezte zernolako gaitasuna duten aplikazio horiek gizakiek benetan eginak diruditen gauzak sortzeko. Hirugarrenen antzeko zerbait, eta azkenekoan, Musua-ren margolan hau ere erabiltzen da antzeko zerbait sortzeko, baina katu batzuekin. Adibide bitxia da.

Orduan, AA erabiltzen ari da, machine learning erabiltzen ari da, baina kontuz ibili behar da, zeren bai, bizitza errazagoa egiten digu, baina teknologia horiek ez dira guztiz objektiboak. Batez ere, orain machine learning ardatz



harturik, bera baita datuetatik ikasten duena. Eta zer gertatzen da datuak erabiltzen ditudanean? Datu horiek potentzialki lerratuta daudela. Arrazoi historikoengatik, bilketa oso baten faltagatik, biztanleria guztiz ongi irudikatzen ez duten datuak erabiltzen ari dira. Orduan, erreproduzitzen eta okertzen ari diren lerratzeak ikasten ari dira. Horrelako adibideek estutzen dituzten herritarrak gehienik, hots, gu, gizakiok, datu-multzo horretako banakoak garen kasuetan. Eta orduan, beldur gara ez ote den lerratzen hori erabiliko

sentikorrak izan daitezkeen aldagaien inguruan, hala nola sexua, arraza, adinaren inguruan... Baina jakinarazi nahi dizuet lerratzearen kontu hau ez dela horrelako konnotazio negatiboa bakarrik izan dezakeen zerbait. Lerratzen bat, besterik gabe, espero ez den zerbait da. Orduan, diskriminazio zentzu horrekin lerratze algoritmikoaren gairako orain erabiltzen diren teknologia horiek ere badaude, konnotazio negatibo hori agertzen ez den beste adibide industrial batzuetan. Adibidez, irudiaren adibide hau oso tipikoa da: otso edo huskieen irudiak diren datu multzo bat dugu, eta argazkian agertzen den animalia huski edo otso bat ote den esanen didan sailkatzaile bat entrenatu nahi da. Bada, irudi horiekin entrenatuz, otsoak elurraren hondo zuriaren gainean agertu ohi direnez, hor daukagu hondo zuriaren lerratze hori, eta nik huski bat agertzen badut hondo zuriaren gainean, otsoa dela esanen dit okerkuntzaz. Beraz, pixka bat ulertu dezazuen zer esan nahi duen datuetan lerratze bat edukitzeak algoritmoaren ondorioa aldaraziko duena.



Baina, ongi diodan bezala, eragiten diguten adibideek larritzen gaituzte. Hori gauza erreala da, jada denbora asko pasatzen ari baita. Adimen artifizialeko

teknologietan aurkitutako diskriminazio kasu errealean adibide batzuk jarriko dizkizuet. Duela 15 bat urte edo pixka bat gehiago, 2008an, eskandalu bat izan zen Amazonen kontratazio politika batzuei buruz, lanpostu teknikoetarako hautagai ziren pertsonen curriculum asko biltzen saiatu baitzen, eta kontua da Amazonek politika horrekin garatu zuen algoritmoak oso modu argian diskriminatzen zituela emakumeak. Zergatik? Ez zelako arduratu curriculumetako datu-base horretan bi generoen ordezkaritza nahikoa handia egoteaz. Orduan, gizonak kontratatzen ari zen gehienbat lanpostu teknikoe-tarako, algoritmo hori gizonen datuekin entrenatu zuelako.

Hau ez da Amazonekin bakarrik gertatu den zerbait. Teknologiaren beste erraldoi batzuek (Facebook, Apple, Google edo Microsoft) kontratatutako gizonen eta emakumeen ehunekoei edo proportzioei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu bai rol teknikoetan, bai zuzendaritza-postuetan, gizonak emakumeak baino askoz gehiago daudela. Beste adibide bat ere deigarria izan ohi da, eta, gainera, bideozaintzako kameretan, aurpegia ezagutzeko kameretan... erabiltzen ari da. Tira, ba teknologiaren erraldoi horiek ere trebatutako algoritmoak direla eta, esan da arraza beltzaren aurkako diskriminazioa egiten ari zirela, eta argiago emakumeen aurkakoa gizonen aurkakoa baino.

Hemen ditugun portzentaje horiek ongi sailkatutakoen proportzioa dira, jasotzen dugun irudiaren arabera. Hau da, nik emakume zuri bat, gizon zuri bat, emakume beltz bat eta gizon beltz bat direla uste edo sailkatzen dudan arrakastaren ehunekoa. Ohartuko zarete arrakasta-ehunekorik txikienak emakume beltzenak direla argi eta garbi, eta ondoren, gizon beltzenak eta emakume zurienak, eta aldiz, ia % ehunean dute arrakasta gizon zurekin, ia bere osoan horrelako gizonekin entrenatu dutelako. Gauza bera gertatzen da Amazonek gai honetarako garatu zuen beste tresna batekin.



Beste arlo bateko adibide bat, justizia kriminalean, Floridako estatuan ere oso sonatua izan zena: algoritmo bat entrenatu nahi izan zen, kriminal batzuek baldintzapeko askatasunean jarri ondoren krimen batean erortzeko zuten arriskua iragartzeko. Zer gertatu da? Aurrez delitu askoz arinagoak zituzten pertsona beltzak berrerortzeko arrisku handiagoarekin sailkatzen ari zirela, aurrez afro-amerikarrek baino delitu askoz larriagoak zituen zuri bat baino.

Beste adibide bat, osasunean. Estatu Batuetako ospitaleek algoritmoak entrenatzen dituzte paziente batek gaixotasun mota jakin bat garatzeko duen arriskua aurreikusteko eta, beraz, tratamendu bat hartzeko merezimendu askoz handiagoa duen hautagaia izateko; bada, ikusi da arraza-lerratze argia dutela afro-amerikarren aurka. Eta ia bukatzeko, halaber badaude AA sortzaileko lerratzeen adibideak, azkenaldian bonbardatzen ari zaigun horri buruzkoak. Duela urte batzuk, 2016an, Microsoftek chatbot bat merkaturatu zuen, hau da, adimen artifizialak sortutako Twitter profil bat, eta hasieran bazirudien oso ongi funtzionatzen zuela, txio oso adierazgarriak ekoizten zi-

tuela, baina Twitterreko datuetatik elikatu eta hasietatik ikasi ahala, teknologia edo profil arrazista eta sexista bihurtu zen. Eta irudiak egiten dituzten teknologien adibideetan ere arraza- eta genero-lerratze argia dugu. Zer gertatzen da Stable Diffusion izeneko teknologia horietako bati eskatzen badiot etxe-garbitzaile baten argazkia, housekeeper ingelesez, generorik ez duena, eta ez natzaio esaten ari emakume bat izan dadila? Zer erakusten dit? Emakumeak erakusten dizkit, bereziki asiarrak eta ez dugu gizonik ere ikusten. Eta zer gertatzen da eskatzen badiot CEO baten irudi bat, esan gabe gizona izan dadila? Ba, gizon gazteak erakusten dizkidala eta emakume bat bakarrik.

Eta horrelako azken adibidea emanen dut eta hartan geratuko naiz horri erantzuteko erabil ditzakegun tresna matematikoak zein diren pixka bat azaltzen saiatzeko, hots, banku-maileguen kasua daukagu argi eta garbi. Espainian ere nahiko ohikoa da, baina horrek batez ere Estatu Batuetan eragiten du, ia mundu guztiak egiten duen zerbait baita: maileguak eskatzearena. Izan ere, eremu horretan ere lerratzea aurkitu da, batez ere arrazari dagokiona; genero-lerratzeari buruzko albisteak ere badaude, baina, batez ere, arraza-lerratze da, eta horren eraginez, arraza faktore baldintzatzaile argia da kredituak emateko.

Eta, esan dudan bezala, esparru honetan geratuko naiz pixka bat azaltzeko zer matematika dagoen atzean edo zer oinarri dauden hori gertatzea eragozten saiatzeko mekanismoak garatze aldera. Adult Datu Multzoa izeneko datu-multzoarekin geratuko naiz. Ameriketako Estatu Batuetako Machine Learning komunitate baten gordailu ireki batean dago, eta literatura zientifikoan eskuragarri egon den lehen datu-multzoetako bat da berarekin lan egiteko eta lerratze hori arintzeko prozedurei buruzko probak egiteko.



Datu multzo honetan, zer dugu? 30.000 pertsonaren baino gehiagoren behaketa asko eta asko ditugu, bai ezaugarri demografikoei buruzkoak, bai beste-lako ezaugarriei buruzkoak. Adibidez, iragazi gogor samarraren ondoren, honakoak aukeratu ditugu: adina, langile-klasea esaten zaion kategoria bat, non maila desberdinetan sailkatuta dauden, hezkuntza-maila bat ere bai, ezkontza-egoera bat, jatorri etnikoa, aldagai bitar bihurtutakoa, hau da, kaukasiarra den ala ez, aldagai horrek sarrera asko zituen arren; gizon-emakume sexua; halaber, Estatu Batuetan erabiltzen diren aldagai batzuk, hots, urtebeteen zehar ditudan irabazi guztiak, galera guztiak, asteko lanorduak, bai eta seme-alabak ditudan ala ez. Eta datu multzo horren helburua da nire urteko diru-sarrerak 50.000 dolarretik gorakoak edo txikiagoak diren aurrestea. Algoritmo hori banku bati emateko eta kreditu bat ematen dizudan ala ez esateko. Bada, zer gertatzen da datu multzo horrekin? Ba lerratua dagoela, aipatu ditudan bi aldagaiei dagokienez, sentikorrak izan daitezkeenak, hau da, sexua eta jatorri etnikoa, alegia.

Hemen ikusten dugun bezala, desproporzio nabarmena dago 50.000 dolar baino gehiago jasotzen dituzten edo ustez hori jasotzera aurreikusita dauden emakumeen artean eta, halaber, kaukasiarrak ez diren pertsonen artean.

¿Cómo se define la equidad algorítmica?

Atributo protegido $S \in \mathcal{S}$	Atributos no protegidos $X \in \mathcal{X}$	Etiqueta $Y \in \mathcal{Y}$	Resultado $\hat{Y} = \mathcal{A}(X, S)$
---	--	---------------------------------	--

$\mathcal{A}$ aprende de (X, S) y produce un resultado $\hat{Y} = \mathcal{A}(X, S)$ que imita el verdadero valor de la etiqueta Y

- (i) **Noción ética**
Establece la manera de limitar la influencia de S en $\hat{Y}$
- (ii) **Formulación matemática**
Algún tipo de (in)dependencia condicional entre $\hat{Y}$ y S
- (iii) **Implementación**
Metodología para llevar a cabo la formulación matemática
Hay **sesgo** cuando el criterio de equidad algorítmica no se satisface

Ikusten duzue hemen bi azpitalde horien oso proportzio txikia dagoela. Orduan, datu-multzo hori banku bati ematen badiot, zer gertatuko da? Ba, lerratzte hori piztu eta zabaldu egingen dela, transmititu egingen dela, eta are okerrera ere egingen duela. Orduan, zer egin behar dut hori ez gertatzeko? Orain hasi da gaurko azalpenaren zati ez hain polita. Orduan, algoritmo baten zer esan nahi duen ulertu behar dut. Algoritmo bat, azkenean, funtzio bat da, datu batzuetatik ikasi eta emaitza bat sortzen duen tresna matematiko bat. Guk sailkatzaile batean jarriko dugu arreta, ahalik eta errazena delako. Imaginatu bi mota ditudala: gizonak eta emakumeak edo zuri-beltza eta 0-1 den etiketa iragarri nahi dut, bai-ez, arrakasta-porrota. Hori da kasurik errazena. Orduan, ekitate algoritmikoa zer den formalki definitze aldera, hau da, biztanleriaren bi azpitalde horiek arrakasta-berdintasuna izan dezatela, horrela utziko dugu, nik ekitatetzat hartu nahi dudana nozio etikoa definitu edo ezarri behar dut. Izan ere, matematikan, lantzen dudana guztiarekin, argi eta garbi definitu behar dut zer esan nahi duen. Nozio etiko hori onartu ondoren, matematika jarri behar dut, probabilitateen edo antzeko gauzen terminoetan adierazi behar dut. Eta behin hori matematikoki nola formulatzen dudana erabakitzen dudanean, ekitate-baldintza horiek exijitzeko gai diren metodoak garatu behar ditut.

Orduan, nahasmen matrize hau erakutsiko dizuet, uste baitut agian bio topo esparruren batean edo medikuntzan aurkitu ahal izan duzuen zerbait dela... Matrize hori kontrol-kasua esan ohi zaio, eta ongi sailkatu diren pertsonen sailkapen bat baino ez da. Hau da, arrakasta gisa sailkatu dira benetan arrakastatsuak direnean, edo porrot gisa sailkatu dira benetan halaxe direnean. Kasu horietan, nire algoritmoaren irteera benetako balioarekin gurutzatzen dudanean, beti daude bi errore mota: positibo faltsu bat eta negatibo faltsu bat.

Bada, estilo honetako matrize batetik abiatuta eraiki ditzakedan metrika mota horiek dira ekitate algoritmiko hau definitzeko erabili behar ditudan nozioak. Irudi horretan tipikoenetako batzuk deskribatuta ikusten dituzue, gehien ezagutzen direnak: sentikortasuna, espezifikotasuna, zehaztasuna, errorea... Baina asko eta asko daude. Beste asko daude, eta ekitate algoritmikoa-ri buruzko literaturan metrika kopuru izugarria definitu da.

Clasificación binaria: $\mathcal{S} = \{0, 1\}$, $\mathcal{Y} = \{0, 1\}$
Matriz de confusión ↔ Métricas de desempeño del algoritmo

	Predicted Positive	Predicted Negative	
Actual Positive	TP <i>True Positive</i>	FN <i>False Negative</i>	Sensitivity $\frac{TP}{(TP + FN)}$
Actual Negative	FP <i>False Positive</i>	TN <i>True Negative</i>	Specificity $\frac{TN}{(TN + FP)}$
	Precision $\frac{TP}{(TP + FP)}$	Negative Predictive Value $\frac{TN}{(TN + FN)}$	Accuracy $\frac{TP + TN}{(TP + TN + FP + FN)}$

➤ AR: Ratio de aceptación $AR(CM) = \mathbb{P}(\hat{Y} = 1)$
 ➤ TPR: Razón de Verdadero Positivo $TPR(CM) = \mathbb{P}(\hat{Y} = 1 | Y = 1)$
 ➤ FPR: Razón de Verdadero Negativo $FPR(CM) = \mathbb{P}(\hat{Y} = 1 | Y = 0)$

Hemen erakusten dizkizuet nozio etiko batzuk, nahasmen-matrize horren kalkuluetatik abiatuta eraikitzen direnak. Adibidez, parekotasun demografikoa esaten zaiona; gehien erabiltzen dena da, kalkulatzeko errazena delako, eta besterik gabe eskatzen ari da arrakasta izateko probabilitate bera izatea bi motetan: kredituak ematen zaizkien emakumeak kreditu bat ematen zaien gizonen proportzio bera dira.

¿Cómo se define la equidad algorítmica?
Clasificación binaria: $\mathcal{S} = \{0, 1\}$, $\mathcal{Y} = \{0, 1\}$, $\mathbf{C}_s$, matriz de confusión del grupo s

Equidad / Fairness	$\theta(\mathbf{C}_0, \mathbf{C}_1)$	Performance / Desempeño
➤ Demographic Parity (DP) Paridad demográfica $AR(\mathbf{C}_1) = AR(\mathbf{C}_0)$		➤ AR: Ratio de aceptación $AR(\mathbf{C}_s) = \mathbb{P}(\hat{Y} = 1 S = s)$
➤ Equality of Opportunity (EOp) Igualdad de oportunidades $TPR(\mathbf{C}_1) = TPR(\mathbf{C}_0)$		➤ TPR: Razón de verdadero positivo $TPR(\mathbf{C}_s) = \mathbb{P}(\hat{Y} = 1 Y = 1, S = s)$
➤ Equality of Odds (EO) Igualdad de ventajas $TPR(\mathbf{C}_1) = TPR(\mathbf{C}_0)$ $FPR(\mathbf{C}_1) = FPR(\mathbf{C}_0)$		➤ FPR: Razón de falso positivo $FPR(\mathbf{C}_s) = \mathbb{P}(\hat{Y} = 1 Y = 0, S = s)$
➤ Predictive Parity (PP) Paridad predictiva $PPV(\mathbf{C}_1) = PPV(\mathbf{C}_0)$		➤ PPV: Valor predictivo positivo $PPV(\mathbf{C}_s) = \mathbb{P}(Y = 1 \hat{Y} = 1, S = s)$

Tira, agian zorrotzegia den nozio hori nolabait erlaxatu daiteke, eta beste batzuk kontuan hartu, hala nola aukera-berdintasuna, berdintasuna positibo egiazkoan bakarrik exijitzen duena, eta beste asko... Nik bi horiek erabiliko ditut, erabilienak baitira:

¿Cómo se define la equidad algorítmica?

Atributo protegido $S \in \mathcal{S}$	Atributos no protegidos $X \in \mathcal{X}$	Etiqueta $Y \in \mathcal{Y}$	Resultado $\hat{Y} = \mathcal{A}(X, S)$
---	--	---------------------------------	--

„A aprende de (X, S) y produce un resultado $\hat{Y} = \mathcal{A}(X, S)$ que imita el verdadero valor de la etiqueta Y “

Noción ética & Formulación Matemática


- **Demographic parity (DP)** (Dwork et al., 2012)
Los atributos sensibles no influyen en el resultado $\hat{Y} \perp S$
- **Equality of odds (EO)** (Hardt et al., 2016)
Los atributos sensibles no influyen en el resultado, sabiendo el verdadero valor de la etiqueta $\hat{Y} \perp S \mid Y$

Egiazki, lehenengoarekin bakarrik lan egingo dugu, baina beste batzuk ere badaudela jakin dezazuen. Bilatuko dugu arrakasta probabilitatean berdintasuna egotea. Honelako zerbait: aldagai sentikorra algoritmoaren emaitzarekiko independentea dela. Aldagai sentikorrak daraman informazio horrek ez du eraginik algoritmoaren emaitzan. Behin nire nozio etikoa nolakoa den ezarrita daukadanean, badakit nola formulatu behar dudana matematikoki, eta hura ezartzeari ekin behar diot: garatu behar ditut ekitatearen nozio hori ezartzen lagunduko didaten metodoak. Nola egin daiteke hori? Literaturan izan den proposamen bat izan da besterik gabe ratio bat kontuan hartzea: zatidura bat bi klaseen arrakasta-probabilitateen artean, eta *disparate impact* deitzen den indize hori (neurritz kanpoko inpaktua) zerotik hurbil edo batetik hurbil dagoen ikustea. Zenbat eta handiagoa izan, esan nahi du bi probabilitateak berdinak direla eta baldintza onetan nagoela. Egoera ideala bat izatea litzateke. Beraz, indize horretatik abiatuta, aztertu edo ikusiko dugu zer gertatu den, zer gerta daitekeen algoritmo horiek entrenatzen ditudanean.

Zergatik diot ezarpenaren kontu hori ez dela inola ere hutsala eta benetan zaila dela? Hasieran horri buruz hainbeste ez genekienean eta hainbeste axola ez zitzaigunean, orain bezain zuzenean eragiten ez zigulako, agian ez

zitzaion hainbeste buelta ematen, eta ustez eraginkorrak ziren politikak egin ziren, eta egiazki ez dira inola ere eraginkorrak. Hortaz, kontatuko dizue dan hau nik arlo honetako literaturari ekarpena egin diodan lanetako baten parte da, eta pentsa dezakegu agian entrenamendu-lagina gizon adina emakumerekn edo zuri adina beltzekin, hau da, kopuru berarekin, landuz gero, lortuko dudala algoritmo horrek lerratze hori ez ikastea. Ez, ba. Hau da, hori ez da hori bezain erraza den zerbaitekin konpontzen.

Ohartzen bazarete, lehen grafikoak indize hau irudikatzen du, hau da, edozein algoritmo entrenatu aurretik batetik hurbil izatea nahi dudana. Ondo-



ren, hiru algoritmo mota ezberdin entrenatzen ditut eta indizea berriro kalkulatzeko dut. Ba, ikusten duzue jaitsi ere egin dela. Hau da, lerratzea are gehiago okertu dela. Agian naif-ena izan daitekeen beste proposamen bat, intuitiboena, nire datu multzoa hartu eta aldagai sentikorraren informazioa kentzea eta ezabatzea da, eta algoritmoa gainerakoekin entrenatuko dut. Horrela, algoritmo justua lortuko dut? Ez, ba. Ez, beste aldagai batzuetan dagoen informazioa lerratze-informazio horrekin korrelazioan egon daitekeelako. Sexua, arraza, etab. Aldagai hau kendu dudanean algoritmoak entrenatu aurretik indize hau kalkulatzeko badut, ikusten dut algoritmo hau ez dela


inola ere justuagoa. Eta, azkenik, badira asko aipatuko ez ditudan beste teknika mota batzuk, testing izenekoak, batez ere Frantzian justizia kontuetan erabilitakoak. Hots, saiatsen ziren algoritmo baten erantzuna ematen pertsona bati, huraxe entrenatuz edo ikusiz zein erantzun emanen ote liokeen, demagun, bere profila duen gizabanako artifizial bati, baina soilik aldagai sentikorrarena aldatu zuena: nik beltz baten datuak hartzen ditut eta esaten dut zuria dela, ea algoritmoak zer esaten duen zer den. Beno, ba horrelako gauzak eginez ez da lortzen lerratzea ezabatzea. Beraz, ekitatearen ezarpena, agian hain modu errazean definitu dezakeguna, ez da batere kontu hutsala, eta eredu matematiko oso indartsuak behar dira horri erantzun ahal izateko. Funtsean, eredu matematiko horiek zer egiten dute? Tira, arrisku bat minimizatzea da kontua.



Zeri esaten zaio arrisku matematiketan? Algoritmoaren emaitzaren eta atera beharko litzatekeenaren artean espero dudana alde batetik bezalakoa da. Nik hori oso txikia egin nahi dut, alde hori oso txikia egin nahi dut. Horri erantzuteko, teknika asko eta asko daude, mota askotakoak, eta hiru talde handitan sailkatzen saiatuko naiz. Ondorengo irudiari erreparatzen badiotue, urdinez al-

goritmo baten eskema dago oro har margotua: datu multzo batetik abiatzen naiz, algoritmoa entrenatzen dut, eredu ateratzen dut eta emaitzak ikusten ditut.

Ekitate baldintzak zein unetan ezartzen diren, metodo mota batzuk edo beste batzuk daude, honela deitzen direnak: aurreprozesatua, hau da, datuak



aldatu, eta gero, algoritmo bat entrenatzen dut; inprozesatua, algoritmoari murrizketak jartzen dizkiodala esan nahi du; eta postprozesatua, hau da, ez naiz arduratzen datuak nolakoak diren, ezta algoritmoa nolakoa den ere, emaitzak ditut eta hor aldaketa jakin batzuk egiten ditut. Metodo familia horietan guztietan lan asko eta asko daude, gero eta gehiago, gai horiek hobetzen saiatzen ari dira, eta ikuspegi matematiko asko eta asko daude familia handi horientzat guztientzat.

Nire ekarpenak egin ditudan haietan beste kolore bat jarri dut, eta haietako hiru kontatuko dizkizuet labur-labur. Agian, guztietan garrantzitsuena, nire doktoretza-tesiaren ekarpen bat dena, lehen motakoen ikuspegi bat zen. Izan gaitezen errealista, eta pentsatuko dugu benetan nik hori praktikan aplikatu nahi dudanean, ez dudala algoritmoetarako sarbiderik izanen, enpresek ez dizkidatelako eman nahi izanen, eta ez dituztelako aldatu nahiko, dirutza

Hitzez hain labur kontatzen dizuedan honek tresna matematiko batzuk ditu atzean, eta gaur egun dagoen gauzarik indartsuenetakoa da, eta horri garraio optimoa esaten zaio. Egiazki, oso teknika eraginkorrak dira horrelako gaietarako. Izan ere, algoritmo batean oinarritzen ez den ekitatearen nozioa ematea ahalbidetzen dute. Zeren nik algoritmoa aldatzen badut, zer gertatzen da? Beste bat entrenatzen dut, eta orain izan daiteke bestea baino justuagoa edo ez hain justua. Hau da, ez dut nahi ekitatearen nozioa algoritmoaren emaitzaren mendean egotea. Nozio globalago bat bilatzen saiatuko naiz, sendoagoa, nik entrenatzen dudana algoritmoaren mende ez dagoena. Lehen lan horrek beste garapen mota batzuk ekarri zituen, eta aukera eman



Azkenik, badago beste ekarpen bat, agian deigarria ere eginen zaizuen: horrelako tekniken aldaera bat, murrizketa izenekoa eta COVIDeko datu multzoetan aplikatu genuena, jakiteko ea pertsonen aurkako diskriminaziorik egon ote zen adinekoen egoitzetan, ospitaleratzeko edo ZIUn sartzeari begira, etab. Teknika horiek antzeko zerbaitetan oinarritzen dira. Ni bi populazioak ahalik eta antzekoenak egiten saiatzen naiz, baina datuak garraiatuz egin beharrean, datuak murriztuz egiten dut. Banaketa horiek desberdinak izatea eragiten duten datuak ezabatzen ditut, eta algoritmoa entrenatzen saiatzen naiz.


Orduan, agian metodo perfektua garatzea, oraindik ez da hurrik emanda ere lortu ez duguna, baina gutxienez pentsatzen saiatu beharra dago beharrezkoak diren hitz guztietan edo baldintza guztietan, horrelako teknologia batek ongi funtzionatu dezan, baldintza onekin. Hori benetan erronka bat da, adimen artifizial batek bete behar dituen definizio eta baldintza ugari daudelako, benetan fidagarria izan dadin: esplikagarritasuna, sendotasuna, interpretagarritasuna, pribatutasuna... Horrenbestez, hori lortzen saiatu beharra dago; berriz diot jende asko eta asko ari dela lan horretan, baina egiazki oso korapilatsua da.

Jakina, ulertzen errazak diren bi baldintza horietako biri bakarrik erreparatu badiugu, hala nola ekitateari eta algoritmo baten jardunari (jarduna da algoritmo horrek pertsona batentzat benetako emaitza auresateko duen zehaztasuna, asmamena edo akatsa baino ez da), arazoa jada biobjektiboarekin, buruan bi helburu dituen, oso konplexua da. Eta herritar talde batekiko ekitatea jokoan sartzea da bereziki erronka. Zergatik? Izan ere, normalean nahiko mugatuak diren datu multzoekin lan egiten dudanean, ekitate algoritmiko aintzat hartzen dudanean, datu horiek are gehiago zatitzen ari naiz, azpitaldeekin lan egiten ari naizelako. Hor garatu behar diren teknikak oso eraginkorrak eta oso eraginkorrak izan behar dira benetan.

Erreparatu, besterik gabe, jarraian erakutsiko dizuedan grafiko honi. Literaturan dauden algoritmo proposamen asko entrenatu ditugu, datu multzo batekin entrenatutako algoritmo jakin baten lerratzea neurtzeko. Literaturan ekitateari buruzko nozioak dituzten teknikak dira horiek, lerratze hori neurtzeko. Aipatu dizuedan ekitatearen nozioetako batean daude oinarrituta, hau da, aukera-berdintasunean. Eta hemen kolore desberdinetan margotu ditugu emaitza horiek teknika desberdin horiekin, algoritmoa datu multzoa-

ren zatiketa desberdinekin entrenatu dugunean. Hori oso ohikoa da: datu multzo bat hartzen da eta zatiketa desberdinak egiten dira, entrenatzen da eta emaitzak ikusten dira ikusteko nola alda daitekeen algoritmoa entrenatzen ez dudan datu multzoa aldatzen dudanean. Ikusi zeinen aldakortasun edo ezegonkortasun handia dagoen algoritmo bat bidezkoa eta zehatza ote den jakiteko erabiltzen diren edo erabil daitezkeen metriketan. Ikusten duzue metodoen artean alde handia dagoela, baita metodo beraren barruan ere.

Ekitatearen definizio horren formalizazioaren aldea gutxi gorabehera gaindituta dugun honetan, orain dator ematen ari zaizkigun emaitza horiek kudeatzen jakitea. Ni ezin naiz oinarritu metrika batekin kalkulatzen dudan emaitza puntual batean, baizik eta ekitate edo jarduneko metrika horrek eman diezadakeen informazio gehiena biltzen saiatu behar dut. Nozio honetarako ikusi dugun hori nozio guztiontzat gertatzen da, parekotasun demografikorako edo beste batzuetarako. Zer teknikaz fidatuko naiz? Zuzena eta justua dela esaten didanaz edo hori esaten ez didanaz?



¿Conclusiones...?

Tenemos por delante un largo (**e incierto**) camino hacia la regulación de la IA, en particular, para conseguir un ML equitativo y confiable

Detección de sesgo, Mitigación de sesgo, Equidad, Explicabilidad, Robustez, Auditoría, Consultoría....

Se necesitan grupos potentes de investigación en **Matemáticas, Estadística e Informática** para establecer una fundamentación sólida que permita resolver los retos que nos plantea la IA

Hemen, berriro diot, jende asko eta asko ari da lanean. Soil-soilik erakusten dizuet oso oinarritzko zerbait, aditzera ematen diguna hemen benetako matematika jarri behar dela eta ahalegin handiak egin behar direla horrelako teknologien atzean zer dagoen jakiteko.

Soil-soilik berriz ere adierazi nahi dizuet oraindik bide luzea dagoela egiteko, oraingoz zalantzazkoa dena, baina lan handia egiten ari da horretan. Lasaitasun eta konfiantza mezu bat helarazi nahi dut, zientzialari asko eta asko ditugulako horretan lanean, eta horri buruzko irtenbide benetan onak ikusiko direlako. Baina, zenbat urte daramatzagu Adimen Artifiziala aztertzen? Oso gutxi. Atzera begiratzen baduzue, arlo teknologikoetako irtenbide onak denbora asko behar dute, baina horretan ari gara. Profesional handiak behar dira, batez ere matematikan, estatistikan eta datuen zientzian espezialistak izanen direnak, diziplina anitzeko talde bateko kide izanen direnak, beste diziplina batzuetako jendearekin batera aritzeko, hau da, soziologiakoekin, etikakoekin, zuzenbidekoekin eta askoz gehiagokoekin, eragiten ari zaigun arazo handi horri aurre egin ahal izanen dioten talde handiak osatzeko, eta ziur nago irtenbide on batera iritsiko dela eta denok teknologia horiek askoz modu seguruagoan erabili ahal izanen ditugula.





Aliantza-estrategiak Nafarroako kultur politketan

TOPAKETA

Ignacio Apezteguia (Nafarroako Gobernuako Kulturako zuzendari nagusia - Vianako Printzea erakundea), Xabier Alcuaz (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko presidentea) eta Nora Bengotxea (Aranguren Ibarreko udaleko kultura teknikaria) arteko topaketa.

Moderatzailea (David Márquez):

Mahai ingurua hasiko dugu. Izenburu hau eman diogu «U mahaitik mahai ingurura. Aliantza-estrategiak Nafarroako kultur politketan». U moldeko mahaia mahai osagabea da: badu oinarri bat, mahaiburu bat eta beso eta solaskide batzuk bi aldeetan, eta beti iduri du baten bat falta dela, parekoa. Mahai inguru bat, oposizioz, osatua dago, guztiek guztien aurpegiak ikusten dituzte eta elkarriketa nahiz entzuketa errazten ditu. Horixe da izenburuan datzan kontzeptua; izan ere, ikusten duzuen bezala, hizketaldi honen bidez elkarriketa une bat hasi nahi dugu, estrategia berri posibleak aurrera eramateko eta jorratzeko aukera izan dezagun, zertarako eta Nafarroako kultur politikak hobetzeko parada izan dezagun. Etorriko dena. Horretaz hitz egingen baitugu: nondik gatozen pentsatzen saiatzeaz gain, begirada etorkizunera begira ere pausatua beti, etorriko den hartarantz, alegia.

Egia esateko, mahaiaren helburua da lankidetzat instituzionalerako bide berriak erkaetzea eta gogora ekartzea Nafarroako kultur politikak garatzeko; bereziki toki mailan. Eta zergatik «bereziki» hori? Mahai hau pixka bat sortu delako aurreko urtean KUNAN egindako lan baten ondorio edo jarraipen gisa; KUNARI lagun egiteko eskatu baitzitzagun Radar Culturari, udaleko kultur zerbitzuak modelizatze aldera. Nolabait, urte horretan hausnartu egin genuen nola hobetu sistema horiek, zergatik hartzen dugun logika sistemiko hori. Hortik heldu da toki mailatik abiatzea, baina egiazki nahi duguna da hausnarketa ez dadila soilik hor gelditu, nahiz eta badakigun horretan pausatu behar dugula arreta gehien.

Mahai-inguru honetara Ignacio Apezteguia gonbidatu dugu. Humanitateetan lizentziaduna da eta bederatzi urtez ibilbidea egin du kultur kudeaketan. Orain, lau urte baino gehixeago daramatza Nafarroako Gobernuako Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian; beraz, ibilbide luzea egin du. Gurekin ere Xavier Alcuaz dugu, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan diplomaduna, beste diploma batzuekin osatu duena: Finantza eta Banku Zuzendaritza, Fiskalitatea, Inbertsioak, etab. Gaur egun Tafallako alkatea da, eta, alkatea den aldetik, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko presidente ere aukeratu dute, eta kargu hori duen heinean ere dago gaur hemen gurekin. Nora Bengotxea askoz ere hobeki ezagutzen duzue, KUNAKo kide baita duela aspalditik hona, baina lizentziaduna ere bada Enpresen Administrazioan eta Zuzendari-

tzan diplomaduna, beste diploma batzuekin osatu duena: Finantza eta Banku Zuzendaritza, Fiskalitatea, Inbertsioak, etab. Gaur egun Tafallako alkatea da, eta, alkatea den aldetik, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko presidente ere aukeratu dute, eta kargu hori duen heinean ere dago gaur hemen gurekin. Nora Bengotxea askoz ere hobeki ezagutzen duzue, KUNako kide baita duela aspalditik hona, baina lizentziaduna ere bada Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan. Beti ematen dut informazio hori, horrela profil intelektualak ere pixka bat kokatzen dituzuelako. Nora Kultur kudeaketan dago prestatua, funtsean horretan aritu baita azken urteotan: Barañaingo Auditorioan ibili da eta orain Aranguren Ibarreko Udalean dago, bertako Kultur Teknikaria baita, eta horrexegatik ekarri dugu gaur mahai inguru honetara. Eta mintzatzen ari zaizuen hau, ni David Márquez naiz: Zientzia Politikoe-tan lizentziatua naiz, masterrak egin ditut kultur kudeaketan, eta Project Manager Ziurtatua ere banaiz. Gaur egun, Radar Culturako zuzendaria naiz. Enpresa bat da, eta aholkularitza, analisi eta kudeaketa lanak egiten ditugu kultur arloan.

Hasiko dugun saioa hiru ataletan dago egituratua, eta haietako bakoitza iritsi ahala zehaztuko dut. Atal bakoitzean, hiru gonbidatuek beren ikuspuntua emateko aukera izanen dute, bai eta iritzi trukean aritzeko aukera ere. Eta, azkenean, laugarren atalean, entzuleen galderen eta hizlarien arteko eztabaiden txanda izanen da.

Sarrera txiki honen ondoren, lehen atalari helduko diogu, hots, “udaletako kultur zerbitzuen bilakaera eta erronkak”. Egia esan, interesatzen zaigu zuen ikuspuntua entzutea, dela pertsonala, dela instituzionala, udaletako kultur zerbitzu horien bilakaeraz egiten duzuen analiziaz eta, zuen iritziz, zer erroka izan litzaketen etorkizunera begira, etorriko den etorkizun horri begira.

Nora Bengotxea:

KUNak talde eragile bat sustatu zuen analisi hori egiteko eta, azken urte honetan, Davidekin aritu gara lanean, eta ezer egin ahal izan badugu, egunero-

ko lanaren fokutik ateratzea eta ikuspegi zabalagoa izatea izan da, azken urte hauetan guztietan edo hamarkadetan egin dena baloratu ahal izateko. Izan ere, egunerokotasunean, lanak gehienetan jan egiten gaitu eta ahaztu egiten zaigu, ikuspegia galtzen dugu pixka bat. Orduan, Nafarroako kultur kudeaketak azken hamarkadetan izan duen bilakaeraren argazki bat egiten saiatzen bagara, nik uste dut ukazina dela argazki hori argazki ona izanen litzatekeela.

Bilakaera handia izan da kultur zerbitzuei dagokienez. Izan ere, gero eta udal gehiagok -ez guztiek- baina bai gehien-gehienek, beren kultura zerbitzua dute. Hori guztia udalek berek bultzaturik. Horrekin batera, oso inbertsio handia egin da azpiegiturretan eta, horren ondorioz, azpiegitura-dotazioa inbidia emateko modukoa da, eta hori askotan ahaztu egiten zaigu, baina kanpotik horixe esaten digute. Horrekin batera, Nafarroako Antzoki Sarea sortu da eta, horri esker, lurralde oso anitza lortu da, eta politikak Nafarroako zokomoko guztietara iritsi ahal izan dira, ipar, hego, ekialde eta mendebaldera, edo gehienetara, eta sarea bera sortzeak elkarrekin eta politika bateratuetan lan egiteko aukera eman digu, eta lan espazioak sortzen aritu gara, eta politika horiek aplikatzen, edota publikoak hobeki kudeatzeko aukera emanen digun CRM bat kontratatzen; bestalde, “Oholtzara Salto a Escena” edo Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuitua proiektuak ere sortu ditugu eta, horiei esker, egoera oso ona ere badugu publikoari dagokionez. Publiko asko sortzen joan gara azken hiruzpalau hamarkadetan, eta lanbideak izugarri egin du arrera.

Egia da, halaber, horrek guztiak kultur kudeaketako profesionalaren profilaren bilakaera ekarri duela; izan ere, hasieran, kudeaketa soziokulturaletik zuen gehiago, eta gero eta profesionalagoa da. Espainiako elkarte zaharrene-tako bat dugu kultur arloko profesionali dagokienez, eta gure lana, gure eginkizunak eta gure ezagutzak izugarri aurreratu dira azken lau hamarkade-tan, eta espezializazioa gero eta handiagoa da, eta profil hori kulturarekin lotuta sortzen diren beharretara ere egokitzen joan behar izan da. Oro har, nik uste dut esan genezakeela gure argazkian baditugula azpiegiturak, eta

profesional kualifikatuak, bai eta publikoa ere; eta, nola ez, hirugarren sektorea, kasu gehienetan nahiko inplikatu.

Egia da lanbidea bera, kultur kudeaketa, eraldatzen joan dela eta gero eta zeharkakoagoa den zerbait dela. Hasiera batean, badirudi askotan pertsona bakarreko kultur zerbitzuak garela, askotan udalerriaren alde batean baztertuak, baina, egia esan, gure eskuetatik gauza asko pasatzen dira, hala nola berdintasun politikak, gazteria politikak, euskara politikak, bai eta ingurumeneak ere, eta kultura bide ona da eta erabiltzen da udalerrri batek bere helburuen barnean markatu nahi dituen gainerako politika guztiak herritarrei helarazteko.

Zeharkakotasun hori hizpidera ekarrita, horren eraginez, lanbidea gero eta zorrotzagoa da, eta gainera, kudeaketa bera urtez urte zailtzen doa, eta kudeaketarako eskakizunak gero eta handiagoak dira. Hori dela eta, askotan, ez da zaila arreta jartzea egiten ari garen horretan, eta galdera errazei erantzun ahal izatea; esate baterako, zer egiten dugu? Norentzat egiten dugu? Nola egiten dugu? Eta zergatik egiten dugu?

Orduan, agian, nire ustez aurrean dugun erronka nagusietako bat da gelditze ariketa hori egin ahal izatea eta gauza arras logiko bat egitea, hots, kultur politika zehatzak aztertzea, ebaluatzea eta definitzea, kultur zerbitzu bat zer den, zer izan behar duen, zein diren aurrera eraman behar ditugun kultur politikak eta nola kudeatuko ditugun. Orduan, lan egiteko oso egitura ona dugunez eta, egunerokoan askotan ahaztu egiten zaigunez, saiakera egin behar dugu premiazkoa denak gauza garrantzitsua jan ez dezan, eta geldione bat egin benetan egiten dakiguna egiteko, hau da, beharrezkoak diren baliabideekin kudeaketa lana egitea. Ziurrenik, erronka nagusia da kultura, kultur kudeaketa eta kultur zerbitzuak zein diren pentsatzea, horrek berekin dakarren guztiarekin azpiegitura, giza baliabide eta berezko politketan, zer nahi dugun 2024 honetan eta epe ertain eta luzean.

Xabier Alcuaz:

Lehenik eta behin eskerrik asko solasaldi honetara gonbidatzeagatik, Kunako lagunei. Nik uste dut, ziur aski, lehenago hitz egin beharko litzatekeela herri-tarren kulturarako sarbideaz, gero tokiko erakundeok, udalok, izan dezakegun eginkizuna ikusteko, kultur arloan ditugun eskumenak erabiliz, ondoren eskumen horren gaineko udal egiturak aztertzeke. Esan behar da baita ere udaletako kultur zerbitzuek kultur eskaintza horren zati bat ematen dutela, baina hainbat elkarte, enpresa ere badaudela; bestalde, kultura ere irratia-ren bidez eskuratzen da, telebista bidez, zinetoki eta antzoki pribatuen bidez, eta hori ere kontuan hartu behar da.

Eta hemen ere oso positiboa iruditzen zait Nafarroako herri eta hirietan daukagun elkarte sare handia, kontuan hartu beharreko zerbait baita nik uste eta mahai gainean ere jarri beharrekoa. Esaten ari nintzen bezala, gure udalek kultur arloan duten eginkizuna garrantzitsua da, baina arlo horren zati bat baino ez da. Halaber, esan nahiko nuke Nafarroan ditugun 272 toki entitateetatik 50ek bakarrik dutela kultur teknikaria, eta beste 220ek ez dute gisa horretako langilerik. Eta askotan ez dute behar adina baliabide ekonomikorik, eta hori aurrerago aipatuko dut. Norak esan duen bezala, aurreko urteetan inbertsio handiak egin dira espazio fisikoetan, eta nekez ikusiko dugu Nafarroan kultur gunerik, kultur etxerik edota horrelako jarduketak egin daitezkeen lekurik ez duen herri edo hiririk. Eta udal kultur zerbitzuek jokatu behar duten eginkizunari dagokionez, nik uste dut oraintxe bertan aipatu ditudala: bat da arte eszeniko eta plastikoen eskaintza egituratzea, baina era berean uste dugu elkarte sare hori guztia dinamizatu behar dutela, gure herri eta hirietan hain garrantzitsua den hori.

Azaleko begira historiko bat eginez, kulturako langileak 80ko hamarkadan hasi ziren, agian sentiberatasun handiagoa zuten zinegotzien bultzadari esker, eta esan behar da, edo uste dut esan beharko genukeela, ahalegin hura nabarmendu behar dela, beste arlo batzuetan ez zegoelako teknikaririk edo geroago sartu zirelako. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiet toki entitateetan aritutako pertsona horiei guztiei, 80ko hamarkadan jada apustu hura egin

baitzuten teknikariak egon zitezen. Urte haietatik hona, logikoa denez, aldatarik egon da, ibilbide bat, historia bat, eta orain 40 urteko eta oraingo kultur zerbitzuak ez dira berdinak; eta KUNAk enkargatutako azterketa irakurri ondoren, argi dago funtsezko arazoak planteatzen direla, baina era berean esan behar da ez dagoela irtenbide magikorik eta irtenbide horiek ezartzea aztertu egin beharko dela.

Toki entitateetatik ikusten ditugun arazo batzuk azkar aipatzearren: bata da, solaskideak esan bezala, kultur egitura udal antolamenduaren barnean egokiro sartzeari; bestalde, zailtasunak ere badira ordutegiei eta langileei dagokienez, eta ordutegi horiek antolatzea. Horrez gain, udal alorrekin koordinatzea; adibidez, liburutegi zerbitzuarekin, etab. Esan bezala, arazo asko dau-

de, baina uste dut alde guztien artean, hau da, Nafarroako Gobernua, Federazioa eta toki entitateak, bai eta teknikarien aldetik ere, irtenbide bat ematen saiatu behar dugula eta, ahal den neurrian, hobetu daitekeena hobetu.

Eta, arestian esan dudana bezala, 50 bat toki entitate ditugu. Ni Tafallako alkatea naiz, eta badugu kultur teknikaria, baina zer gertatzen da halako langilek ez duten beste 220 toki entitateekin? Gehienetan, entitate txikiagoak dira, eta beti auzo elkarteek, herriko kultur elkarteek bultzaturik dihardute, eta lehen esan dudana bezala, baliabide ekonomiko handirik gabe; udal horiek nekez har ditzakete bere gain kultur arloko eskumenak. Askotan langileak kanpoan kontratatzen dituzte hori gauzatu ahal izateko.



Bestalde, Kulturako Departamentuaren diru-laguntza lerroak askotan ez dira iristen toki entitate txiki horietara, eta ezin dute kultur programaziorik egin. Federazioan pentsatzen dugu hori ere mahai ganean jarri behar dela eta landu beharko litzatekeela. Esan dudan guztiarekin, ez nuke ere gelditu nahi gauzak bere horretan mantentzearen etsipen sentimenduarekin.

Kultura legeak ematen digun eskumenetako bat da eta hartan lan egin behar dugu. Eta nik uste dut foro desberdinetan eseri behar dugula hitz egiteko. Gaurko hau, adibidez, iritziak trukatzeko eta mekanismoak bilatzeko modu interesgarria iruditzen zait, herritar guztiek kulturarako sarbidea izan dezaten lortzeko, ez bakarrik Kulturako teknikariak eskura dituztenek, baita Nafarroako herritar guztiek ere.

Ignacio Apezteguia:

Gaiari heldu baino lehen, utz iezadazue, une honetan betetzen ari naizen lanpostuari dagokionez, foro hau garatzen jarraitzeak ematen didan poza, ezinbestekoa iruditzen baitzait. Ez bakarrik ikustea hitzarmena sinatzean, hori une hunkigarrienetako bat iruditzen baitzait, hau da, KUNako hitzarmena sinatzea. Eta eskerrak eman nahi dizkiet hona ekarri gaituen Zuzendaritza Batzordeari, eta gonbita egin nahi dut Zuzendaritza Batzordeak lanean jarrai dezan, oraingo kideekin edo sartzen diren berriekin. Izan ere, azken lau urte hauetan izan dudan esperientziak erakutsi dit talde profesional indartsuak, jarraipena dutenak, berritzen direnak, baina elkartearen indarrari eusten diotenak, horiek funtsezkoak direla erakunde publikoekiko solaskidetzarako. Eta ez dut soilik COVIDaren esparruan esaten, funtsezko elementua izan baitzen, profesionalizazioaren arloan egiten ari den lan guztia baizik.

Bigarrenik, aurrekari gisa, kafearen ondoren etortzea korapilatsua da; izan ere, lau bat pertsonak esan didate erretiro fasean daudela, egonkortzearen frustrazioak partekatu ditugu, frustrazio pertsonalak partekatu ditugu. Ni saiatuko naiz Noraren erronkari heltzen eta saioan zehar mezu positibo bat helarazten, horrelako mezu positiboa helarazi egin baitut; uste dut une ho-

netan badagoela haztegi egokia, haztegi zuzena, eta orain azalduko dut bila-kaera hori eginez; hobeia izan daiteke, bai, baina uste dut une garrantzitsu batean gaudela.

Eta aurretiazko hirugarren elementua da foro hauek -askotan agendaren barnean nagikeria eragiten badigute ere- funtsezkoak direla. Duela lau urte 2030eko Agendari buruz hitz egin zen: une honetan, zenbait herritar talde huraxe zalantzan jartzen ari dira, ezbaian. Guk agian hura amortizatu egin dugu, egintzat jo dugu. Hura aztertu dugu, ikusi genuen kultura ez zegoela, baina garrantzitsua dela, lotuko gatzaizkio, ez gatzaizkio lotuko... Funtsezkoa da gai garrantzitsuak horrelako foroetan kokatzen jarraitzea; dena den, Norak esan bezala, gure egunerokoa gobernatzeaz gainera. Eta ahalegina egin behar dugu kultur eragileen, kultur kudeatzaileen, sektore artistikoen eta erakunde publikoen artean, noizean behin, baina era jarraituan, gai horiek kokatzen jarraitu behar dugu, zeren edo oso azkar iraungitzen baitira edo oso azkar amortizatzen, eta hori ezin dugu egin.

Bilakaerari dagokionez, eta Xabierrek eta Norak esandako hitzekin bat eginez, eta giro positiboan, sei puntu markatuko ditut, eta uste dut garrantzitsua dela horiek aintzat hartzea udal zerbitzuetan orain nola gauden esaterakoan.

Badugu legedi bat, Eskubide Kulturalen Legea, hain zuzen ere. Oso era egokian, legeak bi tresna sortu ditu, bi lan gune udaleko kultur teknikariak eta udal ikuspegia presente egoteko, hots, toki entitateekin dugun koordinazio foroa eta Nafarroako Kultura Kontseilua; bertan, udal eremuko bizpahiru pertsonak daude. Hortaz, elementu nagusi bat dugu, legea, eta legeak integrazio eta elkarlan ikuspegia jasotzen du erakundeen artean, eragileen artean, lurraldearen artean, kultur politikak planifikatu eta gauzatzeko; eta gobernantza sistema bat daukagu Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren bidez eta koordinazio foroaren bidez, eta bertan, aprobetxatzen eta lan egiten da.

Bigarren elementu bat plangintza izanen litzateke. Gaur egungo plangintza estrategikoa, Kulturaren 2017-2023ko Plan Estrategikoa izan dena, kontuan hartzen da, landu da, egokitasun handiz edo txikiz garatu da, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, baina elementu batzuk haztegi dira eta positiboa da. Eta Kulturaren hurrengo Plan Estrategikoan (2024-2028), nire ustez, ikuspegi hori islatzeaz gain, areagotu egingen da. Diru-zuzkidura zuzena da. Jakina, denok dakigu baliabide mugatuak kudeatzen ditugula, atsekabe pertsonalak izan ditzakegula, baina aurrekontu-zuzkidura zuzena dugu. Hori Kulturaren Plan Estrategikoaren lurralde saioetan azaldu ahal izan dugu, bai azken urteetan, bai aurrera begira jarrita. Eta orain ez dut azalpen zehatzik emanen deialdien ildoan edo programen egoerari buruz, udal erakundeei dagokienez; nola zegoen gu kudeaketara iritsi ginenean, eta nola dagoen orain. Antzokien sarearen datua da bikoiztu egin dela; tokiko erakundeen deialdia % 30 igo dela. Dena hobetu daiteke, bai, baina testuinguru ekonomiko bat dugu...

Arestian esan den bezala, laugarren esparru bat ere badago, hots, azpiegiturak. Eztabaida hori berrikitan izan dugu hemen dauden hainbat pertsonarekin. Egia da, azpiegitura sare bat daukagu, baina era berean une garrantzitsuan gaude aztertzeke zer azpiegitura izan behar dituen Nafarroak kultur arloan, datozen hogeita hamar urteetan. Eta lan hori legealdiko erronka gisa harri diogu geure buruari.

Bosgarren elementua programak eta diru-laguntzak izanen lirateke. udal entitateekin lankidetzan hedatuak ditugunak, dela Zuzendaritza Nagusian, dela beste bitarteko batzuen bidez. Haien errepasoa eginez, funtsean lanaren baliokate osoa betetzen dute eta diziplina gehienak ere bai. Eta zirkuituek edo lankidetzako programek ongi betetzen ez zituzten diziplina artistikoak urte hauetan zehar bete ahal izatea espero dugu.

Eta, azken elementurako, departamenduan esan ohi dugun esaldi bat ekarriko dut hona: politika ulertzeko modu hau udal politikari dago lotua, lurraldeari lotua, gure herrietan gertatzen denari lotua, teknikariak dituzten eta ez

dituzten herriei lotua. Kudeatzen duten pertsonak, eragile lana egin behar duten pertsonak, sustatu behar dutenak edo entzun behar dutenak edo zuzenketa edo gauza gaizki bideratuta dagoelako mezuak jaso behar dituztenak, ulertzeko forma hori gabe, horrelako sentiberatasunik gabe, nekez egin daiteke loturarik.

Beraz, nire laburpena izanen litzateke, hobetzeko gaude hemen, lan ildo bat sortzeko gaude hemen, baina une onean gaude. Zazpi esparru horietan oinarriak ditugu, hau da, legerian, gobernantzan, azpiegiturretan, aurrekontu ekonomikoan, programetan eta diru-laguntzetan, politika ulertzeko eta eduki-tzeko modu batean, etor daitezkeen erronketarako.

Eta, azkenik, foro honetara ere iritsi garenez udal zerbitzuen ereduen gainera txostena aztertzeke, zorionak egindako lanagatik. Nire ustez, bikaina izan da. Gero bakoitzak ikuspegi egokiago bat eduki dezake gai bati edo besteari buruz, baina uste dut lan bikaina dela eta bide-orri bat markatu behar duela, eta mugarri izan behar dela. Kultura Zuzendaritza Nagusi gisa, Twitterreko egiaztatzaile gisa hartzen dugu. Egiaztatua dago dokumentu gisa eta datozen urteetarako lan dokumentu gisa.

Moderatzailea: David Márquez

Zenbait gogoeta eskatuko dizkizuet lñakik ekarri duen gaiari helduta, hau da, agian haztegi une onean gaude eragileen arteko elkarrizketa hobetzeko. Ez dela soilik administrazioen artekoa, Nafarroan berez erraza baituzue, ez baitzarete hainbeste eta oso hurbilekoak bai; baizik eta eragileekin ere bai, horiek ere oso egituratuta baitaude. Bat al zatozte beste prozesu batzuk hasteko une egokia delako ikuspegi horrekin? Eta, hala bada, zer proposamen egin zenitzakete horren inguruan?

Nora Bengotxea

Nik uste dut unea aproposa dela eta gainera borondatea badagoela: denok gaude hemen eztabaida honetan, eta agian beste garai batzuetan egin ezin

izanen zena. Gainera, nik uste dut orokorrean nahiko ados geundela aurretik egindako bileraren batean, hau da, aurrerapausoak emateko modua koordinazioaren bidez dela. Eskumenak emanak daude, Nafarroako Gobernuak bere plan estrategikoa dauka, eta laster ikusiko dugu plan horrek lerro batzuk markatuko dituela; baina azkenean udalerrriak dira kultur politika horiek guztiak lurraldera eramaten dituztenak eta definitzeko beharra dago. Egia da zerbitzuak berak aseak daudela une honetan, Radarrekin egin genuen txostenean oso ongi ikus daitekeen bezala, baina denok gara horren jakitun: udal teknikariok, noski, egunez egun bizi dugulako, baina baita alkateak, Federazioa eta sarea bera ere bai. Orduan, uste dut une aproposa dela denok ikusten dugulako une egokia dela zerbitzuak zuzendu eta hobetuko dituzten neurriak egituratzen saiatzeko, herritarrei eskaintzen dieguna, eta nola aplikatzen ditugun lurraldean kultur politika horiek guztiak. Nik uste dut baietz, orain dela aldia.

Xabier Alcuaz

Norak eta Iñakik hitz egin duten ildotik, logikoa denez, duela 40 urte baino gehiago sortutako kultur zerbitzuek ekarpen bat izan dute, historia bat, eta une onean gaude nik uste gogoeta egiteko, birpentsatzeko, eta uste dut agian jarleku horretako hiru hankak gaudela. Gehiago ere badira ziur aski, eta seguru asko baten bat utziko dit, baina hiru hankak funtsezkoak dira nik uste prozesu hori egiteko, hau da, udaletako kultur zerbitzuak zer izatea nahi dugun pentsatzeko.

Moderatzailea: David Márquez

Oso ongi, ba horrela bigarren atalari helduko diogu, finkatu dituzuen erronka horiei erantzuteko moduan planteatua dagoena. Bada, nik zuen erronketako batzuk atera ditut, hau da, Norak orain aztertu, ebaluatu eta definitzeko erronkaz hitz egin du; Xabik elkartean sarea dinamizatzeko erronkaz ere hitz egin du, baina era berean hizpide izan du nola sartu kultur zerbitzuak udal-tako administrazioaren makineria guztiaren barnean, beti konplexua baita eta, gainera, oso anitza, udal asko daudelako eta bakoitza oso desberdina delako. Eta gero, Iñakik Nafarroako Gobernuaren politikarekin lotzeko erron-

ka hori ere ekarri du hizpidera, Administrazio horren egitekoa hein batean bailitzateke etor litezkeen ekimenei laguntza ematea.

Bigarren atal honetan eskatzen dizuegu nolabait hausnartzea hobekuntza aukera horiei buruz, hau da, ideia horietan pixka bat gehiago aurreratzea. Zer gehiago egin dezakegu aipatu dituzuen erronka horiei modu eraikitzaileagoan erantzuteko? Eta honelako galderen bidez: zure ustez, nola egin daki-eke aurre aurreko erronkei? Edo zer egiten du orain zure erakundeak Kulturako Zerbitzu Publikoaren prestazioa hobetzeko?



Xabier Alcuaz:

Arestian esan dudan bezala, hemen kultur teknikaria dugun udalerriak eta herri txikiak bereizi nahi nituzke, bestela akatsa izanen bailitzateke tokiko entitate txiki horiek Kongresu honetan bazterrean uztea. Aurreko legealdian Kultura zinegotzi gisa ikusi dudan gauza garrantzitsuetako bat da, eta nire herriko hainbat kultur taldetan aktiboki parte hartu dut eta parte hartzen dut, uste dut gai izan behar dugula udalbatzen barnean kultur eskumenaren eta kulturak esan nahi duenaren balioa nabarmentzeko.

Lehen esan dut 80ko hamarkadan, hau da, kultur zerbitzuak sortu zirenean, interes berezia zegoela edo zinegotziek interes berezia izan zutela gai honetan, eta agian ziurtzat jo dugu belaunaldi gazteagook kultura egon bazegoela. Horrela, bada, toki entitateetako zinegotziengan eragitea baloratu beharreko gaia izan daiteke. Beste gauza bat da, eta aurrekoarekin ere lotuko dut, udalerrietan daukagun toki ondaren balioa nabarmentzea, materiala zein immateriala, lagungarria izan daitekeela udal politikariengan sentiberatasun hori areagotzeko baina herritarrengan ere bai.

Eta honen haritik, uste dut halaber kultur batzorde, kultura kontseilu sektorial dinamiko eta biziak sortzea ere lagungarria izan daitekeela aurreko errorekei aurre egiteko. Logikoa denez, aurretik esan direnetan ere atera da, hots, kultura izan daitekeen jarleku edo mahai honetako hanka guztien arteko elkarrikeria indartzea. Eta beste gai bat da, agian gutxiago gustatzen zaiguna, baina alkateoi eta tokiko entitateei nabarmen eragiten diguna, lanpostu hutsak administratiboki nola betetzen diren moldatzea. Datozen urteetan pertsona gehiagok hartuko dute erretiroa, eta gai hori administratiboki konpontzeko gauza izan behar dugu. Aldi berean, uste dut balio dezakeela Nafarroako entitateekin eta Foru Komunitatekoak ez direnekin ere esperientzia positiboak partekatzeak. Baina, era berean, uste dut zerbitzu horiek ez dituzten udalerri txikiei dagokienez, irtenbideetako bat izan litekeela irtenbide multzokatuak bilatzea eskualdeen eta elkarrekin bidez, tokiko mapa ere garatuz, toki entitate guztiek zerbitzu horiek eskuratu ahal izateko.

Halaber uste dut gai garrantzitsua izan daitekeela udalerri txiki horietarako berariazko lerroak sortzea, eta uste dut Departamentutik eta Federaziotik bertatik ere moldatu beharko liratekeela entitate horietan kultur programa txikiak sustatzeko eta motibatzen jarduerak. Hori alde batera utzi gabe, arestian ere esan dudan bezala, elkarte sare horrek duen garrantzia, oso garrantzitsua baita, askotan kultura zerbitzuen lana egiten baitu herri horietan guztietan. Eta halaber pentsatu behar da pixka bat zer-nolako azpiegiturak eduki nahi ditugun hemendik 30 urtera, eta baita ere, toki inbertsiotarako plana erabiltzen baldin bada, kontuan hartu beharko luke etorkizunean horrelako azpiegiturretan inbertsioak egiteko.

Moderatzailea: David Márquez

Xabier oso ongi prestatu ditu zereginak eta haien zerrenda bat ekarri digu hona. Oso ongi dago, eta gauza asko dira, eta ikusi beharko da nola lurreratuko diren. Hain zuzen ere, zuk aipatutako gai batzuk ere badaude egin dugun azterlanean, hau da, zerbitzuak mankomunatzea irtenbide adimentsua eta abila izan daiteke hain txikiak diren eta udal kultura zerbitzurik izan ezin duten udalerriei kultur zerbitzuak eman ahal izateko, besteak beste; dena hori ezartzea zaila da, ezinezkoa ez den arren.

Ignacio Apezteguía

Egitura bera erabiltzen jarraituko dut: legeria, gobernantza... Buelta emango diot. Pertsonetatik hasiko naiz. Azken puntuan, lan egiteko borondatea, interesa eta prestasuna aztertu ditut, baina horretarako pertsonak behar dira, profesional kualifikatuak behar dira eta hori erronka da etorkizunerako, ez bakarrik KUNAK aurkeztu ahal izan dituen azterlanengatik, baizik eta administrazio publikoen errealitateagatik, baita enpresa pribatuen errealitateagatik ere.

Horrenbestez, kulturaren arloan lan egiten duten pertsonen arreta ematea, hori lehentasunen artean jarriko dut etorkizunari begira egin ditzakegun ekintzak markatze aldera. Bigarren elementu bat azpiegituren arloa izanen

litzateke; lehenago, aipatu dugu. Aipatuko dut, eta hemen zaudetenok nik baino hobeki ezagutzen duzue, zer gertatu zen 80ko hamarkadan, 90ekoan, bi milakoan, zer gertatu zen 2011ko krisiaren ondoren, uste dut bat gatzela eta 0 fase bat hasi behar dugula Nafarroak bere lurraldean X urte barru behar dituen kultur azpiegiturak birplanteatzeko, biztanleria aztertuz, espazio batzuetako kultur espazioen dentsitatea eta dentsitate handia aztertuz, kultur espazioen despopulazioa aztertuz eta eredu horiek nolakoak izan behar duten ere aztertuz.

Eta, etorkizunean, lan ildo bat sortzea, deialdia egiteko, tokiko erakundeekin batera, aipatu ahal izateko. Beraz, pertsonak, azpiegiturak... Diruaren kontua alde batera utziko dut. Esan nahi dut, nik neuk esatea diru gehiago behar dugula, eta esango didazue Zuzendari Nagusia naizela, ba halako kiribil iraunkor batean sartuko ginateke... Tira, nik uste dut hori ere gai garrantzitsua dela, baina ez dela beti garrantzitsuena. Urte anitzeko estrategiak, etab. erabiliz, ulertu egin daiteke.

Nire ustez, plangintza-elementuak handitzen jarraitu behar da, Administrazioak esan dezakeenaren ondoriozko plangintza, baina toki entitateek kulturaren arloan izan dezaketena. Argi eta garbi islatzen du hori KUNAK aurkeztutako txostenak, eta ez dakit plan estrategikoak, bide-orriak izan behar ote diren, baina funtsezko osagaia da plangintza izatea udal zerbitzuen kudeaketan, udal zerbitzuen edukietan eta, oro har, epe ertainerako edozein kultur erakundetan, eta ez soilik epe laburrerako.

Aztertu beharko genuke, lege esparruan, ea Eskubide Kulturalen Legean landutakoaren ondoren lan ildo bat ote dagoen hor. Zalantzak izan ditzaket, ez jakintasuna dela eta. Egia da azken urte hauetan beharrezkoagoa ikusi dugula legeak arreta jartzea kulturaren lanbideetan, estatutuan, alde profesionalen, baina aztertu beharko genuke nola landu beharko litzatekeen Nafarroako lurraldearen errealitatea. Eta, gero, gobernantzaren arloa areagotu egin behar da, nik uste. Egia da koordinazio foroa eta Nafarroako Kulturaren Kontseilua aipatu ditudala, baina uste dut areagotu egin behar dela, eta jarraipe-

na eman behar zaiola, eta helburu jakin batzuk eman behar zaizkiola aurrera jotzeko. Horiek egiturazko atalak dira, eta horiei bi faktore gehituko nizkieke.

Nire esperientziak bultaturik, udal kultur zerbitzuen ikuspegi zabalagoa daukat, kultur esparru guztiekin. Normala da —eta ni sartuko naiz lehena zaku horretan— zenbait esparru batzuk lehenetsi ditugula, hala nola arte eszenikoak, musika, eta denok sentitzen gara aitortuak. Askotan askoz gehiago hitz egin dugu Udal Platearen deialdiaz eta abarrez. Uste dut gizarteak, gaur egungo egoera honetan, esparru horiez harata jo duela, eta beste elementu batzuk badaude, hala nola ondare immateriala, ondare arkeologikoa edo ondare dokumentala, eta haietan eragin eta hobetu egin behar dela. Uste dut ez dugula ongi doitu gure harremana toki entitateen eta Nafarroako Gobernuaren arteko gobernantza eredu diren liburutegi zerbitzuekin. Nafarroa eredugarria da Liburutegi Sare batean, ehun zentro baitaude lurraldean zehar, eta hitzarmen erdu baten bidez funtzionatzen dutenak. Eredu horretan, udalek X ekarpena egiten dute, eta Nafarroako Gobernuak X ekarpena. Eta hori, urte hauetako nire esperientziak erakutsirik, bere independentzia duen itsasontzi gisa ikusten da, aurrera doana, baina ez dugu oraindik ere txertatu gure ohiko lan dinamiken barnean.

Eta egia da halaber, hirugarren elementu gisa, adostasuna bilatu beharko genukeela maila politikoan kultur politiken plangintzari begira. Eta 2024an «adostasuna maila politikoan» hitzak erabiltzea, ba hori ez dakit oximoron bat ote den edo ez dakit zer den... Horrek edozein gai gainditzen du. Baina egia da, eta Departamentuan konbentzitutak gaude, Nafarroan gehienen adostasuna bil dezakeen esparrurik bada, hori kultura arloa dela.

Nora Bengotxea:

Pixka bat larritzekoa da azkena aritzea, ia guztia esan duzuelako. Baina orain arte esandakoak pixka bat gogoraturik, Xabier hirugarren sektorearen dinamizazioaz mintzatu da, kultur eskaintza handia egiteaz kultur teknikariak dauden eta ez dauden herri guztiei. Iñaki ere plangintzaz mintzatu da, nola egingen ote dugun dena, eta, egia esan, oso zabala da aurrean dugun zeregin kopurua. Erretiroa hartzetik hurbil dauden kudeatzaileez mintzatu gara... hori bai zortea zuena! baina berriz hitz egiten badugu, nik uste dut gaur egun kultur teknikari bat lurraldean lurreratzen da, eta aurrean dituen erronka guztiek larritu egiten dutela, ez baitago ere inola zehaztua zer egin behar dudan. Egia da udalerriek argi dutela, argi dugula, hirugarren sektorea dinamizatu egin nahi dugula, eskaintza on bat egin nahi dugula eta batzuetan oso modu intuiziozkoan egiten dugula. senak ez ohi digu huts egiten, baina horixe da, hau da, sena, eta ez plangintza.

Nire ustez, erronka horiei guztiei aurre egiteko erabil litekeen tresna nagusi-etako bat udal kulturako planak izanen lirateke. Ez bakarrik aztertu dezatela zer kultura eraman nahi den lurraldera, antzerkiaz, musikaz... harata, Iñakik dioen bezala; ez ahazteko beste alderdi kultural horiek guztiak edo liburutegien gaia, baizik eta zer baliabiderekin, zer baliabide ekonomikorekin, zer baliabide fisikorekin eta zer giza baliabiderekin. Bestela, kultur arlo aseetara goaz, zeregin bolumen handiarekin, eta zeregin hori oso era intuitiboan egiten da, baina plangintzarik gabe. Eta nik uste dut honetan oso erabilgarria dela tresnak izatea, eta nondik nora eta nola jo jakitea. Kultur teknikaria dagoen udalerrientzat, izugarri erabilgarria. Ez dagoenentzat, askoz ere gehiago.

Izan ere, zerbitzuak mankomunatu ahal izatea erantzun ona litzateke. Mankomunitateetan programa bateratuak sortu ahal izatea, baina profesionalek kudeatuta, zeren, sentitzen dut, baina nik beti gure lanbidearen balioa nabarmenduko baitut, eta, jakina, kultur teknikari bat aritzeak beti bermatuko du kudeaketa hori profesionala izatea, eta udalerri horrentzat bakarrik ezin bada izan, izan dadila mankomunitate maila globalagoan kudeatuta. Beha-

rezkoa da. Orduan, nik udal plangintzan sinesten dut, Federazioaren bidez koordinatua, eta gero hitz egingo dugu pixka bat zeintzuk izan daitezkeen gai horiek landu ahal izateko koordinazio guneak; funtsezkoa izanen litzateke arloak birpentsatzeko, nolakoa den haren lotura gainerako udal alorrekin...

Esan nahi dut, udalerri desberdinen artean, baita udalerri bakoitzak bere gainerako alorren artean, eta era berean profil profesionalak zehaztu, gero eta beharrezkoagoa baita, zeregin desberdin asko barne hartzen ari garelako eta bakoitza profil profesional mota jakin batek gauzatu beharko duelako. Batez ere, lehen aipatu dudan ase egoera hori saihestu nahi badugu, zeren, egoera horren ondorioz, litekeena baita une jakin batean kudeaketa ona ez egitea; ez dut esanen kudeaketa txarra, baina kultur zerbitzuen kudeaketa hobea bai, eta erretiratzen ari diren teknikariak nola ordezkatzeko ditugun eta gisako egoerak aurkitzea, edo, zoritxarrez, azken urteotan gure lanbidean lanbaja asko izan dira. Eta pixka bat pentsatu behar da oso argi zehaztu beharko litzatekeela zein diren zereginak, eta zeregin horiek udalerriari, Federazioari, lotutako plan batzuek markatutako helburu batzuei erantzun behar dietela, eta orduan plan makroagoetara igotzen gara eskalan.

Moderatzailea: David Márquez

Agian, Norak eman digun gako ideia hori, hau da, beharra ere lotzen da zuek planifikatzeko, antolatze, baliabideak hobeki kudeatzeko dituzuen ideiekin, eta nolabait, esertzeko eta ekintza politikoa ere berrantolatze ideiarekin.

Xabier Alcuaz:

Kultura zerbitzuen kultur planei dagokienez, agian pixka bat goratuko dut langa, eta kontuan hartuta lege-gintzaldiak lau urtekoak direla, kulturaren araztu baino gehiago, eta hemen esandakoak entzun ondoren, hau da, kulturak gainerako uda alorrekin lotura izan behar duela, bai nik kulturara bakarrik mugatu baino gehiago, gustatuko litzaiguke, eta alkate gisa esaten dut, egin ez dugun arren, kultura barne hartuko duen lege-gintzaldi plan bat egin

litekeela, baina baita kirola, jaiak, arlo ekonomiko, langileak, etab. barne hartuta, hau da, zerbait makroagoa da eta, jakina, bertan kulturak egon behar du. Eta hor ikusiko ditugu udal horrek edo tokiko entitate horrek zer lehentasun dituen legealdiko lau urte horietan; zeren, jakina, hamar urterako kultur plan bat egitea, gaur egun gauden egoeran, ba horrek egun ez du zentzu handirik. Udal mailan ari naiz, legegintzaldiak lau urtekoak direlako eta, ez lukeelako zentzurik izanen, ez baitakigu gero etorriko denak erosiko ote duen edo ez; baina tira, ideia hori niri interesgarria iruditzen zait, baina berriro diot, nik agian plan globalago baten baitan sartuko nuke, udal gisa.

Ignacio Apezteguia:

Mahai inguruan zer esan prestatzen ari nintzenean, aipatu dut nola gauden orain, zeintzuk diren erronkak, eta niri geldituko litzaidake esplikatzea nola. Datozen urteetan zerbait zehatza ikus daitekeen dimentsio batean. Hori egiteko moduari dagokionez, nik hiru gako jarriak nituen neure artean. Lehenengoa da, tira, benchmarking esaten ahal diogu, hau da, modelizatzen, beste udal edo entitateen zerbitzu batzuek lurraldean zehar hedatu dituzten ereduak kopiatuz; urteetan, historian, ibilbide luzeagoa eginga izan dezaketena, baina beste udal zerbitzu batzuek zabaldu ahal izan dutena modelizatu behar dugu, eta badakigu sustraituagoak daudela; bada hori kopiatzeko elementu bat dago.

Bigarren elementu baten inguruan ere eginga nuen gogoeta, hots, badagoela beharra elkarte profesionaletan, kudeatzaileen eta teknikarien artean, baita elementu politikoan ere -agian, ez hainbeste alkatetza lanetan, baina bai zinegotzigoetan-, gaia presionatzen eta posizionatzen jarraitzeko. Ez dadila ahaztu 2024an duten garrantzia, jakinik ere erakunde publikoek eta udal erakundeek dituzten eskumenak. Gizartean garrantzi handia hartu dute, eta hori kontuan hartu behar da eta erantzun behar zaio. Eta udal zerbitzuetan egiten den bezala, Gobernuan, diputazioetan, eta kasuan kasuko gobernuetan ere egitea.

Eta hirugarren elementua da proiektu pilotu bat hartzea. Txostenaren barnean diagnostikatu den guztia aztertzen badugu, edo elkarrizketa honetatik atera daitekeen guztia, edo kafean atera dena edo banaka hitz egiten duzuenaz aztertzen badugu, ba ziur aski ezinezkoa izanen da den-dena barne hartzea, beste frustrazio bat sortuko du. Baina proiektu pilotu bat sortzeko unean egon gintezke. Proiektu pilotua diot, edo mankomunatua, arreta-bulegoa, edo X proiektu pilotua... Hau da, kopiatzea, edozein izen anglosaxoi jartzen ahal badiogu ere.

Eta laugarren elementua, gaia posizionatzen segitzea, presionatzen segitzea bizitzen ari garen diagnostikoak eta errealitateak ez ahazteko.

Moderatzailea: David Márquez

Zure hitzekin hirugarren atala ireki duzu, hau da, egituratzezko edo lankidetzazko agertokiak eta mekanismoak garatzeko aliantzak. Ideia horiek oso iradokitzaileak dira, azken batean egin beharreko ekintzen proposamen gisa direlako, baina agian hemen hori sakontzen joan gaitezke. Beraz, nolakoak izan daitezke lankidetzak horiek? Hau da, zer egin daiteke orain modu askoz zehatzagoan? Har dezagun oraintxe bertan mahai honetan ateratzen ari diren ideietako bat edo bi, eta has gaitezen de facto egoera bat sortzen hori gauzatu ahal izateko. Askotxo izanen litzateke, ez du esan nahi nahikoa, baina hasiera ona izanen litzateke, produktiboa den zerbait.

Nora Bengotxea

Zati hau planteatzen genuenean, lankidetzazko ortzi-mugez ari ginen. Orduan, denbora tarte honetan kontatu dugun bezala, kultur alorrek eta teknikariek berek izan duten bakardade horren barnean, topaguneak beharrezkoak dira, baina gainera aberasgarriak dira eta, batu baino, biderkatu ere egiten dute. Horren haritik, nik uste badirela guk gure artean eta guk geure bururekin elkartu beharko genukeen espazio jakin batzuk.

Duela gutxi, udal teknikarien sare bat sortu da, talde ez-formal bat, eta zue-takoren bat ez bazarete hartan sartu, taldearekin bat egitera gonbidatzen zaituztet. Eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko taldea da, proposamenak egite aldera eta gure lanean, kultur politiken garapenean eta aplikazioan ikusten ditugun eta hobetu daitezkeen gauzetarako irtenbideak bilatzen saiatzeko. Uste dugu oso garrantzitsua dela Federazioaren eta Departamentuaren beraren arteko foroa izatea, teknikariok ere lekua baitugu, eta, jakina, apustu sendoa egiten dugu foro horrek edukia izan dezan eta kultur politike-tan lan egiteko aukera emanen diguten oinarriak ezar ditzan, kultur politiken eragile izateko adinako garrantzia eman diezaiogun. Eta ikusten dugu, hala-ber, eta pluralean hitz egiten dut, lankide askorekin hitz egin dudana zer bait delako, interesgarria izanzen litzateke alde zureko urrats bat egitea Federa-zioan bertan talde bat sortzeko, kultur batzorde bat, gai horiek guztiak jorra-tzeko eta aztertzeko, zer premia diren bilatzeko, eta gero, erantzunak udal foro horretara eramaten saiatzeko, Departamentuarekin berarekin batera.

Azken buruan, dauzkagun baliabide horiek guztiak pixka bat finkatu eta le-rrokatzeaz ariko ginateke, herritarren eskubideekin lerrokatzeaz, alegia. Be-rriz ere aitzindari izateko aukera izanzen genuke, beste batzuetan izan garen bezala, lankidetzazko puntu horiek guztiak ezarriz, baldin eta egiazki lortuko bagenu tresna baliagarriak izatea, haien bidez benetan erabaki zehatzak har-tzeko. Eta giza baliabideei dagokienez, hau da, guri ere asko axola zaigun al-derdia baita, foro horien barnean zehaztu ahalko litzateke nola egin kontra-tazio mankomunatu horiek, profilak nola definitu, eginkizunak... Hori guztia, pixka bat hobetzen joan gaitezen eta, nolabait, politika horiek guztiak bidera-tu ahal izan ditzagun.

Xabier Alcuaz:

Neurri asko aipatu dira. Baina nik uste dut garrantzitsua dela foroa teknikariz eta politikariz osatutako kultur batzorde baten barnean sortzea, baita eten-gabe termometro hori eskura izateko ere. Eta baita Kultura Zuzendaritza Na-gusiaren eta tokiko erakundearen arteko fororako ere, indartzeko eta landuxe-agoa dagoen jarrera batekin joateko. Eta indartu behar da toki etnitateen

eta Zuzendaritza Nagusiaren arteko foro hori. Sakondu egin behar da. Eta uste dut garrantzitsua dela langileen, Federazioaren eta Departamentuaren artean prestakuntza plan bat lantzea. Eta, nola ez, beste gai bat ere atera da: zer irtenbide eman diezaiokegu administrazioaren aldetik langileen ordeza-penei? Eta, amaitzeko, udal kultur zerbitzuen eta toki entitateetako elkarte sarearen arteko loturak indartzea.

Moderatzailea: David Márquez

Orain, eztabaida txandari ekingo diogu; hemendik aurrera utzi alde batera atalek dakartzaten herstura formalak eta sentitu zaitezte libre elkarren arte-an eteteko eta elkarri galdetzeko. Hasteko eta bat, hausnarketa bat egin nahi nizuen, zeren esaten ari baitzarete, hain zuzen ere, plangintza oso beharrez-koa dela, eta uste dut denetan bat zatoztela. Norak kultur planaz hitz egiten du, baina uste dut bere kultur planak legealdia gainditu nahi duela, hori iza-nen litzatekeelako baliotsuena, ez bakarrik sektore profesionalarentzat, bai-ta herritarrarentzat berarentzat ere. Xabi, zuk ere esan duzu askoz hobeki planifikatu beharko liratekeela toki mailan egon daitezkeen baliabideak, eta, jakina, Iñaki, zuk ere hitz egin duzu Nafarroako Gobernuak plangintza indar-tze aldera egiten duen ahaleginaz. Bai, plangintza guztiz beharrezkoa da, oso egokia da, hori gabe ziurrenik oso galduta ibiliko ginateke, baina zuetako inork ez duzue hitz egin ebaluazioaz. Izan ere, ongi planifikatuko badugu, oso modu egokian ebaluatu beharko genuke, zer planifikatu behar dugun zehazki jakiteko. Nik uste dut oso interesgarria izan litekeela ebaluazio tresna batzuk egituratu ahal izatea, bakoitza bere eskalan, eta horren haritik, hausnarketa-ren bat eskatuko nuke. Hau da, nik planteatu bezain garrantzitsutzat jotzen ote duzuen, proposamen edo ekintza zehatzen bat antola daitekeela uste ote duzuen, politika publikoen hobekuntzarekin lotzeko.

Nora Bengotxea:

Bada, horretan pentsatzen dut Xabier nirekin bat etorriko dela, azkenean biok egin dugulako LADE, eta plan estrategikoen, marketin-planen eta plan guztien kontu hori “eguneroko gure plana” zen, eta ni, behintzat, lehen pau-soa planifikatzeaz hitz egiten ari naizenean, analisisa da, analisisa eta diagnos-

tikoa, hain zuzen. Hau da, nik ez dut loturarik gabe ikusten, baizik eta planean bertan sartzen da: aurretiazko analisia, diagnostikoa; ebaluaziorako estrategien, helburuen eta neurrien definizioa etorkizunari begira birdiagnostikatzeko aukera izan dezagun; eta halakoak lehenagotik jaso izan bagenu, nondik nora joan beharko genukeen erakusten duten arrastoak ematen ariko zitzaizkigukeen. Bai, diagnostikoa behar-beharrezkoa da, eta nire ustez, plangintzaren beraren parte da, ez da gauza isolatu bat.

Ignacio Apezteguia:

Nik ziurtzat jotzen dut. Hau da, plangintzaz ari garenean diagnostikoaz ari gara, gauzatzeaz, ebaluazioaz, eta beste elementu bat gehituko nuke, nola eraikiko den azaltzen duen metodologia bat. Udal plangintzaren gaiari dago-kionez, hain zuzen, planek legegintzaldiez harata jo behar dute, eta jakina, aldaketa politiko bat dagoenean, ideiak aldatzen dira, hori egiteko moduak aldatzen dira, baina uler dadila badagoela erabakiak hartzeko metodologia bat, dagoeneko adostuta dagoena. Hau da, bide-orri berri guztiz logiko eta normal hori ezartzeko, “prozedura” batera joan behar du, nahiz eta ez dudan burokratizatu nahi, baina lan-metodologia batera joan behar du, hau da, metodologia baten bidez, dela parte hartzeko metodologia, dela entzutekoa, taldeekin, teknikariekin, gauzak definitzeko, neurtzeko, analisiak egiteko, etab. Nire ustez, hor legoke plangintzaren gakoa, plangintzarik egon behar izateaz gain, eta planifikazioa nire uste da erabakiak hartzeko katearen barnean dauden kontzeptu guztiak, gehi lan oinarri bat ezartzea, udal mailan, erakunde mailan edo eremu pribatu batean egon behar den edozein kultur politika ezartzeko. Badago lan metodologia adostu bat, nire ustez lankidetzazkoa edo izaera parte hartzailekoa izan beharko lukeena, datu iturrien azterketa eginez, egin dena eta egin ez dena neurtuz eta helburu batzuk ezarri. Nik laburpen gisa erantsiko nuke metodologia hori dela gakoa egin daitekeenari dagokionez, oso zilegi dela noizean behin aldatzea, baina erakunde pribatuetan ere gertatzen da, ez bakarrik arlo publikoan, departamentu buru berri bat iristen denean eta dagoen enpresa-kulturari aldaketa batzuk egin nahi dizkionean.

Moderatzailea: David Márquez

Noski, erreferentzia hori egin dut, ba azterlana egin dugunean, ikusten genuen ez zegoela datu oso zehatz bat, hots, eta da nola ezarri genezakeen udal-erri bakoitzean biztanle bakoitzeko gastu ratio bat kulturari, ez baitago halako daturik eta ez delako erraza lortzea. Ziur aski, lan asko eta ordu asko eman beharko lirake udal-erri bakoitzean, kulturako gastu-partida guztiak arakatzeko, gehitzeko, eta gero zatitu ahal izateko, baina gaur egun ez da halakorik, eta badirudi izan litekeela udal-erri bakoitza kultur gastuan zein neurritan kokatu daitekeen definitu ahal izateko tresna erabilgarrietako bat izan, hori gero erlatibizatu daitekeelako. Hain zuzen ere, hizpidera ekarri Norak borondateari buruz esandakoa, hau da, Nafarroa aitzindaria izan dela izaera kulturaleko ekimen askotan, agian orain ere aitzindaria izan liteke horretan, udaletako kultur zerbitzuetara hurbiltzeko modu askoz ere objektibagoa baita, gauzak hobetzeko borondatearekin, jarduteko eta erabakiak hartzeko lagungarriak izan daitezkeen adierazleak ezartzen saiatuz. Horren haritik, nik ere esaten nizuen, nola sortu gero benetan erabakiak hartzeko aukera emanen dizueten datuak.

Ignacio Apezteguía

Oker ez banago, bi partaidetza-mahaitan, Tafallakoan eta Tuterakoan, datuak aurkezterakoan, aurrekontu osoaren eta kultur gastuaren datuak ematen dituzte biztanleen arabera, eta ateratzen diren mailak ikusirik, Nafarroa top mailan dago kokatua rankingetan. Baina egia da datu horretara iristeko, adierazle horiek Nafarroan lurraldearen edo merindadeen arabera egiteko beharra sortu zela, edo Iruñean edo azpiegitura handietan gertatzen dena versus lurraldean gertatzen dena baldintzatuko ez lukeen lurralde banaketa baten arabera. Orain ditugun indize eta datuetatik eta planteatzen ari zarenetik, tarteko termino bat egon beharko litzateke, lurralde bakoitzeko dimentsio bat eman lezakeena, eta agian errazagoa izan daitekeena analisi indibidualera iristea baino. Zeren, gainera, udal aurrekontuak hiru edo lau urtera argitaratzen baitira datu iturrietarako, nahiko zaila da. Eta hori zuzenean bizi izan dugu Plan Estrategikoaren diagnostikoan. Dimentsionatzea, Nafarroak duen dimentsioa kontuan hartuta, lurraldeen arabera datu-analisi batean. Oraindik ez nintzateke sartuko zer lurraldetan, ez dute zertan merindadeak

izan, beste lurralde banaketa batzuk izan daitezke, gero herri bakoitzaren bidez datu horretara iristeko.

Xabier Alcuaz:

Hemen aipatu dituzuen adierazleei dagokienez, biztanle bakoitzeko gastua aipatzen ari da, toki entitate bakoitzak edo udal bakoitzak kultur gaietan inbertitzen duena, baina uste dut ekonomiarekin zerikusirik ez duten beste adierazle batzuk ere badaudela, eta zailagoa egiten zait horren gaineko adierazleak ateratzea; bestalde, uste dut geldiunea egin behar dugula kulturak zer ekarpen egiten digun pentsatzeko edo udal zerbitzuek gizarteari zer ekarpen egiten dioten eta hori nola neurtu pentsatzeko. Gauza bat da zuk kultur programazioan izugarri inbertitu dezakezula, eta orduan, ratio ikusgarria aterako zaizu, baina agian ez da inorengana iritsiko, eta baliabide ekonomiko mordo bat sartu duzu. Era berean, ebaluazio hori egiteko orduan, ratioak edo datu ekonomikoak ere alde batera uztea, eta, agian, bestelako datuak bilatzea, edukitzea edo ateratzea zailagoak diren datuak bilatzea, baina gure garrantzitsuak direnak udalerrietan kultur sektorea nola daukagun ikusteko.

Moderatzailea: David Márquez

Zalantzarik gabe, ez da datu bakar bat kontuan hartu behar, eta gainera, erlatibizatu behar dira. Ongi ekarria dago ñabardura hori. Halaber, kultur teknikari berriz mintzatu zarete. Ez dakit aretoan kultur teknikari berriren bat ote dagoen, berrikitan lanean hasitako norbait; baina esaten dut hain zuzen ere ateratzen ari direnak aipatzen ditugulako, baina interesgarria izanen litzateke halaber sartzen direnei entzutea, sartu direlako, egoera bat jaso dutelako, eta oso interesgarria izanen litzateke egoera zehazki nola ikusten duten jakitea, haien ikuspegia ere ikusi ahal izateko. Horren haritik, galdera bat aireratuko dut: ea inolako planik edo ideiarik ote dagoen berehalakoan sortuko den egoerari aurre egiteko moduz, ordezkapenari dagokionez. Ez dakit udal-ek zer bait pentsatu ote duten.

Ignacio Apezteguía

Hori gakoetako bat da, nik uste. Ezagutzaren transferentzia eta ezagutzaren galera zuzenean bizitzen ari naizen gakoetako bat da. Lehen ere hainbat udal adibideri buruz hitz egin dugu, baina Kulturako Zuzendaritza Nagusian, ez soilik kultur ekintzaren arloan, beste departamentuetan ere, ezagutza galtzen ari da, eta hori kezagarria da benetan, eta oinarri bikaina izanen litzateke langile berrien lanerako. Ez haien lana baldintzatzeko, ez egiten ari dena klonatu behar izateko, baizik eta lekuetara nola iritsi den ikuspegi hori izateko.


Nora Bengotxea

Guretzat, eztabaida hori plazaratu egin da, KUNAtik bertatik hasita, berrikitan Ohorezko Bazkidearen figura sortu baita, ohartzen ari ginelako *know-how* handia zuen jende asko joaten ari zitzaigula, eta ezagutza hori oso baliagarria zen belaunaldi berriak prestatzerakoan. Nik gogoan daukat, sartu nintzenean, izugarri galdua nenbilela, ez nekien nondik hasi, eta, niretzat funtsezkoa izan zen KUNAn kidetzea, bileretara joatea, Batzordean sartzea, ezagutza iturri agortezina iruditzen baitzitzaidan; zeren, zerbitzu horiek ez dituzte 25 pertsona zerbitzuko, non traspasoa pixkanaka egiten den. Eta funtsezkoa da urte asko daramaten eta zureak ez bezalako eta bestelako ezagutza dituzten udalerrietan ari diren profesionalak ezagutzea, beste ikuspegi batzuk irekitzen dizkizutelako, eta programazio bide berriak edo hirugarren sektorearekiko harreman bide berriak ireki dituztelako.

Eta horren haritik, bai KUNAn, bai antzoki sarean bertan, saioaren bat antolatu baitugu jende jakin baten ibilbide profesionala pixka bat kontatzeko, edo orain sortu dugun udal teknikari talde hori, ezagutza eskualdaketa hori gertatzeko tresna ezin hobeak iruditzen zaizkit. Gero dago kontratazioak nola egingen ote diren edo ez, nola egingen diren ordezkapen horiek, noraino litzaitekeen beharrezkoa, ez bakarrik kultur kudeaketan baizik eta administrazio osoan, hau da, ateratzen diren pertsonak denbora tarte batez egotea elkarrekin direnekin lanean, eta hori askotan ez da horrela izaten. Beste gai administratiboagoetarako kontuak dira. Baina ezagutzari dagokionez, gu oro har nahiko kontzientziatuta gaude eta ez diegu ihes egiten uzten erretiroa hartzen dutenei, edo behintzat saiatzen gara.

Xabier Alcuaz:

Uste dut administrazioak duen erronka handienetako bat dela: nola egin ordezkapen horiek. Batez ere administrazio txikienetan, hala nola kultura zerbitzuak pertsona bakar batek osatzen dituen tokiko administrazioetan. Erretiroa hartzen du, deialdia atera behar duzu, lanpostuan sartu behar da, denbora tarte batean ezin izanen dira batera aritu... Kulturari, eta beste hainbat arlotan, birpentsatu behar da nola egin toki administrazio guztiko pertsona bakarreko lanpostuen ordezkapena, batez ere erretiroa hartzen denean.



Estrategia eta politika kulturalak Nafarroarentzat

Talde parlamentarioen arteko eztabaida

Moderatzailea (Iñigo Oses):

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin dauden parlamentarioei. Parlamentuko talde politiko guztiak gonbidatu ditugu, eta haiek izan dira hemen gurekin egon ahal izan direnak edo egon nahi izan dutenak. Beraz, eskerrak eman nahi dizkizuet bihotzez hona etorri izanagatik. Hau eztabaida saioa da, baina gidatua egonen da. Eta lehenengo galdera da, etorriko denari begiratu ahal izateko, horixe baita Biltzarren izenburua, abiapuntua oso argi izan behar dugula. Hau da, **zure alderdiak zer ulertzen du kultur kudeaketaz eta nola babestu nahi du kultur kudeaketa Nafarroan?**



UPN
Francisco Javier
Trigo Oubiña

Ezagutzen nauzuenok badakizue nik beti lan egin dudala kirolaren munduan, eta orain kulturaren munduan ikasten ari naiz. Ziur aski, nire solaskideek hobeki azaltzen ahalko dute, arlo honetan denbora gehiago daramatela-ko.

Halaber, gure Parlamentuak nola funtzionatzen duen ikusteko zortea izanen duzue hori ezagutzen ez duzuenok. Parlamentuan zazpi talde politiko gaude. Gaur hemen bi taldeetako bozeramaileak edo ordezkariak falta dira, Voxekoak eta Alderdi Popularrekoak. Baina beste bostak bagaude; beraz, batzordeetan gertatzen den gauza bera gertatuko da hemen, luze-luzeak egiten dira, denok parte hartu behar dugulako eta denok dugulako hitz egiteko astia. Hortaz, besterik gabe, lehenengo galderari erantzuten saiatze aldera, ba kirolarekin paralelismo bat egiten ere saiatu naiz: zein da Unión del Pueblo Navarroken planteamendua kulturaren inguruan? Esanen nuke kulturaren botereak publiko egitea dela. Nik ez dakit konturatu zareten baina kulturak botereak ditu. Ezkutuko botereak ditu. Eta orduan botere horiek deskubritu eta gizartearen zerbitzura jartzen saiatu nahi dugu.

Zeintzuk dira Unión del Pueblo Navarrok ikusten dituen hiru botereak kultur munduan lan egiteko? Lehenik eta behin, kulturak gizartearentzat duen botere eraldatzailea. Hau da, kulturak pertsona bakoitzaren onena ateratzeko ahalmena edo boterea dauka, gizarte-harremanak hobetzeko, jendearen bizikidetzan eragiten duen boterea... Eta kulturak duen botere eraldatzaile hori guztia gizartearen zerbitzura jarri nahi du Unión del Pueblo Navarrok.

Nafarroak, halaber, Europako estrategiekin bat eginda egon behar du. Kulturaren gaineko programa politikoa diseinatzerakoan, Unión del Pueblo Navarrok egin zuen gauzetako bat izan zen agendari erreparatzea eta Europako kulturaren agendan ezarritako helburuei ere erreparatzea. Eta horren haritik, bere printzipioa agenda horretakoekin lerrokatzen saiatu da. Orduan, beharrezkoa da kulturak eta kultur aniztasunak duten ahalmen hori erabiltzea nafar guztien ongizatea eta gizarte kohesioa hobetzeko. Hau da, kultur elkarriketa eta kulturen arteko elkarriketa sustatzea, gizarte-harreman bakesuak lortzeko. Nafarroako gizarte, Espainiako gizarte bezala, gero eta

anitzagoa da, eta leku desberdinetako pertsonak ditu, sentsibiltate eta sinismen desberdinekoak. Horrenbestez, Union del Pueblo Navarron integrazio-gune gisa eta errealitate desberdinen arteko ulerbide gisa ikusten dugu kultura, eta, horregatik, aniztasuna errespetatuko duen diskurtso inklusibo baten alde egiten dugu.

Unión del Pueblo Navarroken ustez kulturak duen bigarren boterea botere sozioekonomikoa da. Hau da, kultura da enpresa-sare horren bidez aberastasuna eta enplegua sortzeko iturri bat. UPNn proiektu estrategikotzat jotzen dugu kultura, arlo horretan enplegua sortzen dela eta enpresak sortzen direla irizten diogulako, eta uste dugu beharrezkoa dela sormenezko talentua mantentzearen aldeko lana egiten jarraitzea.

Eta, amaitzeko, hirugarren boterea da kulturak eragile gisa duen boterea, historia gogorarazteko eta herri gisa dugun nortasunean bizirik mantentzeko. Beraz, funtsezko balio kultural gisa ere ulertzen dugu Nafarroak duen nortasun berezko eta bereizia, eta horri loturik uste dut ondare historiko eta artistikoa defendatzearen aldeko lana egin behar dugula.

Horiek lirateke hiru botereak: gizartearen botere eraldatzailea, botere sozio-ekonomikoa eta gure herriaren historiari eusteko boterea.



PSN
Ibai Crespo Luna

Galderari erantzun aurretik, eta atzo Artearen Eguna izan zenez, datorren astean Liburuaren Eguna izanen denez, eta egun hauetan biltzar hau bera egiten ari denez, kulturaren beraren balioa nabarmentzen hasi nahiko nuke;

gainera, biltzarraren ikuspegia etorkizunaz hitz egitea baita, eta ordezkari publikook dugun lehen arduretako bat da kultura horren balioa aitortzea, kultura lurraldea egituratzea baita, kohesioa, espiritu kritikoa bultzatzea, garapen pertsonala da, adimen artifiziala da, kultura ere osasun elementu gisa... eta, azken finean, denok kultura horren parte baikara.


Eta orain galderari helduz, bada, Alderdi Sozialistaren iritziz, kultur kudeaketa herritarrei kultura eramateko modua da. Foro honetan, bai eta gaur egun osoan zehar egiten ari diren guztietan zein biharkoetan, hau da, udal erakundeek edo Nafarroako Gobernuak egiten dituzten planteamendu horiek guztiak nola hurbiltzen diren jendearengana eta nola helarazten zaizkion jendeari. Eta horren haritik, jakina, kultur kudeaketako profesionalak ezinbestekoak dira, hori ahalbidetzen duten pertsonak direlako. Azkenean, botere publikoak, erakunde publikoak, badugu planifikatzeko ahalmena, legeak egiteko ahalmena, eta gero ere gai horietan sartuko gara, baina azkenean, zuok kudeatzaileak eramaten dituzue gai horietako asko jendearengana.

Zeren alde egiten dugu apustu? Biltzar honek egiten duen bezala, etorkizuneranzko begiradaren alde. Lurralde ikuspegia duen kultura kontuan hartzen duten politikak garatzen jarraitzearen alde. Horren haritik, adibidez, adibide bat eman nahiko nuke, hots, Alderdi Sozialistan zuzenketen edo ekimenen bidez saiatzeko gara antzerkia, musika, dantza helarazten Nafarroako beste espazio batzuetara, Iruñearen eta eskualdearen ikuspegitik pixka bat atera daitezkeen, herri txikiagoetara iristeko.

Halaber, plangintzaren bitartez, eta horren haritik, argi eta garbi utzi nahi dut gure iritziz hobe dela asko planifikatzea ez planifikatzea baino, hain zuzen ere ekintzetan asmatzeko, eta, epe luzera, inbertsio eta ideia kultural horiek guztiak ezerezean ez gelditzeko. Plangintzak, adibidez, ahuleziak detektatzeko aukera ematen digu, ekintzak eta erabakiak hobeki hartze aldera; aukera ere ematen digu sektorearekin hitz egiteko; kulturaren arloa oso bizi-rik dago eta etengabe eraldatzen ari da. Eta hemen ere azpimarratu nahi dut kulturaren bigarren plan estrategiko horretan dugun konfiantza; izan ere, adibidez, herritarrengan une honetan dauden ohitura-aldaketak atzemateko aukera emanen digun plangintza bat izanen delakoan baikaude: nola atzeman, eta politikak hobeki iristea aldaketa horietara.

Eta, azkenik, prestakuntzan ere eragitea. Belaunaldien arteko txandaketaz ari ginen. Prestakuntza hori funtsezko alderdia dela uste dugu. Alde batetik, ekintza eta kultura berez ahalbidetzen duten pertsona horiei balioa ematea; prestakuntza humanistikoa, artistikoa eta profil profesionalak beharrezkoak direla sentsibilizatzen jarraitzea, kultura horrek guztiak etorkizun bermatua

izan dezan, eta, nola ez, profil profesionalen gaia, gero Kulturaren Lanbideei buruzko Legearekin pixka bat gehiago garatu ahal izango dugula uste dut.



Gure iritziz, kultur kudeaketa garapen komunitarioa egituratzeko tresna bat da. Funtsean, horrela definitu liteke, nahiz eta erantzun hori izugarri dimentsionatzen ahal den. Eta askotan, kulturaz hitz egiten denean, oso hitz handiak erabiltzen dira eta gauza askotan ados gaude,

baina gero behar dena askotan da praktikara eramatea. Lehen Trigok esan du bera kiroletik datorrela; ni munizipalismotik nator eta Leitzako Udaleko Kultura Zerbitzua martxan jartzen parte hartzeko zortea izan nuen. Horren aurretik, udal zinema funtzio anitzeko areto bihurtzeko prozesua jarri genuen abian, eta, ondoren, Kultura Zerbitzua jarri genuen abian, hemen dagoen kultura teknikariaren eskutik. Eta esan dezaket, praktikaz ari garela, benetan udalerrri bateko kultur zerbitzu batek iraultza kultural txiki bat eragiten duela, ongi badabil. Eta horrela da, lehen pertsonan bizi izan dut eta egia da.

Lehen hemen egon den Xavier Alcoaz Udal eta Kontzejuen Federazioko presidentearen hitzak hizpidera ekarriz, berak esan du askotan adierazle makro-ekonomikoak erabiltzen direla hiriaz hitz egiteko eta errealitatearen argazki hori ateratzeko. Biztanle bakoitzeko errentaz hitz egiten da, BPGaz, langabezia hitz egiten da, EPAz, adierazle pila batez. Baina uste dut, halaber, oso garrantzitsua izanen litzatekeela adierazle sozial eta kulturalak erabiltzea argazki hori errealitatearen beste ikuspegi batzuetatik ateratzeko, errealitate dimentsionatuagoa, errealistagoa izateko.

Gure udalerrian bizi izan dugun iraultza kultural txiki horren ondorioz, nik ere ezagutu dut eta ikusten da ongi dabilen kultur zerbitzu batekin ez dela soilik kultur programazioa handitzen, elkarte sarea ere handitzen da, parte hartzea, jendeak kulturarekiko duen interesa handitzen da. Programatzen diren ekitaldi askok, agian, hasiera batean ez dute garrantzi oso handia ekonomia- ren edo parte-hartzearen ikuspegitik, baina beren kutsua uzten dute, eta pix-

kanaka horrek guztiak lehen ere aipatu den eraldaketa hori sortzen du. Horrenbestez, nik uste dut oso garrantzitsua dela hori ere kontuan hartzea, gizartearen errealitatearen argazki hori egiterakoan.

Eta zer behar da etorkizunerako? Laburbilduz, gero zehatzago helduko baitiogu, nik uste: baliabide gehiago, bai eta neurri gehiago ere. Neurri gehiago lege arloaren ikuspegitik, baina baita plangintza on baten ikuspegitik ere eta, halaber, koordinazio, lankidetzeta eta laguntza on baten ikuspegitik ere bai.



Halako tarte bat egin nahiko nuke eta, oraingoz, une batez hiru puntu aipatu nahiko nituzke, hirurak ere gakoak kulturaren barnean, guk uste. Hau da, ez daiteke kultura ulertu kultur kudeaketarik gabe. Eta horren haritik, uste dut garrantzitsua dela kulturari dagozkion funtsezko hiru

puntu ardatz hartzea, eta gero pixka bat azalduko dut zer den gure iritziz kultura.

Gure iritziz, kultura funtsezkoa da, gizarte kohesiorako adierazle edo bitarteko gisa ikusten dugulako, eta hiru puntu nagusirengatik da funtsezkoa: horietako bat nortasun ezaugarria da. Hemen, Nafarroan, badugu kultura aberats bat, izugarri aberatsa, gure hizkuntzatik beretik abiatzen dena, hau da, euskaratik, horrek nortasun ikur bat ematen baitigu, baina tira, daukagun ondare guztia, hemen kokatu ziren aurrekari erromatarrak, arabiarrek hegoaldean, eta horrek nahi ala ez, gure historia eta gure kultura markatu duen ondare bat utzi digu. Folklorearen ere, arte adierazpen guztiak, etab. Baina, uste dut funtsezkoa dela kultura definitzea eta bertako kultura sustatzea eta zaintzea. Alde horretatik, gure iritziz, funtsezkoa da borrokatzea huraxe bizirik mantentzeko, ezagutarazteko eta zaintzeko.

Kulturaren barnean ere funtsezkoa da, edo horrela ulertzen dugu guk, eta bat nator Zabaleta jaunarekin berak aipatu duen ideia batean, kulturak duen puntu aldarrikatzailea da. Nire ustez, aldarrikapen eta aurrerapen sozialetako asko, LGTBI+, etab., aldarrikapen kultural baten ondorio dira, eta horren haritik, uste dut aurrerapen soziala, neurri batean, zor zaiela beren lanetan

edo testuetan egoera bidegabeak salatzen dituzten artistei. Horren haritik, uste dut kulturak ere baduela aldarrikapen sozialaren garrantzia. Ikusten dugu, halaber, kultura funtsezko eragilea dela berdintasunezko gizarteak lortzeko. Beraz, erakundeok ere kontuan hartu behar dugu kulturaren botere aldarrikatzaile hori.

Eta, azkenik, eta nire solaskideek ere aipatu dutena, kultura dugu lurralde kohesioaren ardatz. Funtsezkoa da erakundeok Iruñea erdigunetik ateratzea, egia baita askotan kultur jarduera guztia Iruñean egiten dela, eta uste dut erakundeek bidez ariketa pixka bat egin behar dugula kultur ardura Nafarroako lurraldearen leku guztietara eramateko. Beraz, ulertzen dugu kultura eskubide bat dela eta, beraz, erakundeek bidez bermatu behar dugu kalitatezko kultura lurralde osora iristea.

Hori esanik, zein da gure iritziz kultur kudeaketa izanen litzatekeenaren erreferentzia orokorra? Hasteko, kultur kudeaketak parte-hartzailea eta aktiboa izan beharko luke. Ez da norabide bakarrekoa izan behar erakundeetatik beharantz, alderantziz baizik, ia behetik gorantz. Adituei entzutea, tokiko entitateei entzutea, azkenean gizarteak behar duenaren edo eskaera sozialen jakinaren gainean baitaude, eta hortik abiatuta legedia egituratzea, neurriak egituratzea, baina behetik abiatzen dela ulertuta.

Halaber, esan dudana bezala, funtsezkoa iruditzen zaigu bertako kultura sustatzea. Eta era berean aipatu dut garrantzitsua dela erakundeek eskuz esku lan egin dezatela tokiko eragile guztiekin eta kulturgintzako espezialista guztiekin, hain zuzen ere horrexegatik, zuek zaretelako jakinaren gainean zaude tenak eta informazio guztia ematen diguzuenak. Horren haritik, erakundeek erraztaile izan behar dute, eta espezialisten esku jarri.

Azkenik, uste dut funtsezkoa dela kultur kudeaketa gardena izatea. Egia da gure iritziz hori funtsezkoa dela; bere garaian hasi genuen, Aldaketaren Gobernuarekin, baina funtsezkoa iruditzen zaigu kultur kudeaketa guztia gardena izatea eta herritarrak kultur kudeaketaren erdigunean kokatzea.



CONTIGO-ZUREKIN

Daniel López
Córdoba

Ordezkarri publiko gisa egiten dugun lanagatik gaude hemen, eta jakina, mundu guztiari interesatzen zaiolako ikustea zein diren talde politikoek eta Administrazioaren kudeaketak dituzten konpromisoak, baina benetan uste

dut ez gukeela guk egon behar hemen, alderantziz baizik, guk oharrak hartu oharrak genituzke.

Dena dela, hori esanik eta kultur kudeaketaren gaiari heltzearen, nik baloratu nahi dut kultur kudeaketak solaskide gisa duen garrantzia, hau da, herritarren, eta artisten eta sortzaileen arteko bitartekaritza gisa.

Kulturak balio handia du, hots, herritarrengana egiten den itzulketak. Hori pixka bat gehiago garatuko dut aurrekontuari buruz hitz egiten dugunean, zeren batzuetan itzulketaz hitz egiten denean beti termino ekonomikoetan pentsatzen baita. Iruditzen zait Zabaleta jaunak hori aipatu duela. Baina ez, badago herritarrenganako itzulketak askoz ere garrantzitsuago bat, hots, pentsamendu kritikoa sortzea. Horregatik iruditzen zaigu solaskidetza lan hori oso garrantzitsua dela eta gainera zentsurarik gabe egin beharko litzatekeen lana dela. Eta hori diot, denok dakizuen bezala, garai zail samarra bizitzen ari garela, ez Nafarroan, nahiz eta nik nire udalerriaren adibidea eman nezakeen, non zentsura bizi izan baitugu hain zuzen ere kultur kudeaketan. Eta nola babes dezakegu kultur kudeaketa talde politikook? Guk Contigo-Zurekin taldean oso argi daukagu: sektorea prestakuntzarekin, profesionalizazioarekin eta lan egonkortasunarekin indartu behar da, batez ere lan egonkortasunarekin. Hitz eginen dugu horretaz legeriari buruz hitz egiten dugunean.

Gure taldearen konpromisoa, gure konpromiso politikoa, gainera, pixka bat haratago doa, ez bakarrik kultur kudeatzaileekin, baizik eta kulturen esku hartzen duen balio kate osoarekin, hau da, artista sortzaileekin, profesional teknikoekin, bai eta kultur kudeatzaileekin ere, jakina.

Aurrekontuaren gaiaz arituko naiz, eta aurreratu egingen dut, gero ziur aski astirik gabe geldituko garela eta elkarri erantzuten hasiko garela. Herri-

tarrenganako itzulketaz hitz egiten ari nintzen, eta gauza batek izugarri haserretzen nau: gauzak errentagarritasun ekonomikoaren arabera neurtzeak. Eta kulturaz hitz egiten dugunean ezin dugu errentagarritasun ekonomikoaz hitz egin. Zorionez, Ingalaterran erabiltzen ari diren beste adierazle batzuek beste alderdi batzuei erreparatuz baloratzen dituzte esku-hartze kulturalak: hala nola, kulturen aurrekontu handiagoa izatearen ondorioz, zenbait eskualdetan eskola-porrota murriztu da X urtean zehar, edo herritarren segurtasuna handitu da edo aktibismoa edo herritarren parte-hartzea handitu dira. Hori eztabaidara ekarriko dut eztabaidagai izanen dugulako.

Zentsuraren gaiaz sentikorra naiz pixka bat, eta Osoko Bilkuran mozio bat lantzeko aukera izanen dugu bizpahiru aste barru, hain zuzen ere, kultur kudeatzaileek egiten duzuen lana aintzat hartzeko, bai eta artistek eta sortzaileek egiten duzuen ere, hemen ere zuetako asko zaudete, eta Nafarroan zortea dugu, oraindik zentsura ez daukagulako eta espero dugulako ez iristea.

Moderatzailea (Iñigo Oses):

Behin gaian sarturik eta kultur kudeaketa zer den eta nola babestu nahi duten jakinik, legeriari buruz hitz egingen dugu, alderdi politikoaren joko-zelaia baita pixka bat. Nondik gatozen esaterakoan, mezenasgoari buruzko foru legea aipatu behar, aitzindaria izan zena, eskubide kulturei buruzko foru legea ere, aitzindaria izan zena, eta etorkizunean kulturen lanbideei buruzko lege bat sumatzen da, eta ikusiko dugu aitzindaria den ala ez. Baina ikus dezagun zer ikuspegitik heltzen zaion eta zer proposatzen duten taldeek haien indargunean eta herritar guztiei benetan eragin diezaieketen eremuan.

Kultura aisia edo entretenimendua baino askoz gehiago dela esan da, eskubide bat. Hala jasotzen da Nafarroako Kulturari buruzko Foru Legean ere, aitzindaria izan baita, eta, beraz, kultura baliabidez hornitu behar da, eta arau-esparru egokia ere eman behar zaio. Eta esparruaz ari

naizenean, ez naiz legeez bakarrik ari, baita planez ere, eta, lehen esan dudana bezala, gainerako lankidetzak eta elkarlan esparruez. Baina punturen batean hastearren, Nafarroako Kulturaren bigarren Plan Estrategikoa aipatzen hasiko nintzateke, laster argia ikusiko duena. Nik uste dut garrantzitsua dela, funtsezkoa, lehen esan dudana bezala, diagnostiko on bat egitea, ebaluazio bat egitea eta, ondoren, plangintza on bat egitea hurrengo urteetarako, hortik aurrera ikuspegi zabal batekin aurrera egin ahal izateko.

Arau-esparruari dagokionez, uste dut hainbat erronka daudela. Batetik, kulturaren lanbideen legea dago. Argi dago kulturaren sektorean egiturazko prekarietatea dagoela eta aurre egin behar zaiola, eta nire ustez lege hori oso baliagarria izan daiteke, eta horrekin batera, Artistaren Estatutua Nafarroako legeriara egokitzea. Egia da Estatuan Artistaren Estatutua onetsi zela, baina gai askori dagokienez, Nafarroako araudira egokitu behar da; adibidez, gai fiskalei dagokienez. Mezenasgoaren Legea ere hor dago, agian aitzindaria izan zena, baina, benetan, nik orain arte jakin ahal izan dudanez -oso berria naiz honetan, denok gara berriak parlamentarismoan-, uste dut gauza asko berrikusi beharko liratekeela. Elkarrekin, erakunde askorekin... biltzeko aukera izan dut. Ia guztiei galdetu diet ea nola dihoakien Mezenasgoaren Legea, erabili ote duten lege horrek eskura jartzen duen tresna erabilgarriren bat, eta iritzi kritikoa jaso dut. Nire ustez, badago erronka bat eta aurre egin behar zaio.

Hortik aurrera, nik uste dut neurri eta ekimen asko daudela, eta bultzatzen litezke bai Gobernutik, bai Parlamentutik, gure lurraldean kultura garatzen lagundu behar duen esparru hori zehazten eta hobetzen jarraitzeko. Joan den egunean, Bibliobusaz aritu ginen, oso tresna garrantzitsua baita liburutegiko zerbitzuak Nafarroako eremu hustuenetara iristeko. Lehen esan da Nafarroako liburutegien sareak 100 liburutegi baino gehiago dituela, hori egia da, bai-

na horietako asko hirietan daude. Herri askok oraindik ez dute zerbitzu hori herrian bertan, eta bibliobus zerbitzuaren gaia, adibidez, oso garrantzitsua da.

Ikus-entzunezko edukien agregatzailearen gaia ere badago, eta hori ere bultzatu nahi da; beste erkidego batzuetan dagoeneko egin da. Edo toki entitateekiko, elkarrekin eta, oro har, kultur sarearekiko babesa, lankidetzak eta koordinazioa. Euskarari ere bultzada berezia eman behar zaiola uste dut; nik uste baitut Nafarroan kulturaz ari bagara, euskara gure lurraldeko berezko kulturari dagokion zerbitzu dela eta zeharkakotasunez hartu behar dugula kontuan.

Adibidez, % 1,5aren kasuan, gero mintzagai izanen duguna, hor bai esan behar dudala KUNArekin, zuekin, izan nuen bilera batean ideia bat ateratzea, hots, % 1,5 hori, gero zehatzago eta zabalago hizpide izanen duguna, agian Eskubide Kulturalen Legean bertan jaso ahal izanen zena, berme handiagoa ezartzeko. Bestela, gerta daiteke une jakin batean, Parlamentua nola osatua dagoen, aurrekontuaren inguruko akordio batera iritsi ahal izatea, kulturaren alde egiteko eta kulturaren inbertitzeko, baina gero gerta daiteke gehiago hori aldatzea, eta baliteke hori aldatzea. Beraz, gure ustez, % 1,5 horri dagokionez, aurrekontu hutsa baita, horrek legean ere izan dezake isla, araudiaren ikuspegitik bermatu ahal izateko. Baina gero horretan sakontzeko aukera izango dugu.



GEROA BAI

Itxaso Soto Díaz
de Cerio

Ez dut oso gustuko gai hori testuinguru hauetan, uste dudalako alde kulturala legeriari gailentzen zaiola, baina hemen gaudenez, jorratuko dugu. Uste dut Geroa Bai aitzindaria izan zela edota askotan erreferentzia markatu zuela estatu mailan kulturaren inguruko lege kudeaketan.

Egia da Mezenasgo legea 2021an jaio zela baina 2015ean bultzatu zen; egia ere bada zaharkitua gelditu dela eta sendotu beharra dagoela, eta hori kultur politika guztiekin gertatzen da. Baina Nafarroako Kulturaren lehen Plan Estrategikoa eta Eskubide Kulturalen Legea ere garatu ziren. Horren haritik, horrek markatzen du pixka bat Geroa Baik maila politikoan hartua duen konpromisoa kultura bultzatzeko, bai eta kulturgintzako profesionalak bultzatzeko ere.

Egia da funtsean hiru zutabe edo hiru ardatz nagusi daudela, gardentasuna, ebaluazioa eta plangintza. Baina uste dugu funtsezkoa dela ebaluatzea, non gauden jasotzea, zer egin den ongi, zer egin den gaizki, zerk funtzionatu duen eta zerk ez, etorkizunerako plangintza egin ahal izateko, benetan eragin dezakeen estrategia baten bidez. Halaber, gizartea kohesionatuko duten eta bizitzeko modu batzuk ekarriko dituzten balioak sustatzea eta, batez ere, Nafarroan dagoen indar kulturala ahalik eta gehien hedatzea. Hau da, eragile artistikoen -kasu honetan nafarren- dimentsio sortzaile edo sormenezkoa eta berritzailea indartzea.

Hori azaletik izanen litzateke oro har. Egia da gero, benetako proposamenak edo proposamen zehatzagoak ardatz harturik, ezinbestekoa dela kulturaren lanbideen foru lege berriaren alde egitea; uste dugu hori funtsezkoa dela. Era berean, plan publikoak garatzea, hau da, ezagutza publikokoak izatea eta gizarteak buru-belarri parte hartuta, kultur plan aktiboak sortzeko. Gobernantza instituzional bat edo gobernantza instituzional on bat; eta hemen jasotzen dut burokraziaren gaiari buruz aurreko eztabaidan esandakoa, uste dut ez diola kultur sektoreari bakarrik eragiten, baina egia da artista autonomoei begira, eta kasu honetan mundu artistikoan baditugu autonomo asko, ba sekulako traba da, eta horrekin uste dut hemen, eta lehen aipatu dut, erakundeek haien zerbitzura egon behar dutela eta erraztaile izan behar du-

tela; horrenbestez, horren haritik, gobernantza ona azpimarratuko dut eta, kasu honetan, gai burokratikoa erraztea.

Halaber, sormenezko lurralde baten alde egiteko erronka ere, Nafarroan dugun artea indartu dezaketen laguntza eta dirulaguntza, programa, beka, eta gisakoen bidez eta. Uste dut hemen, Nafarroan, oso jende ona dugula arlo guztietan, ez bakarrik musikan, baizik eta baita pinturan, eskulturan, sorkuntza modernoetan, eta uste dut artista horiei bultzada eta erraztasunak eman behar dizkiegula hemen geldi daitezen, hemen egonaldiak egiteko eta, gero, bultzada emateko edo bultzada eman eta kanpora atera ahal izateko. Gure iritziz ere oso garrantzitsua da genero praktika onak sustatzea, hau da, laguntzak ematea, epaimahaietan genero maskulinoa zein femeninoa, konposizio parekideak, etab. ekitatiboa izateko; uste dut funtsezkoa dela, halaber, generoaren gai horri kulturaren esparruan heltzea. Gizarteratzeko laguntzak proposatzea, ez soilik desgaitasun maila bat duten artistak gizarteratzeko, baita artista gazteak, adineko artistak, etab. gizarteratzeko ere. Alde horretatik, aukera sorta bat izan behar dugu bakoitzaren egoera sozialerako.

Era berean, ondare historiko eta dokumentalaren balioa nabarmentzea, Nafarroak historia handia baitu arlo dokumentalean, baita museoei dagokienez ere. Eta funtsezkoa iruditzen zait euskaraz bizi eta hitz egin ahal izatea: uste dugu sentimendu hori, dugun aukera hori eta dugun aberastasun kultural hori, ere bultzatu behar dugula. Eta funtsezkoa iruditzen zait digitalizazioaren gaiari heltzea. Adimen artifizialaren gaia aipatu da: ez dut oso argi adimen artifizialarena sektore artistikoan, baina uste dut funtsezkoa dela digitalizazioaren gaia eta teknologia berriak sartzea, eta artistei laguntzea digitalizazioaren gaian beren jardura indartu ahal izan dezaten. Jarraibideak eta gidak ematen ahal dizkigun kultur behatoki bat, hori ere funtsezkoa dela uste dut. Horiek praktika errealean izanen lirateke edo gure taldetik proposatu genitzakeen ekintza errealak.



CONTIGO-ZUREKIN

Daniel López
Córdoba

Legeen arloan egin dezakegu guk agian ekarpenik handiena. Pozten nau zuk AAren eztabaida ireki izanak, nahiko eztabaida interesgarria izanen litzatekeelako.

Nafarroan dugun lege ibilbidea dela eta, nik bi gauza bereiziko nituzke. Lehenik eta behin, plangintza dago, hau da, herritarrekiko kudeaketa zuzenetik hurbilen dagoena, eta, gero legeen garapena. Egia da baditugula Eskubide Kulturalen Legea eta Mezenasgoaren Legea; egia da, halaber, lege horiek garatu gabe daudela arlo batzuetan. Eta aurrera begira, kulturaren lanbideen edo profesionalen legea: gure iritziz, horrek mugarri izan beharko luke.

Nire ustez, kultur kudeatzaileen esparruan, normalean tokiko erakundeei lotuta egoten zarete, eta eragin handiagoa edo txikiagoa izan dezakete zuengan, baina zer gertatzen da artistekin? Zer gertatzen da profesional teknikoekin? Adibidez, hemen ere profesional teknikoak ditugu eta haiek ere daude lotuta. Lege hori behar da profesional horientzako guztientzako lan egonkortasuna bermatzeko, beste edozein sektoretan edozein langilek duena bezalako. Ez dakigu zergatik ikusi den kultura beti zer bait poetiko, polit, desberdina gisa, baina errealitateetik urrun. Ez, barkatu: hemen badago hortik bizi nahi duen jendea. Hizpidera ekarriko dut publiko artean dagoen taldekide batek bidali zidan berria, duela hilabete batzuk Televisión Española ateratakoa: Espainiako artisten % 77k 12.000 euro baino gutxiago irabazten dute urtean; % 70 pobreziaaren atalasearen azpitik daude. Eta hori murrizten da, beste finantzabide iturri batzuk bilatzen dituztenean, nahiz eta gero hitz egingo dugun horretaz, beste finantzaketa-metodo batzuk bilatzen dituztenean. Eta hemen Mezenasgo Legeaz hitz egin genezake, ... ez dut esaten legea txarra denik, baina berriz pentsatu beharra dago, perbertsio maila txiki bat duela. Izan ere, demagun artista batek eta sortzaile batek erakunde pribatu baten babesa nahi dutela, eta erakunde pribatu horiek dira Mezenasgoaren Legearen onura fiskalez baliatzen direnak. Bada,, erakunde pribatu horiek artistari eskatzen diote: beste inork finantzatzen zaitu? Ez, nire proiektua baita. Nafarroako Gobernuak finantzatzen zaitu? Ez. Ba ez zaitut abalatu. Uste dut gaia birpentsatu behar dela.

Artistaren Estatutua aipatu nahi nuen. Egia da badagoela, garapena behar duela. Eta gero ni gehiago nator ikastera irakastera baino, artista nafarraren Estatutu bat egitea planteatu delako. Nik hori ez daukat hain garbi, Nafarroak ez baitu eskumenik lan edo gizarte segurantzaren arloko gai batzuetan, ezta arlo fiskal batzuetan ere: BEZa ez da gure eskumena. Baina hori bai, ikusi beharko genuke zer egin, artista, kudeatzaile, teknikari eta profesional nafarrek onura jaso dezaten, nafarrok zenbait arlotan komunitate pribilegiatua izatearen onura jasotzen dugun bezala.



UPN

Francisco Javier
Trigo Oubina

Alderdi Sozialistako nire lagun Ibaik oposizio pixka bat egiten utziko dit, Parlamentuan bi bloke baitaude: hauek guztiak (*gainerakoak seinalatuz*) eta hau (*bere burua seinalatuz*). Eta hauei berdin zaie zer esaten dugun, hau da, ongi dago, hau da, ongi moldatzen dira elkarren artean, baina oposizio pixka bat egiten saiatuko naiz.

Horretan ari al gara? Galdera honek Parlamentuaren gaitasunari egiten dio erreferentzia, hau da, ahalmen legegileari, eta gu gara legeak egin behar ditugunak. Eta, orduan, jada Gobernuaren bigarren legealdia da, beste departamentu batzuetan titularra aldatu da baina honetan ez, titular bera izaten jarraitzen duelako, bada, nire ustez, egokitzen zaien esaldia “horretan ari gara” da. Eta bost urte daramatzate horrela. Izan ere, martxan dauden lege asko garatzeke eta garatu gabe daude. Eta Gobernuak kultura departamentuari izugarri gustatzen zaio plangintza egitea. Hau da, nik irudipena daukat urte osoa planifikatzen ematen dutela. Plan estrategiko bat egon zen aurreko legealdian, eta nire ustez, eta nire lankideek aipatzen zidatenagatik, nahiko plan estrategiko interesgarria dena. Garatu gabe geratu zen. Zergatik? Gobernatzen zuen kontseilariarena ez zen alderdi batek planteatu zuelako. Eta orain, plan estrategiko hori garatu gabe, beste plan estrategiko berri bat planteatzen dugu, denbora batez iraunen duena. Beraz, hemen ateratzen diren gai horiek guztiak plan estrategiko horretan planteatu beharko lirateke, bestela ez luke inolako zentzurik izanen.

Orduan, niri iruditzen zait, askotan, Administrazioa gehiegi planifikatzen ari-zen dela. Nirekin ari diren solaskideek esaten dute lehenik eta behin planifi-katu egin behar dela, baina dagoeneko planifikazio handia dago, lege asko dago. Hori guztia herritarrarengana iristea lortu behar da. Bestela, gehiegiz-ko burokratizazioa izanen dugu administrazioan. Nire ustez, Parlamentutik eta Gobernutik datozen araudiak eta legeriak duten helburu nagusia herrita-rrengana iristea da. Eta, horren haritik, nik uste dut funtsezkoa dela Adminis-trazioak berdintasun irizpide batekin proposatzea kultur sustapena.

Eta lehen ere esan dut beharrezkoa dela plangintza hori objektiboa izatea eta neurgailu ekonomikoak izatea behar ez diren inbertsioak saihesteko. Adi-bidez, Lekarozen zinemarako inbertsio horren inguruan gertatu dena, itxita baitago, eta ia bi milioi euro kostatu baitzaie nafar guztiei. Bada, Administra-zioak ere neurgailu ekonomiko batzuk eduki beharko lituzke, gure komunita-teak zer behar duen jakiteko.

Eta, azkenik, amaitzeko, beste gai bat: nik gogoan daukat KUNAKoak Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean egon zirenean, nik galdera egin nien. Izan ere, jakina, norbait Kultura Batzordera etortzen denean, eskatzera etortzen da. Hau da, askotan gu gara elkarteen eta Administrazioaren arteko bitartekari-ak; bitartekari lana egiten dugu pixka bat. Eta, une hartan, nik galdera bat egin nien: “Errege Magoei gutuna idazteko aukera bazenu, zer eskatuko ze-nioke Nafarroako Gobernuari?” Eta gogoan dut “Excel bat egitea” esan zue-la. Hau da, zehaztea. Izan ere, gauza asko daude; legeak, arauak, ekintzak, plan integralak daude, baina ez dago zehaztapenik. Eta Administrazioari es-katu behar zaiona da zehazteko, egutegiak ezartzeko, esateko hau noiz egi-nen den, zein egunetan amaituko den...

Moderatzailea (Iñigo Osés):

Kontzeptua hartu dugu. Soil-soilik zehaztu behar dut uste dudala, Excelezi ari garenean, diru ukigarritasunaz ari garela. Hau da, legeek gauza asko formula-tzen dituzte, baina zergatik ez dira gauza asko gauzatzen? Ba Excelen edukia falta delako, eta hori normalean eduki ekonomikoa izaten da. KUNAn Excelezi hitz egiten dugunean, hanka ekonomikoa da...



Baina Excel hori hirugarren (eztabaidako) puntuan ikusi-ko genuke, ezta?

Moderatzailea (Iñigo Osés):

Bai horixe. Lehenik, Crespo jaunak buka dezala puntu hau. Nahi duzunean.



Esan beharra dago batzorde honetan kiroltasun handiz hartzen ditugula gauzak, Trigo jauna. Eta lehenago, kultu-rak lortzen dituen adostasunez mintzatu naiz, eta onartu behar da batzorde honetan ia aho bateko adostasunak lortzen direla. Gainera, hemen jorratzen ari garen

Ekimen askori buruz hitz egiten dugu, eta egia esan, giro ona dago batzorde-an, baita txantxak ere.

Legeriari buruzko gaiari helduko diot. Legediaz hitz egiten dugunean, kontu-an hartu behar zer legedia dugun eta zer legedia nahi dugun. Legedi egune-ratu batek aukera ematen digu egungo beharrei arinago erantzuteko, baina, era berean, ulertzen dugu legedi hori behar hainbateko denboraz egin behar dela, elkarriketaren bidez, entzunez, parte hartuz, xehetasunez. Izan ere, ez dugu nahi azkar joateagatik urte gutxira zaharkitua gelditzea, ez ditugu hala-ko legediak nahi, nolabait esatearren.

Zer defendatzen dugu Alderdi Sozialistan? Batetik, uste dugu gaur-gaurkoz daukagun legediaren zati bat eguneratu gabe daukagula. Eta museoei, libu-rutegiei, artxiboei eta ondare historikoari buruzko legeaz ari gara, eta egia da oso ongi funtzionatu dutela, indarrean dirautela, baina berrikuspena behar dute, batez ere hainbat erronka sartzeko, hala nola teknologia berriak, jasan-garritasuna, inklusioa, eta profesionalek beraiek adieraziko dizkiguten gai

teknikoagoak ere sartzeko. Beraz, alde batetik, legedia hartzen dugu kontutan.

Eskubide Kulturalen Legea, aipatu den bezala, lege aitzindaria izan zen eta, gainera, ikusten dugu beste autonomia erkidego batzuek orain oinarritzat hartu dutela beren arau propioak egiteko. Noski, lege aitzindaria izateko arriskuak berekin dakar posible dela lege berri horietan zenbait gai kanpoan utzi izana. Baina, gure iritziz, Eskubide Kulturalen Legea oso lege bizia da, eta etorkizunean sektoreak helarazten dituen gaiak eta aurrerapenak onartu ahal izanen dituela. Lege ona da, guk uste eta, hain zuzen ere, kulturaren demokratizazio horretan eragiten duela, eta uste dut horretan adostasun bat dagoela, hor bai, aho batekoa. Mezenasgo Legeak, berriz, hamar urte ditu, gabeziak ditu... Arestian jorratu den gai bat azpimarratu nahi genuke, batez ere: nola helarazi lege hori askoz ere modu didaktikoagoan kultur esparrura, batetik, eta arlo ekonomikoetara, bestetik. Izan ere, esaten digutenaren arabera, ez da ulertzen, eta are, ez dagoela jakiterik zer dakarren, zer premia diren. Beraz, ez dakigu zer dakarren, legearekin zer behar dauden. Beraz, modu didaktikoagoan iritsi dadila, gai zehatzagoetan sartzeagatik.

Eta, kultur lanbideen legeari dagokionez, Alderdi Sozialista konprometitua dago lege horrekin, eta espero dugu legealdi honetan bertan argia ikustea. Uste dugu lege ona izanen dela, katedra ere ezarriko duela eta alderdi askotan aitzindaria izanen dela, eta, horregatik, uste dugu xehetasunez ere egin behar dela, kontu handiz, inolako gairik kanpoan ez uzteko. Horren haritik, gainera, aitortu nahi dut KUNAK diagnostiko horretan, profilak zehazteko egin duen lana, oso lan aurreratua eta beharrezkoa izan baita. Alderdi Sozialistaren ustez, lege hori eraikitzeke oinarria beste hausnarketa eta araudi batzuekin batera joan behar da. Hemen aipatu da artistaren estatutua, lan hitzarmenak... Zergatik uste dugu dena batera joan behar dela? Izan ere, egia da kulturako lanbideen legearen planteamenduak indargune asko dituela, batez ere lanbide eta prestakuntza profil horietan, zehazten hasiak direnak, udal kulturako profil tekniko guztiak, baina, era berean, ikusten dugu zailtasuna dagoela profesional artistiko horiek detektatzeko. Lehen, Zurekin taldeko kideak lanbideen lege horretatik kanpo gelditu daitezkeen artista jakin batzuei buruz hitz egin du, artea jarduera nagusia ez duten artistei buruz, bizitzeko beste aukera bat baizik; baina hor talentua dago eta hori ere aitor-

tu beharrago.

Bestalde, artistaren estatutua eta hura Nafarroara egokitzea hartu behar da kontuan. Gu ere egokitzapen horren aldekoak gara, ez ia gai propio bat egi-tearen aldekoak. Funtsezkoa da, prestazioez, erretiroez... mintzo baitzaigu eta, lege horrek, gure ustez, holako gaiak bildu behar ditu. Beraz, kulturaren lanbideen legea bai, baina era berean eskutik joan dadila hitzarmen kolektibo horiekin, lan hitzarmen horiekin eta artisten estatutu horrekin.

Moderatzailea (Iñigo Oses):

Hirugarren galderari helduko diogu. Nahiko zehatza da, dibagatu ahal izanen duzue edo ez, baina hemen dirua da funtsa, eta dirutan, oro har, oso harira jo daiteke. Bost minututik hirura jaistera gonbidatzen zaituztet, eta horrela gero hamar-hamabost minutu izanen ditugu galderei lekua uzteko, hori ere interesgarria baita. Hitz egin dezagun finantzaketaz: **non geratzen da Europak gomendatu duen kultur aurrekontuaren % 1,5 hori, alderdi gisa dituzuen lehentasunen artean?**

Eta hizpidera ekarri dut, zuetako batzuek zeharka, baina askok zuzenean, Europara begiratu duzuelako; azken finean, beti begiratzeko dugu Europara askotan, baina ez forman, eta forma funtsa bezain garrantzitsua da, eta uste dut % 1,5 zerbait garrantzitsua izan daitekeela.



CONTIGO-ZUREKIN
Daniel López
Córdoba

Argi dagoena da sektorea egonkortu eta profesionalizatu nahi badugu, dirua behar dela. Eta politikari gisa dugun lana, eta hori burutu ahal izateko, neurriak bultzatu eta defendatu behar ditugu, bai eta neurriak gauzatzeko

akordioak ere, baina batez ere sosa. Egia da guk, adibidez, gure programan defendatzen dugula % 1,5era iritsi behar dugula, ratio hori European markatzen baita. Esan behar dut, halaber, eta gehitu nahi dut, ehunekoen kontu hori batzuetan pixka bat tranpatia dela. Orientagarriak dira eta azalduko dut zergatik. Hau da, zuk milioi bateko aurrekontua baldin baduzu eta % 1,5 egi-

ten baduzu, kulturen 150.000 euro gastatzen ari zara, baina 10.000 milioiko aurrekontua baduzu, kulturen 150 milioi dira. Hau da, jende batek aurrekontuak erabiltzen ditu haxe esateko: begira zenbat sartu duan, baina gero benetako kopurua ez da hainbeste, aurrekontu urriagoak dituztelako. Baina tira, helburuak berdina izaten jarraitzen du.

Diruaz hitz egiten ari gara, baina gauza bati erantzun nahi diot: ez dut parlamentuko eztabaidarik hona ekarri nahi, oposizioaz eta gobernuaz hitz egiteko, baina zerbait esan nahi dut hemen esandako gauza baten harira. Jakin behar da inbertsiorik ez egiten beharrezkoak ez diren gauzetan. Zer ez da beharrezkoa kulturen ari garenean? Esan nahi dut, kultur jarduera bermatu nahi badugu, kultur aniztasuna bermatu nahi badugu, herritarrak mobilizatzea nahi badugu, pentsamendu kritikoa ezarri, pertsonak dituzten kultur beharrei erantzun, non dago muga? Esan nahi dut, artista txiki bat ezin dugu finantzatu, agian bere lana hain interesgarria ez delako?

Hori pixka bat arriskutsua da, nik uste. Hasieran esan dut, baina hizpidera ekarriko dut: iruditzen zait akatsa dela herritarrenganako itzulketa arlo ekonomikoan oinarrituta egitea. Lehenik eta behin, uste dudalako arlo ekonomikoaren balio ona dela eta batzuetan errentagarritasuna bakarrik neurtzen dela: “erakusketa hau egin dut eta hainbeste etorri dira eta hainbeste sarre- ra ordaindu dituzte”. Baina horren eragina agian izanen da pertsona horiek taberna batean kankarro bat hartzera joan izana, afaltzera joan izana eta abar. Hau da, itzulketa ekonomikoaren ez da zuzenean baloratu daitekeen zerbait, hots, “hainbeste kostatzen da, hainbeste itzultzen du”. Eta hasieran aipatu dudana; nire ustez, eztabaida interesgarria da: egiten den herritarrenganako itzulketa, itzulketa soziala. Eta hor axola du zenbat inbertitzen den. Lehen esan dut, Ingalaterran azterlan bat dute, eta urtero hainbat balio sozial aztertzen dituzte, kulturen inbertitu dutenaren arabera: eskola porrota, eskola arrakasta, auzoetako hobekuntza gaiak, kriminalitate gaiak eta abar, eta uste dut hori hemen egin litekeela.

Parlamentuko zuzenketei buruz hitz egin nahi nuen, iruditzen baitzait prozesu maltzur samarra dela, baina agian gero berriro helduko diogu.



GEROA BAI
Itxaso Soto Díaz
de Cerio

1,5a gai latz xamarra da, ez baikara iristen ari. Orduan, guk ere autokritika eta kritika hori egin behar dugu ordezkari- tza instituzionalaren aldetik, ez garelako iristen ari. Egia da talde politiko guztien konpromisoa izan behar

dugula hori lortzeko, funtsezkoa delako. Eta hemen denok bat etorri gara kulturen duen garrantzia esaterakoan, eta nik uste dut horren azpian dagoela erakundeek egiazki sinesten dutela kulturen eta beharrezkoa dela, eta horrek eragiten duen itzulketan. Nire solaskideak esan du kulturen itzulketa eragiten duela, eta ez bakarrik maila ekonomikoan, baina egia da garrantzi- tsua dela arlo guztietan uzten duen guztia, ez soilik hazkundera, hezkuntza, baizik eta antzerkera ateratzen zara lagunekin, eta afaltzera ere joaten zara. Orduan, uste dut funtsezkoa dela kulturen garrantzia ulertzea. Guk funtzio publiko gisa onartzen dugunean kulturen garrantzia, uste dut horixe izanen dela egiazki abiapuntua % 1,5 hori lantzeko. Hemen gauden guztiok beti daukagu iritsi beharreko diskurtso hori, 1,5a bultzatu behar dela, hori lortze- ko lan egin behar dela... Eta egia da lortu egin behar dugula. Baina uste dut pixkanaka joan behar dugula, urtez urte aurrekontuetan lan eginez pixkanaka igotzen joateko, partidak finkatzen joan, aurrekontuak finkatzen joan hori lortzeko. Orain ia erdian gaude, eta, beraz, lan gogorra dugu egiteko. Ordu- an, nik uste dut talde politiko guztien konpromisotik abiatzen dela.

Horren haritik, uste dut aurreko puntuarekin lotuta dagoela: legeriak legedi aktiboa izan behar du. Ezin da izan lege aitzindari bat egitea, berdin dio me- zenasgoarena izan edo eskubide kulturalena izan, dena delakoa, eta huraxe ez berrikustea, azken finean gertatzen dena gertatzen delako, hau da, zortzi urte pasatzen direla eta Estatuko Mezenasgoaren Legeak aurreratzen gaitue- la. Orduan, uste dut legedia eguneratzeko ariketa bat ere egin behar dela, baina baita aurrekontu-partida horiek indartzen eta finkatzen joateko xedea- rekin ere.

EH BILDU
Mikel Zabaleta
Aramendia

Ba, heldu diezaigun Excelari eta baliabideei. Uste dut % 1,5eko helburua oso helburu errepikatua dela. Eta lehen esan dudan bezalaxe, zeren orain iragarriko baitut zer jarreratan gauden; ni nahiko positiboa nago gaiarekin, egia esan. Ni berez positiboa naiz, baina gai zehatz hone-

tan ere bai. Asko aurreratzen ari gara. Egia da azken urteetan handitzen joan dela kulturara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa, nahiz eta oraindik, ltxasok esan bezala, nahiko falta den % 1,5 horretara iristeko. Egia da ideia sortu zela KUNArekin izan genuen bileran, hura Nafarroako Eskubide Kulturalen Legean txertatzea. Ideia KUNArena izan zen, eta nik uste dut oso ideia ona izan zela. Zergatik? Ba, Eskubide Kulturalen Legean xedapen bat sartzen bada, zeinaren bidez ezartzen baita ezin dela % 1,5 baino gutxiago bideratu kulturara, litekeena da, noizbait eskuineko blokekoak Gobernura iristen badira, zailago izatea kultura murrizketak egitea, argi eta garbi.

Bestela, hitz egiten ari garena da une bakoitzean, Parlamentuko gehiengoaren arabera, aurrekontu batzuk edo beste batzuk ezartzen direla, muga bakarra izanik une horretako gehiengoak ezarritakoa. Lege batek gutxieneko bat ezartzen badu berme gisa, legea ere aldatu ahal izango da, baina gutxienez oztopo gehiago jartzen zaizkio aldagetari. Kanarietan, adibidez, egin dute. Kanarietako legean % 2 ezarria dago. Egia da, halaber, eta esan behar da Kanarietan eskumen gutxiago dituztela, eta beraz % 2 hori uste dut —kalkulua ere ez dut egin— Nafarroan % 1,5a baino gutxiago izanen litzatekeela.

Esan behar da % 1,5 ezarrita dagoela EH Bilduk Gobernuak bazkideekin sinatu duen aurrekontu akordioan, eskubide kulturalen foru lege horretan sartzeko eta araudi gisa ezartzeko, lege baten barneko xedapen gisa.

Pixkanaka eginen litzateke, eta, behin hori lortuta, gutxieneko gisa jardungo luke. Nahiko aurreratua dago eta ez naiz ausartzen data bat esatera, baina uste dut datozen hilabeteetan, zuhurra izateagatik, gauzatu litekeela.

Aurrekontuen gaia ere lege bat da. Aurrekontuak, onesten direnean, lege formatuarekin onesten dira. Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea da eta askotan aipatzen da atal hori, gastuena, baina aurrekontuek ere badute bes-

te atal bat, diru-sarrerena. Hori ere kontuan hartu behar da, askotan gastuetan jartzen baita arreta guztia, baina zerga politika justu eta egokirik gabe ez dugu diru-sarrera nahikorik izanen beharrezkoak diren gastuak behar diren politiketara bideratzeko.

PSN
Ibai Crespo Luna

Alderdi Sozialistari dagokionez, 1,5a akordio programatikoan dago jaso, gure hauteskunde-programetan ere bai, eta beraz, konpromiso irmoa da eta, Zabaleta jaunak esan duen bezala, gai honetan aurrera egiten ari da. Ni ere ez naiz ausartzen esatera..., uste dut zuhurrak

izan behar dugula, batez ere hain gai garrantzitsuekin. Baina, tira halaber onartu nahi dugu kultur aurrekontua azken bost urteetan jarraian hazi dela; egia da, ez da 1,5 horretara iristen, autokritikoak izan behar dugu, baina onartu behar da halaber aurrekontu kulturalak gora egin duela aurrekontu globalak ere gora egin duen momentuan, eta uste dugu hori dela inportantea.

Ikuspegi ireki hori ulertzen dugu, hain zuzen ere, erakusteko gobernu desberdinek kontrako erantzunak eman dizkietela, kasu honetan, krisi ekonomiko eta sozialei. Eta, aurreko legealdira joanda, 2020an ikusi genuen Gobernu honek jada gure lurraldeko zutabe gisa ulertzen zuela kultura, eta, gainera, kultura hori irekita mantendu zuen Gobernu bakarrenetako bat izan zen, orduan hartu beharreko neurri guztiekin, beste Gobernu batzuek itxita mantentzen zuten bitartean. Eta, hala ere, Gobernu honek kulturaren aldeko apustua egin zuen ardatz estrategiko gisa.

Orduz geroztik, lehen urte hartatik, aurrekontu igoerak izan dira, eta, gainera, ez bakarrik Europako funtsengatik; igoerak izan dira kultur politikaren funtsezko programa eta ildo estrategikoetan, hala nola arkeologian, liburugietako langileen ordezkapenean, artxiboetan, museo sarean, sorkuntzan eta egonaldietan, lurraldekako programetan... Hau da, Europako funtsak noizbait amaituko dira, baina urtez urte politikak sendoagoak eta indartsuagoak dira eta, azkenean, horrexek dirau. Eta bukatze aldera, aurrekontu han-

diagoa defendatzen jarraituko dugu, noski, baina burua erabiliz ere egin behar dugu. Guk bai defendatzen dugula proiektuen bidezko plangintza izatea lurraldean, sortzaileei bultzada emanez, hausnarketarako foroak antolatuz, kulturako profesionalak sendotuz, sare propioak indartuz eta sektorearekin etengabe hitz eginez. Aurrekontua horretarako. Zurekin taldeko kideak ere aipatu duen bezala, ez azpiegituretarako —eta hemen bai erantzungo diot UPNko bozeramaileari—, ez bideragarritasunik eta plangintzarik gabeko azpiegitura faraonikoetarako, iraganean egiten ziren bezala.

Eta azpiegiturei buruz... Nik ez dut esan beharrezkoak ez ziren azpiegiturak, justifikaziorik gabeko azpiegiturak baizik: baliabideak, eta zuek denok bada-kizue hori, guztiok ere kultur kudeaketaren munduan lan egiten duzuelako, ez dira mugagabeak. Horregatik, oso garrantzitsua da ongi kudeatzea.



UPN
Francisco Javier
Trigo Oubiña

Tira, ba lehengoa. Nolakoa zen? Horretan ari gara, ezta? Ba hor jarraitzen duzue, % 1,5arekin, aurreko legealdian planteatu zenutena eta, Zabaleta jaunak eta Ibai jaunak diotenez, horretan ari zarete. Tira, fidatu behar horretan ari direla; esaten zenidaten hori ezer egiten

ez duen jende asko dagoela leku horretan, baina lor dezakegu, agian, legealdi honetan aurrera ateratzea. Ea lortzen dugun, Gobernuaren helburua baita.

Begira, 2014. urtean, Unión del Pueblo Navarro gobernatzen egon zen azken urtean, aurrekontua 3.700 milioi eurokoa izan zen. Kopuru handia da, 3.700 milioi euro. Ba al dakizue zer aurrekontu onetsi dugun aurten Parlamentuan? 6.300 milioi euro. Hamar urtean, Nafarroako Gobernuaren aurrekontua % 67 igo da. Zuetako inori igo al diote soldata % 67 hamar urte honetan?

Beraz, askotan, aurrekontuen gaian, borondate politikoa da kontua. Nahi izanez gero, egin daiteke. Ez da baliabide faltagatik. Gobernu honek baditu baliabide ekonomikoak, asko. Baina, funtsean, ez da magia; ez, gure zergak dira. 6.300 milioi euroko aurrekontu hori ez da magia bidez ateratzen. Gizarte baten zergetatik ateratzen da, Nafarroako gizartetik, Estatu osoko presio fiskal handiena baitu. Beraz, % 1,5era iristen ez bada, izanen da Gobernuak uste duelako badirela beste lehentasun batzuk, baina Europako agenda kulturala urratzen ari da eta haien konpromisoetako bat ere bai.



Kultura SORTZEKO modu berriak

Nestor Prieto eta Francisco Brives, **La Neomudejar** abangoardiako artearen eta experimentazio artistikoaren zentroko (Madril) artistak eta kudeatzaile kulturalak eta zuzendarikideak, eta Gema Rupérez, artista eta **Ababol** arte publikoaren, memoriaren eta despopulazioaren jaialdiko (Zaragoza) zuzendaria arteko topaketa.

Kultura sortzeko, eskuratzeko eta kontsumitzeko modu berriak lantzeko programari emanen diogu segida. Topaketa hauetan, kulturgintzan etorriko denari erreparatu nahi izan diogu; izan ere, **funtszkoa iruditzen zaigu kultura sortzeko modu berriak nolakoak izanen diren eta nolakoak izaten ari diren mintzagai izatea**. Ekosistema honetan, eragileen profilak gero eta hibridoagoak eta diziplinartekoagoak dira, eta bitartekaritza giltzarria da demokrazia kulturalako prozesuetan, baita publikoen, eragile sortzaileen eta lurraldearen arteko loturan ere. Kulturaren digitalizazioak ekartzen dizkigun agertoki berriak ahaztu gabe, publiko berriak eta kultura kontsumitzeko modu berriak finkatu behar dira. Hasteko eta bat, kultura sortzeko modu berriei buruz hitz eginen dugu, eta, horretarako, Nestor Prieto eta Francisco Brives ditugu gurekin, biak ere artistak, kultur kudeatzaileak eta La Neomudejar Zentroko zuzendariak, hots, *Abangoardiako eta Experimentazio Artistikoko Arte Zentroa* da hori. Eta Gemma Rupérez ere dago gurekin, artista plastiko eta bisuala, aholkularia, eta *Ababol, Arte Publikoa, Memoria eta Despopulazioa* jaialdiaren sortzaile eta zuzendaria. **Bi-biak kultura eta sorkuntza garaikideko bi proiektu dira, eta eragin handia dute lurralde oso desberdinetan**; batek, Madrilén, La Neomudejar zentroaren kasuan; besteak, berriz, Aladrenen, 65 biztanleko herri txiki batean, Zaragozako probintzian, Ababol jaialdia egiten den udalerrian, alegia.



La Neomudejar 2012. urtean sortu zen. Gure ustez betetzen ari ez zen esparru bat bete nahi izan genuen; karrera erdiko artistentzako gun bat, artistei profesionalizatzeko aukera emateko.

Une hartan baziren espazio independente asko, baina uste genuen beharrezkoa zela espazio bat irismen handiko proiektu horiei lekua egiteko. Horrez gain, berreskuratze lan egin nahi izan genuen, memoria historikoaren lana, XIX. mende amaierako eraikin bat berreskuratuz; Atochako geltokian dago eta XIX. mende amaierako nabe zahar bat da, eta proiektuaren barnean dagoena guztiari lekua egiteko berreskuratzen genuen. Proiektuaren banean, artista berriz ere erdigunean jarri nahi izan dugu. Kontu hori hasiera-hasieratik aipatu dugu, bereizgarri gisa, gure iritziz sorkuntza garaikidearen paradigma berri horietatik pixka bat baztertzen zituztelak.



Gure iritziz, funtsezkoa da halako dekadentzia giro batekin mantentzea espazioa. Espazioa bizitzea proposatu genuenean, lehenbizi eraikinari berari entzun genion bete-betean, proiektuaren parte gisa, eta zer-nola landu hainbeste bizipen zituen eta hainbesteko memoria zuen espazio hori, betiere hura inbaditu gabe, kolonizatu gabe eta hezi gabe. Gainera, Madril bezalako hiriaz ari gara; ez du iragan industrial handirik izan; beraz, garai hartako oso



aztarna gutxi gelditzen dira. Eta guretzat sekulako zortea zen espazio hori bizitzea.

Horrenbestez, hamar urte baino gehiago daramagu espazioa bizitzen. Oso bitxia da, espazioa esperimentazio artistikorako eraikia baitago, baina memoria gordetzea eta lekuan bertan ez esku-hartzea, proiektuaren zatia eta osotasuna da. Nolabait, halako zubi bat egitea, artistak eraikinaren oroimenaren gainean lan egitera gonbidatzeko; beren proposamen artistikoak espazio horren barnean uztartzeko, aldezturik memoria-geruza bat duena, eta diskurtso bat ere baduena. Hori nahiko konplexua zen.



Proiektuan jorratzen dugu bai egonaldi artistikoen arloa, bai geure erakusketen ekoizpena, hala sortzen ari diren artistenak, nola ibilbide luzeko artistenak, belaunaldien arteko lana eginez. Kasu honetan, Jonas Mekas estatubatuar zinemagilearen irudi batzuk ikusten ari gara, horixe izan baitzen 2019an hil aurretik egin zuen azken erakusketetako bat. Nolabait, halako nahasketa bat da, hots, batetik, artista ospetsuenen ibilbide osoa eta, bestetik, belaunaldi berriei zer ekarpen egin behar dieten.

Gero, gainera, beste espazio bat ireki dugu Madrilgo eremu periferikoan, iparraldean, Zapadores Ciudad del Arte izenekoa. Kuartel militar zahar bat da, orain ere espazio bihurtua, bai erakusketa gune izateko, eta bertan bilduma iraunkorra dugu, bai egonaldi egoitza artistikoetarako. Kasu honetan,



Ge-
ro,
tai-
ler

iraunkorrek eta aldi baterako erakusketak dira, eta, gainera, bertan queer artxibo transfeminista dugu.

Gainera, landa eremura hurbiltzeko proiektu bat ere badugu, Karstica izeneko, Cañada del Hoyo herrian dagoena; herri txikitxo bat da, eta han elkargune asko ditugu Gemmak aurkeztuko duen proiektuarekin.

Beraz, sortu dugun espazio sarea aurkezte dizuegu azaletik. Eta orain edukia-
ren zatiaz hitz egingen dugu pixka bat gehiago. Alde batetik, proiektua printzi-
pio edo balio batzuetan oinarritzen da. Gure eginkizuna, museo gisa, beti
pentsatu izan dugu ekonomia zirkularrarekin zerikusia duten mugarri batzue-
kin lan egitea, errizomaren teoriarekin zerikusia dutenak. Jatorriz galiziarrek
gara, eta oso finkatuta gaude lurrian, eta, horren haritik, beti izan dugu sen-
tiberatasun berezia ekosistemei balioa emateko, haiekin ohiturak eta biziga-
rritasuna partekatzen dituglako edozein zentrotan. Izan ere, Nestorrek era-
kutsi dizuen lehenengoan, adibidez, *Jardín de la Campanilla* dugu, eraikina-
ren memoria immateriala eta memoria materiala erreskatatzeko lan egiten
duena. La Campanilla trenbide-tailerra kokatua dagoen Madrilgo baratze za-
harren izena zen. Eta gaur egun lorategian bizi den biodibertsitatearen ma-
paketa bat bezala dago.



Kárstica paradigma bat da eta hori ere oso biztanle gutxiko herri txiki bat da, 160 biztanlekoa. Museoaren proposamena naturarekin hitz egitea izan zen, eta artistek esperientzia murgilgarri bat izatea testuinguru bereizgarri batean, ez hainbeste hiri-arloan ardaztuta, lurraldearen geomorfologian baizik. Cuencaco Serraniaz ari gara, eta Torca eta Hyas parajeetako paisaia bereizgarriaz. Nolabait zeharkatzen gaituzten eta proiektuetan iraunkortasuna ematen diguten filosofia horiek hasiera-hasieratik planteatu dira eta hamar urte honetan ez dute aldaketarik izan. Hau da, ez da izan joera berriek mar-
katzen zituzten diskurtso edo bideetara moldatzen joan den proiektu bat, baizik eta hasiera-hasieratik daude oinarri filosofiko berberak eta, horiei es-
ker, diraugu bizirik.

Proiektuen lehen unetik, nazioarteko ikuspegia izan da bitxikerietako bat. Beti izan ditugu erreferentziatzat 40 edo 50 urte baino gehiago finkatuta ze-
ramatzaten Europako proiektu batzuk, erabiltzen ez ziren eta abandonaturik zeuden espazioetan egindako proiektu haiek, eta horrekin batera, lurraldea-
ren gainean gehiago sakontzen zuten Latinoamerikako museo-molde berri-
ak, auzoarekiko elkarriketaren gainean. Eta gu beti zentro bakoitzean, ba-
koitza paradigma ezberdina da, ez baita gauza bera Atochako geltokian ego-
tea, fraide domingotarrekin, horiek baitira ingurunean hurbil-hurbil ditugun
gure bizilagunak eta, adibidez, Zapadores Ciudadelan egotea, periferia bate-

an, industrialde bateko eremu gisako batean, non hurbileko biztanleria ijito komunitate espainiarreko herri txabolista bat den. Cañada del Hoyon, berriz, komunitate guztiarekin aritu gara solasean, bai eta lurraldeko usadio tradizi-
onal guztiekin ere.

Moderatzailea:

Zoragarria, batez ere lurralde desberdinetatik kultura eta hizkuntza garaiki-
dea nola sortu asmatzeko, ez bakarrik hirigunetik, baita Cuencan eta landa-
giroan eragin duzuen aberastasun guztia ere. Eta, hain zuzen ere, lurraldean
oso esanguratsuak diren proiektuen inguruan solasean jarraitzeko, **Gema
Rupérez gonbidatu dugu, Ababol Jaialdiaren nondik norakoak azaltzeko.**
Arte publikoko jaialdi horrek sorkuntza garaikidera hurbildu du oso udalerrri
txikia, baina gakoa bertako **biztanleen parte-hartzean eta baterako sorkun-
tzean datza. Hala da?**



Bai, halaxe da. Eskerrik asko gonbidatzeagatik, eta gainera, ederki lagundua nago, La Neomudejarko jendea baitago nire ondoan, eta miresten ditut benetan. Jaialdiak astebete inguru irauten zuen, hau da, jarduera egunak eta artisten egonaldia barne. Jakina, aurrez lan handia egin behar da, eta ondotik ere bai, baina jaialdia berez astebetea zen. Orduan, herrian lanean ari ziren hiru artista aukeratzen genituen. Bertako landetxe batean hartzen zuten ostatu, aste horretan hartan lanean aritzeko eta, bukaeran, emaitza ikusten genuen, baina horrez gain, mahai inguruak egiten genituen, kontzerturen bat, kalejira bat. Horiek jaialdiaren mugarriak-edo.


Hortik haratago, jaialdiari gai zehatz bat eman nahi izan genion. Azpitolua haxe zen: *Arte publikoa, memoria eta despoblazioa*. Uste genuen gure Espainia hustuaren hain ingurune zehatzetan egonik, nolabait hori aztertu behar genuela, foku hori jarri. Eta, gainera, nik ez nuen izan nahi espazio-ontziarekin iritsi, estandarte jarri eta ospa egiten duen kultur eragile horren antzekoa, beste jaialdi askotan gertatzen baita. Artistak iristen dira, beren emanaldia egiten dute eta alde egiten dute, eta hemen ez da ezer gertatu. Oso ongi genekien zein publikori ari ginen zuzentzen, bagenekien biztanleria



adinekoa zela, udan eta asteburuetan dezente hazten den arren, ia hamar aldiz biderkatu daiteke. Baina han bizi direnak, berez, adinekoak dira. Beraz, bagenekien hein batean pedagogia ere egin behar genuela, laguntza, ohituta ez dauden hizkuntza batean. Hau da, arte garaikidea pixka bat ezaguna zaie... tira.

Baina, egia esan, asko harritu gintuen nola hartu gintuzten hasieratik, gogo handiz zebiltzan ikasteko, lankidetzan aritzeko, eta haiek gabe ezinezkoa izanen zen. Izan ere, azpi-hiri handietan egiten diren beste gauza batzuekin alderatuta hurbiltasun hori da, hori gauza ona eta desberdina da, eta berehalakoa lortu ahal izatea. Hau da, zuk muntaia bat egin behar duzu eta agian izapide asko aurreztuko dituzu, aldazio bat eskatu behar bada eta udalari eskatu behar bazaio... Tira, ba dena pixka bat errazagoa zen. Hori, egia esan, eskertzekoa da. Pixka bat lotsati hasi ginen, baterako sorkuntzarako ziren proposamenak sortzen, ikusi behar zelako haiek ere nola egiten zituzten berea, nola sartzen ziren pixkanaka. Orduan, harrigarria izan zen, azkenean iruditzen zitzaigun bizilagunek beraiek eskatzen zigtela presentzia handiagoa. Eta agian hori ulertzeko modurik onena artisten lanen adibide zehatzak jartzea da, zer tratatzen genuen jakin dezazuen. Hau da, artista bakoitzak bere proposamena sortzen zuen, artista bakoitzak eremu desberdin batera eramaten zuen, dela memoriaren gaiari lotuago, dela despoblazioaren gaiari lotuago, edo biak barne.

Adibidez, Estefanía Santiagok iaz proiektu bat egin zuen, *Recetas de Resistencia* izenekoa. Ikerketa artistikoaz gain, bizilagunekin batera sortzeko argitalpen bat egin nahi zuen, errezetei buruz hitz egiteko, errezeta tradizionalei buruz, hain zuzen. Baina ez zuen errezeta liburu bat egin nahi, bizilagunekin hitz egin nahi zuen, eta sukaldatzen ari ziren bitartean sortzen zen elkarriketa hori guztia gero artista-liburu gisako batean dago jaso zen, argitalpen gisako batean, eta han dago postontzi batean denen eskura kontsultatzeko moduan. Gero niretzat ere oso garrantzitsua zen espazio publikoa mantentzea eta pixka bat babestea. Espazio publikoa niretzat sakratua da guztiona delako, eta besteek jartzen dutenak edo guk jartzen dugunak eragiten digulako, denoi eragiten digu maila bisualean, esperientziaren mailan, gauzak bizitzearen mailan. Eta orduan, zu Aladrenera iritsi eta bisita gidatu bat egiten duzunean ere, gauza batzuk erabat oharkabea pasatzen dira, zuk ez badakizu artelan bat dela. Adibidez, Raul Eviaren lana, monumentu turistiko bat irudikatzen duenaren inguruan lan egin zuena: berak hiru seinaleetika egin zituen espazio publikokoak direla identifikatu ditzakegun hiru plakatan,



betiko gaztetasunaren iturrira zihoazenak. Orduan, berak ibilbide bat sortzen zuen, zu leku batera iristen zinen eta norabide batean seinale bat zegoen, eta idazten zuen: “norabide horretan dago betiko gaztetasunaren iturria”. Zu ibilbidea egiten hasten zinen, baina ibilbidea zen helburua, hau da, azkenean

paseoa zen. Azken batean, zirkulu itxi bat zen, eta leku batetik bestera eramaten zintuen betiko gaztetasunaren iturri horren bila, adibidez .

Marta Castroren proiektua ere oso berezia izan zen; bizilagunekin lan egin zuen eta bizkarraren zati baten moldea egin zien eta azalaren memoria jaso zuen. Bizilagunak tailerrera joaten ziren, labean lan egiteko espazio bat uzten ziguten beti, eta Martak bizilagunen bizkarra grabatzen zuen, eta azalaren termino horrekin jokatzeko muga gisa eta muga arkitektoniko gisa. Orduan, Aladrenge etxe bateko hormetako batean hamar plaka daude, bizilagunen larruazal naturalari dagozkionak: oso polita da, beraiek proiektu horren parte direla sentitzen direlako.

Ladorean izeneko proiektu bat ere izan genuen, edo Chico Trópico kolektiboaren harri arraroa, familian etorritakoa. Nire ustez, hori garrantzitsua zen, arte-egonaldi askotan kontziliaziorik ez dagoelako, hau da, artista gonbidatzen dute, baina familiak ez du lekurik; hori arazoa da, emakumea zarenean ia beti. Esan nahi dut, arazo handiagoa izaten da alde batentzat bestearentzat baino. Beraz, ilusio handia egin zidan biak etorri ahal izateak, bikote artistikoa baitira, baina, gainera, seme-alabekin etorri ziren: hartu genituen, egia da batzuetan azpiegiturak ez duela aukerarik ematen, hori horrela da, baina arlo hori beti daukat gogoan. Eta haiek fikzio gisako bat sortu zuten, bizilagunekin elkarlanean; gainera, konturatu ginen bizilagunak aktore errebelazio izan zitezkeela, proiektu horretan ere asko inplikatu zirelako; beraiek kontatzen zuten harri arraro bat bezala iritsi zela eta kontatzen zuten nola gertatu zen hori, fikzio bat sortzen ari ziren elkarren artean. Eta Chico Trópicok soinu-erregistro bat egin zuen eta erregistro dokumental bat ere egin zuen; oso hunkigarria izan zen.

Baterako sorkuntzako beste proiektu batzuk ere izan ditugu, Asensioren aulki-ena adibidez, baina batez ere niretzat honako hau izan da berezia: ikustea nola sortzen diren, ez publiko berriak, sortzaile-kide berriak baizik; edo nola funtzionatu duen pedagogia egiteak edo ikuslea edo biztanlea inplikatzeak. Gainera, gauza polit bat gertatzen zen: turistak herrira joaten zirenean, bizilagunek berek egiten duten bisita gidatua; orduan, haiek obrak hain ongi ezagutzen zituztenez, haiek zaintzen zituzten, zaintzaileak dira, obrak zain-



tzen zituzten, bisita egiten zizutenak, zer gertatu zen kontatzen dizutenak, ez soilik obrak zer esan nahi duen, baizik eta zer gertatu zen prozesu horretan; kontua da niretzat balio bera duelako zer gertatzen den bitartean, bitartean gertatzen den hori garrantzitsua da, eta gero aberastu, beste eduki mota batez hornitu.

Egia da jakin behar duzula landa-ingurune batean ezin duzula soilik arte garaikideko edukia jarri. Oso polita zen, azken egunean zirkuitu bat sortzen genuelako, ia prozesio moduko bat, erroneria, ez dakit... Obraz obra gindoa zen, obrak ikusten, eta artistekin eta etorri nahi zuen jende guztiarekin hizketan; izan ere, herriko alkate andreak proiektua pixka bat sustatu zuen eta ez zuen jaialdi bat egin nahi milaka pertsona erakartzeko bost egun zehatzean, berak nahi zuen horri guztiari jarraipena emateko balio izatea, edozein turista urtean zehar hurbildu ahal izateko, jakinik ezinezkoa dela ekitaldi izugarri bat sortzea. Ez genuen ekitaldi hori sortu nahi, batez ere jarraipena izatea nahi genuen.

Moderatzailea:

Zoragarria da, eta gainera, orain denoi entzun dizuedan honetan, hainbat galdera bururatu zaizkit. Hemen gauden pertsonak ekipamendu eta zerbitzu-en kudeatzaileak gara, lurraldean, landa edo hiri eremuan izan daiteke, baina edonola ere, lurraldearekin hitz eginez, lan egiten dugun publikoekin hitz eginez, horien zerbitzuan baikaude. Interesgarria litzateke galdera egitea **non jartzen dugun fokua, geure zerbitzuetan edo benetan zuzentzen gaitzaizkien publikoetan, edo are gehiago, fokua artisten komunitatean ote dagoen**; gai hori otorduan ere sortu baita, hau da, guztiaren oinarri diren sortzaileak batzuetan erabat baztertuak daudela.

MUSEO
LNM
La Neomudejar

Bai, nik uste dut lehenik eta behin bereizi egin beharko litzatekeela. Gu proiektu independentea gara; beraz, oso kasu ezberdin batetik abiatzen gara, eta ez dugu urteko aurrekonturik lantzeko. Hortaz, espazioaren garapen programatikoa ia ahaleginez egiten dugu gure proiektu bakoitzarekin. Zentro bakoitzeko alokairu bat ordaintzen dugu merkatu prezioan; eta horrek ahalmena mugatzen digu. Duela hamabi urte La Neomudejar irekitzea erabaki genuenean,

baguenen lehentasun bat; izan ere, hirian unean-uneko jaialdi bat edo bi zeuden bideo-artean, hiru egunekoak, eta gu, hain zuzen ere, bideo-artetik gentozen, hain zuzen ere, eta publikoa sortzeko eta jarraipena emateko espazio bat sortu nahi izan genuen.

Egia da beti batek gauza orotan huts egiten duela eta, batez ere, gauzak abi-araztean, eta uste genuen gure xede-publikoa jende gazteagoa izanen zela, eta, bitxia bada ere, lehen lau urteetan izan dugun publiko gehiena 40-50 urtetik gorakoa izan da. Gure iritziz, hori horrela da abangoardien erreferentzia izan duten herriak direlako, eta guk Madrilgo gure zentroari Abangoardiako Arteen Zentroa izena eman genionean, 2010ean, guk ba genuen memoria bat; aizu, garai historiko hauetan aurreko mendeko abangoardiak jaio ziren; baina etortzen zen jendeak Dalíri buruz hitz egiten zizun, Maruja Mallori buruz hitz egiten zizun, 70eko hamarkadako jendeari buruz hitz egiten zizun, eta, orduan, etengabeko entzute elkarrizketa bat bezalakoa izan zen.

Hori zentro bakoitzean gertatu zaigu. Xede-publikoak lurraldetik bertatik eta hurbiltasun-dinamikatik bertatik sortzen dira. Egia da gure zentroak erakarpen handia duela nazioartean; nazioarteko publiko asko etortzen da, borroka askoren ondoren lortu baikenuen Turismo Sailak gu gidaren barnean sartzea; baina xede-publikoari dagokionez, uste dut irmo eta gogor lan egin behar da, eta estrategien bidez, eta errazagoa izaten da akatsaren gainean lan egitea gauza egokien gainean baino, asmatzeari buruz baino, eta ez dago ezer idatzia.

Izan ere, adibidez, beste egoitzan, Fuencarralen, Zapadoresen, bi auzoren artean dagoen ez-leku bat bizi dugu: trenbidearen alde batean, hiriaren elementu zatitzaile gisa, hiri askotan bezala, Fuencarralgo barrutia dena, eta beste aldean, Las Tablas izeneko inguru bat, eraiki berria. Guk hasieratik, nahiz eta gure xede-publikoa garatu dugun, oso argi geneukan Fuencarralentzat lan egiten genuela, eta proiektuarekin bi urtez lan egin ondoren egiazki konturatu ginen espazioa bere egin zutenak, hain zuzen ere, barruti eraiki berria zela. Espazio horrek ez zuen ez elkarre-espaziorik, ez kultur gunerik aisialdiari lekua egiteko, eta, Fuencarralen, berriz, hau da, betiko herri finkatua izanik, baziren egitura horiek. Franek esan duen bezala, proiektua landu

behar izan genuen espazioa egiazki bere egin zuen publikoarentzat, eta publiko hori ez zegoen hasieran gure xede-publikoaren baitan.



ab
ab
ol

Nire kasua oso desberdina da, hau da, batzuk eta besteak non kokatzen dituzun... nik ikusi ahal izan nuena da batzuen eta besteen artean magia sortu zela. Noski, ni, gainera, artista gisa, eta nire praktika artistiko gisa, non sortzailea saiatzen den dena erabat kontrolatuta edukitzen, horrek gainezka nola egiten duen eta beste pertsona batzuen laguntzarekin handiagoa nola egin daitekeen ikus-tea, edo are, emaitzaren inguruko ziurgabetasuna ere bizitzea, magikoa da. Horren eraginez, gauzek beste benetakotasun bat hartzen dute. Orduan, artistaren elkarrizketa, bizilagunarena eta ikuslearena, zeren niretzat han komunitatea artistak bezain garrantzitsua zen, eta alderantziz, noski, ezin nituen batzuk alde batera edo bestera utzi. Agian asteburuan etortzen zena edo ondoren joaten dena bai geratzen dela ikuslea beste nonbait. Baina niretzat leku komun hori oso garrantzitsua izan zen, lotura hori sortzea.

Moderatzailea:

Eta Gemma, Ababol Jaialdiak lurraldean duen inpaktuaz hitz egiten duzunean, **zuk uste al duzu inpaktu hori tarte baterako gelditzen dela, hau da, jaialdiak irautean duen bitartean edo ekintzek iraun bitartean edo, ba al dago eraldakuntzari begira ere irautean duen inpakturik? Eraldatzeko ahalmena dute?**



Bai, ni ziur nago, hori ikusi dudalako; gainera, hori eskatzen dute. Nik uste dut baduela harrapatu egiten duen zerbait. “Zerbaiten parte sentitzea” da, nolabait horixe da bereizgarria.

Sentitzea ere gauza esanguratsuak sortzen ari zarela, memoria sortzen ari zarela, hori oso garrantzitsua da herriarentzat berarentzat, memoriaz eta despopulazioaz hitz egiten ari baikara, eta hien memoriaz eta oroitzapenez hitz egiten ari gara, eta, aldi berean, etorkizunerako eraikitzen ari gara. Hori hor gelditzen da, eta horren eraginik, komunitate gisa hazten da.

Moderatzailea:

Oso garrantzitsua iruditu zait zuk aipatutako bisiten kontu hori, hau da, bizi-lagunek beraiek egiten zutela bisita turistiko hori Aladrenen, hori baita kultur kudeatzaile orok amesten duena, komunitate bat izatea, kasu honetan analogikoa, aurrez aurrekoa, zure publikoak zure preskriptoreak izatea; beraz, zure publikoak erabat daude inplikaturik. Hau da, aldi berean, jendea erakartzen dute; orduan, bat egiten dut esan duzun hori, hots, horrelako lorpenak erdiestea egiteko modu berri horien parte dela, uste dut. Etorriko denari buruz hitz egiten genuenean, kultura sortzeko modu berriei buruz, **bi galdera sortzen ziren; sortzeko modu berri horiek egiteko modu berrietan ote dauden, eta bestalde, teknologia egiteko modu berri horietan non gelditzen ote den; zeren, zenbaitetan, berrikuntza kultural hori teknologian bakarrik ardazten dugulako... Hibridatu behar du? Zein da zuen ikuspegia?**



Zapadoresen, liburu-dendaren atean idatzia dagoen esaldietako bat. La Insumisa esaten diogu, kuartel militar bat zena bizitzen ari garelako, eta, jakina, espazio militarizatu eta maskulinizatu bat da, eta bat-batean, artxibo transfeminista bat hartzen du. Eta liburu-denda, pentsamendu-gune gisa, La Insumisa izena ematea erabaki genuen, eta, horrez gain, diskurtso egoki bat, hizkuntza mundu osoan militarizatzen ari den honetan, munduaren hondamendirako, hizkuntza molde horrekin ari zaizkigu inbaditzen edo hazi bezala sartzen. Eta hantxe, hauxe dago idatzia: “gauzak ez dira berriak, berritzaileak direlako”. Ez da eraikin zuririk sortu beharrik, hau da, denboraldi ikaragarri batez xahukeria handia izan da diru-aurrekontuetan edukiontzi handi barren hutsak sortzeko, hau da, ez kudeaketarik, ez programaziorik. Askotan politikariekin hitz egiten dugu eta esaten diegu, lehenik eta behin pentsatu programazioan, eraikina zaharberritzen, birgaitzen doalako denborarekin. Batzuetan aurrekontu gehiena arkitekto izarrak jaten du, gero eraikinari emango zaion erabilerarekin zerikusirik ez duenak; uste dut ona dela dinamika horiek birpentsatzea.

Kárstikaren kasuan, guk beste dinamika batekin lan egiten dugu, 160 biztanleko herri txiki bat delako; herriko geltoki zaharrean gaude, urrundua bezala dago, eta jada herriaren memoria kolektiboaren parte zen; espazio hori debekatua egon zen haientzat, urte askoan itxita egon zelako, eta guk irekiera eguna egin genuen, herriak bere geltokia berriro lurraldearen eta memoria-ren parte gisa senti zezan. Eta landa eremuko biztanleekin egin dugun lana gehiago izan da entzute lana; gu ez gara hara joan ezer esatera edo egitera haiei entzun arte, eta han egiten joan diren proiektuetan baldintza izan da herrian ez esku hartzea. Izan ere, artistok, batzuetan, oso dinamika inbaditzaileak izaten ditugu bestearen lurraldearekin; eta teknologia berriei dago-kienez, lehen ekintza herriko frontoian egin genuen, ekintza laburra, bideo-arte eta bideo-performance jaialdi bat eramanez, oso harrera ona izan zuena; performanceak izugarri ongi ulertu ziren. Bestalde, batzuetan esan izan da ea landa eremuko Espainian jendeak ulertuko ote duen edo ez; uste dut hori baztertu egin behar dela, ez baita horrela, jendea era berean baita azkarra edo artaburua toki batean edo bestean. Eta teknologiaren inguruko

pasadizo irrigarri bat, bideo-performancearen gaia pasatu genuenean, Andres Cuartas mutil kolonbiarraren proiektua izan zen, eta ahotsaren erdian eta frontoiko gauaren iluntasunean haur batek esan zuen, *hori pornoa da?* Eta orduan esan genion, ez, galdetu zure gurasoei. Esan nahi dut, batzuetan, erabiltzen dugun teknologiaren edo hizkuntzaren aitzakiak gizartea eraldatzeko balio digula aurre egin ahal izateko hezkuntzan, sentsibiltatean, edo aniztasunaren eta bizikidetzaren aldeko diskurtsoetan, eragina izan dezaketen hainbat elkarrizketa edo gairi, eta, azkenik, uste dut kulturak laguntzen digula batzuen eta besteen artean elkarganatzen.



Eta teknologien erabilerari dagokionez, uste dut bizitzen ari garen une hone-tan -zehazki, zuzenbide artistikoaren barnean-, asko deabrutzen ari dela teknologia berrien agerpena, adibidez, adimen artifiziala. Nire ustez, adimen artifiziala tresna berria da eta hemen gelditzeko iritsi da, bere garaian bideoa eta abar iritsi ziren bezala. Nire ustez, tresna bera da deabrutu edo baztertu behar ez dena, hau da, azkenean egintza artistikoa juzkatu behar da, hau da, lanaren azken emaitza, zein tresnarekin egiten den alde batera utzita, epaitu beharreko egitate da; hau da, juzka dezagun emaitzaren amaiera, ekintza artistiko gisa, eta ez hura sortzeko erabiltzen den tresna.



Ados naiz. Herrietako publikoak hirikoak bezain baldarrak izan daitezke edo ez. Arestian pedagogiaz mintzatu naizenean, uste dut beti egin behar dela pedagogia zure lana egin behar duzun lekuan, hau da, laguntza bat da. Askotan izaten da museoan sartu eta aretoko orria hartzeko jarrera, ea agian orri hori zure gida izan daiteke, hau da, hor bakoitzaren jarrera dago. Halaber, Néstorrekin ados adimen artifizialaren gaian, tresna gisa; sortu zen argazkia iPhoneen edo smartphone mota orotan eta hark ere deabrua iduri zuen betiko kamera analogikoaren aurrean, eta nik uste dut era kontzientean hurbildu beharra dugula eta, era berean, datozen belaunaldiak hezten.

Entzule baten hitzak:

Zorionak, proiektu arras onak dituzue. Niri bi zalantza sortzen zaizkit, trazen-
dentalak: bata, **nola iritsi zarete erabiltzen ez diren gune eder horietara?**
Gainera, administrazioenak dira, korapilatsua; eta, gero, **zein da zuen nego-
zio ereduak ekimen horietarako? Nola lortzen duzue ekonomikoki bideraga-
rriak izatea?**



Nestor Prieto:

Beno, hori funtsezko galdera da. Tira, alde batetik, gu-
re espazio guztiak espazio publikoak dira, titulartasun
publikokoak, Estatuari alokatuak dauzkagunak; gure
etxejabea Estatua da. Gainera, espazio guztiak merkatuko prezioan alokatu
ditugu, eta aski kostu handia dute. Gu 2012. urtean hasi ginen sartzen orain
La Neomudéjar den eraikinera. Eraikina, berez, 2.000 metro karratu dira oin-
planoan gehi solairuak. Proiektuari ekin genionean, eraikinaren erdia alokatu
genuen, ez genuen eraikin osoa alokatu. Epe luzerako proiektu-marrazki bat
ere egin genuen, eta, bertan jaso genuen gure hasierako ideia eraikin osoa
geureganatzea zela; zehazki, bost urtean eraikin osoa alokatzeko ideia azter-
tu genuen. Gu iritsi ginenetik, iritsi eta urte eta erdira, bat-batean, 30 urtez
abandonatuta zeraman espazio horren arrimuan, ez dakit zer unibertsitate
agertzen hasi zen..., eraikinaren beraren gaineko interesak hasi ziren, eta
prozesua izugarri azkartu behar izan genuen eraikin osoa alokatu ahal izate-
ko.

Finantzabide formulari dagokionez, guk, komisariatze-lanak egiten ditugu,
bai eta nazioartekotze-lan handia ere. Guk artista edo kudeatzaile gisa sor-
tzen dugun guztia elkartetik bertatik sortzen dugu. Hau da, espaziotik kanpo
egiten ditugun lan guztiak espazioaren barnean inbertitzen dira. Duela urte
batzuetatik, gainera, mezenasgoa bilatzeko lan handixkoa ere egiten dugu.
Izan ere, 2019az geroztik, etengabe bisitatzen dugu bai L.A. Art Show azoka,
Los Angelesen, eta Palm Beach azoka, urte honetatik aurrera, eta, datorren
urtetik aurrera, New Yorkeko Hamptons azoka, proiektuaren aldeko dirua
biltzeko lana egite aldera. Kasu honetan, fundazio bat daukagu, fundazio la-
gun bat, eta gure erakundearentzako diruak ematen dituzten pertsonai do-



kumentazio guztia ematen zaie funts horiek jaso dituztela frogatzeko, Estatu
Batuetan desgrabatu ahal izan ditzaten.

Nolabait, hemen, Espainian, horixe egin nahi da mezenasgo legeen bidez,
baina prozesua nahiko motel doa.

Fran:

Nik zehaztu nahiko nuke ez dagoela negozio zentzurik. Hain zuzen ere, gu
irabazi-asmorik gabeko elkarte bat gara, non-profit bat da, eta negozio bat
sortzeko nahia izan balitz, ez ginatekeen inoiz horretan sartuko, erabateko
porrota izanen litzatekeelako. Kontua da gauza bat dela negozio zentzurik ez
izatea, eta beste gauza bat da espazioaren iraunkortasunaren alde borroka-
tzea denboran. Kudeaketa mistoa egiten dugu; askotan, jendeak hori galde-
tzen digu leihatilan bertan, batzuetan leihatila-lana ere egiten baitugu, garbi-
keta lana eta dagokiona egiten dugun bezala, eta jendeak ez du ulertzen zer-
gatik, baina aise ulertzekoa da: zu lanean ari zaren unean, ez duzu bizitzarik
eta 24-7 aritzen zara. Orduan, hor gauza asko aurrezten dira. Eta gero, bes-
talde, kudeaketa mistoan espazioaren ustiapena egiten dugu unean-unean,
nahiz eta ez zaigun gustatzen programazio prozesua etetea, baina alokairua



egiten dugu filmazioetarako edo unean uneko ekitaldietarako, eta horiek ere aparteko diru-sarrera bat ahalbidetzen digute, ez bakarrik errenta ordaintzeko, baizik eta lan egiten duen jendearen soldatak ordaintzeko.

Néstor Prieto:

Gero, jakina, erakunde publikoentzako proiektuak ere garatzen ditugu. Diru-laguntza izendunak, nahiz eta denbora asko daramagun borrokan horiek lortzen saiatzeko, ez dugu inoiz bat bera ere lortu. Deialdi publiko bidez irabazi genuen, ordea, Madrilgo Udalaren sorkuntza garaikideko gunen independenteen laguntza, 2017an sortu zirenetik. Aurten berriro aurkeztu gara ea zer gertatzen den, baina esan dezagun, modu egonkorrean, ez dugu diru-laguntza izendunik urtero aurrekontu batekin abiatzeko. Izan ere, orain aurkeztu berri garen laguntza hori aurtengo abenduan ebatziko da, eta 2024rako da. Hau da, urtea amaitzen denean esanen digute emanen diguten ala ez. Orduan, konplexua da, unez une egokitzen joan behar dugu; gure programazioa itxia dago, baina malgutasun pixka batekin; gauza batzuk, agian, 2025erako planteatuta daude, eta 2025era iritsita, 2026ra eraman behar dira, ez direlako aurrekontuan sartzen eta ezin delako inola ere egokitu. Beraz, espazioak nolabaiteko malgutasuna behar du jarduera guztiak egin ahal izateko.

Fran:

Niri ere gustatuko litzaidake aipatzea zergatik aipatu dizuedan errizomaren filosofia; errizoma, lurpean eta isilean doan tuberkulua den heinean, bizitzarako aukera egokia den lekuan sortzen da. Eta badago zati bat ikusten dena, eta ikusten ez dena ere, eta ikusten ez den hori, agian, 10 edo 15 proiektu dira, argia inoiz ikusi ez dutenak; hori jendeak ere ez du ikusten. Baina izan dira fruiturik eman ez duten beste ekimen batzuk, aurrera ateratzea lortu ez dutenak.





Moderatzailea:

Kultura sortzeko modu berriez mintzatuko gara eta, horretarako, Paz Salcedo López dugu gurekin, El Navarrico kontserba enpresako hirugarren belaunaldikoa eta bertako erosketa arduraduna.

Gune horrek La Fábrica Vieja Kontserba Museoaren historiara hurbildu nahi gaitu. Museo eskualdeko kontserba-industriaren historia eta tradizioa zaintzeko zentroa da. Gustatuko litzaiguke tarte honetan museoaren proiektua kontatzea, baita oso deigarri egin zaigun zerbait ere, hau da, kontserben historian zehar emakumeek izan duten presentzia handia. Eta azpimarratzekoa da hasierako emakumeen presentzia handi hori eskulana zela, hau da, langileak, eta orain zu zauden lekura iritsi dira, zuzendaritza eta ardura postuetara. Zu gaztea zara, San Adrianen jaiotakoa, prestakuntza jaso, kanpoan lan egin, eta gero borondatez itzuli zinen zure lurraldearen aldeko lana egiten jarraitzeko eta orain museoan egiten ari dena kontatzeko eta dinamizatzeko.

Hitzaldia eman baino lehen, La Fábrica Vieja izeneko Kontserba Museoaren bideoa eman da



Kontserbatik museora: herri baten historia

PAZ SALCEDO LÓPEZEN

aurkezpena. El Navarrico kontserba-familiako erosketa-arduraduna eta hirugarren belaunaldia. La Fábrica Vieja—Museo de la Conserva.

Paz Salcedo López:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke bai antolatzaileei hemen egoten uzteagatik, bai zuen kultur teknikari guztiei, bereziki Laurari, antolatzen dituzuen zerbitzu guztien oso erabiltzaile leiala naizelako, eta herrietan jaiotzen garen pertsona askoren lehen leihatilatxoa zaretelako munduari begira. Beraz, mila esker, horrek benetan markatzen duelako.

Museoari dagokionez, hasteko eta bat, Kontserba Museo nola jaio zen hasiko naiz kontatzen edo zergatik jaio zen. Izan ere, bideoan ikusi duzue, kontserbak eragin

handia du San Adriango garapenean. Neurri batean, bi ibairen artean gaude-lako, Ebro eta Egaren artean, eta horrek, klimarekin batera, baratze pribilegi-atua izatea eragiten du. Soberakin hori guztia nolabait tratatzen hasi zen, eta 1880. urtetik, hau da, Maximo Muerza iritsi zenetik, kontserben lehen fabri-ka sortu zen. Kezka handi-handia zegoen San Adrianen, 90eko hamarkadako inportazioen ondorioz kontserba-fabrika asko desagertu egin zirelako eta, hori nolabait kontatu ezean, inork ez zuelako jakinen zer gertatu zen eta zer-gatik.



Museoa El Navarrico kontserba lantegi zaharrean dago eta hortik heldu zio izena La Fábrica Vieja (Lantegi Zaharra). Espazioa berrerabili dugu, hutsik ze-goien, pixka bat abandonatua zegoen hortxe herriaren erdian, espazio hau sortzeko. Hasieran, lantegiak ziren, gutxi gorabehera mekanizatuak. Oso gu-txi zeuden, eta eskulana eskatzen hasi ziren.

Orduan hasi zen emakumea industrian. Horrek benetako iraultza sortu zuen, ez bakarrik eskulan horren beharrak eraginda, eta lantegiak hazten ari zirela-ko, eta Gerra Zibilaren ondoren, gogortasun ekonomikoak eraginda familia asko ekin ziotelako eta beren negozioak sortu zituztelako, baizik eta emaku-meak lanean sartu izanak beste diru-iturri bat sortu zuelako, gizarte askoz toleranteagoa sortu zuelako... Beti esan izan da San Adrian desberdina zela. San Adrianen emakumeak desberdinak ziren, beste ikuspegi bat zuten, beste

bizitza bat zuten. Dantzetara joaten ziren, zinemara... Bakarrik zetozen. Pa-lentziatik edo beste leku batzuetatik zetozen emakume horietako asko haiek bakarrik etortzen ziren 15 edo 16 urterekin bizimodua ateratzera. Garai har-tan emakumeek gozatzen ez zuten beste independentzia mota bat zen. Fun-tsezko zutabea izan zen San Adrianek bizi izan zuen aldaketa sozial horretan.



Industria familiarrak ziren, San Adriangoak adibidez. Gainera, nire aitona-amonen kasuan enpresak beti nire aitonaren izena zeraman: Jose de Osoria SL. Beste garai bat zen. Baina benetan han aritutakoa amona izan zen, eta aitonak beste leku batzuetan lan egiten zuen bitartean, amona aritzen zen borrokan hornitzaileekin, dena prestatzen zuen poteratzeko; eta, aldi bere-an, laneko jardunaldi luze baino luzeago haiekin batera, etxean ere lanaldia egin behar zen, ez baitzegoen orain ustez egon beharko lukeen inplikazio hori. Hor ez naiz sartzen, baina beno, suposatzen da.

Bere garaian bizimodua ateratzeko abiarazi ziren negozio familiar horiek gaur egungo egoerara iritsi dira, eta askok hori gozatzen dugu. San Adrianen, unerik gorenean, 36 lantegi zeuden; hau da, 1900. urtean 840 biztanle zeu-den, eta 1930-1940. urterako, 2.400, eta, gero, berriro hazi zen, gaur egun ditugun 6.000 eta gehiagoraino. Familia barnean hasten diren industria hori-ek profesionalizatzen joan ziren, hazten joan ziren, beste industria mota ba-

tzuk sortu ziren inguruan, hala nola industria osagarriak, hau da, makinak, ontziak eta beste. Horrek guztiak eraginik da San Adrian gaur egun dena.



Guk museoa sortu genuenean, historia hori kontatzea zen helburua. Aurkitu duguna guztiz istorio desberdina izan da, guk kontatu beharrean, guri kontatu digutelako. Jende asko etorri da kontatzera nola bizi izan duten hori guztia, bere ikasketak zainzuriak bilduz ordaindu zituen jendea, etxea ordaindu zuen jendea... Hau da, norbait joaten zen lantegi handiago hauetara eta esaten zien, erosidazu etxea, eta nik ordainez zerbait ekarriko dizut, eta orduan, hainbeste kilo zainzuri ekarri, eta zor horretatik deskontatuko dugu. Istorio pila bat kontatu digute, baina, gainera, ohartu gara gehiagorako plataforma bat ere izan gaitezkeela. Kontatzeko eta entzuteko paper hori egiteaz gain, jarduera pila bat egiten ari gara.

Fabriken bigarren garai horrek, urrezko garai horrek, aldaketa sozial bat ere badu, zeren industria handienen artean pertsona jakin bat baitzegoen, eta merezi du esatea nor zen, Industrias Muerza. Ziur aski Bebe edo La Carretilla markak ezagunagoak egingo zaizkizue, biak ere San Adrianen sortutakoak. Tira, ba Fructuoso Muerzak, fabrika izugarri handitzeaz gain, hainbat zerbitzu sortu zituen: liburutegia, ekonomatoa, langileentzako haurtzaindegia... Hori, berez, iraultza bat da hitz egiten ari garen garaietarako. Gainera, bidaiak

antolatzen zituzten: jende asko etortzen da eta esaten dizu, hondartza ikusi nuen lehen aldia Muerzarekin edo Chisturekin izan zen, Kontxara autobuse-tan eramaten baitzituzten.



Horretaz guztiaz gain, orain nora joan nahi dugu, edo hobeki esan, nora eramaten gaituzte, nora joan nahi dugun baino gehiago? Museoko Gauak hasi gara egiten, Nafarroako hainbat enpresa ekarri ditugu; txistorra, patxarana, txokolatea... izan ditugu, enpresa mordoa etortzen da eta haien historia kontatzen digute pixka bat, kasu askotan gurearen oso antzekoa dena. Eta haien produktuekin dastaketak egiten ditugu, gureekin ere, eta kultura gastronomiko pixka bat sortzen ari gara ezaguna ez den eremu batean; nik uste dut hor ados egonen garela, hau da, gastronomia arloko ekimen asko izatea osalaritza pixka bat zaila dagoen honetan.

Jakina, bisitak egiten ditugu ikastetxeetarako eta beste edozein erakundetarako. Gainera, oso barregarria da, kontatu behar ditugun istorioetako asko bisitatzera etortzen zaizkigun haur horien adinean lanean hasitako jendeari dagozkiolako. Eta nola, nola lan egiten zutela? Ba bai, beste garai bat zen, ez zen eskolara joaten. Egoera pribilegiatua bizi dugula ematen du. orduan, horrek ere elkarriketa handia sortzen du haurrekin, eta harrotasun handia, San Adrianek nekazaritzako elikagaien industria asko duen herria izaten jarraitzen duelako, eta lan horiei askotan ez zaie ematen benetan duten bali-



balioa. Orduan haurrentzat ere harro egoteko modukoa da esatea, begira, hemendik zatoz eta zure gurasoak hori guztia bultzatzen ari dira.

Enpresen lan-jardunaldi asko izan ditugu, eta, bide batez, beren prestakuntza jardunaldiak izaten dituzte, bisita bat, aperitibo bat eta beste gauza asko. Jende asko etortzen da eta esaten digu, ah ez, nik ez nuen hau horrelakorik espero. Eta zer espero zenuen? Saiatu ginen istorioa dinamikoa egiten eta ikus-entzunezko eduki asko sartzen, eta saiatu gara nekazaritzan murgiltzen, guretzat oso garrantzitsua baita, azkenean produkturik gabe ez baitzen horrelako deus ere gertatuko.



Argazki hau urtero ikastetxearekin antolatzen dugun marrazki lehiaketa batekoa da. Haurrek etiketak diseinatu zituzte, eta denboraldiko lehen zainzuriak haien etiketekin etiketatzen dira, eta saltzen duguna eskolara bideratzen da. Orduan, hasieran, hasi ginenean, zainzuri berde asko zegoen, eta hura ez, ez, ez. Orain, laugarren urtean gaudenez, askoz ere gutxiago, bat ere ez esatearren, eta lasaitzeko modukoa da. Egia baita lehen askoz gehiago ikusten zela etxean, orain ez da hain ohikoa jendeak zainzuri freskoak kontsumitzea.

Diario Navarrarekin ere ekitaldiak egin ditugu: Impulsar. Bi presidente andre etorri dira, ikustera etorri zaizkigun lau kontseilari. Hainbat jardura ditugu eta ekimen berriak iristen zaizkigu: orain musika ekitaldiren bat, kontzertuak, egin ahal izatea ere aztertzen ari gara, dinamizatzeko eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko modua bilatzea. Oraingoz, pozik gaude izan dugunarekin eta, batez ere, elkarrizketa ireki horrekin, jendeak gauzak kontatu diezazkigun. Esan behar da, halaber, edukia ez datorrela soilik gure familietatik; etxean gauzak zituzten herriko jende askorengandik dator. Izan ere, museo bat prestatzen ari ginela entzun bezain laster, gugana etorri ziren: aizu, nik hau daukat; aizu, nik etiketak ditut, nik liburuak ditut. Bada jende askori deigarri egiten zaion liburu bat; funtsean, huraxe ikusi eta galdetzen dute: aizu, hori zer da? goian 4,50 jartzen duelako eta gero kilo laurden bat edo erdi bat

jartzen duelako... Lehenagoko kalkulagailu bat da. Hainbeste kilo hainbeste pezetatan, hau da eman behar didazuna, ez nauzu engainatuko. Jakina, ez zen gauza bera lehen geneukan ezagutza eta orain daukaguna. Hau da sortu duguna eta norantz goazen..





Kultura ESKURATZEKO modu berriak

DESMUSEA

Clara Harguinduey eta Daniel Pecharromán, Desmusea taldeko **zuzendarikideak,** talde artistikoa eta kultura-bitartekotza digitalekoa.

Clara eta Daniel gara, Desmuseakoak, eta kultur bitartekaritzak gaude kokatuak, kultur erakundeen eta publikoen arteko leku horretan ari garelako, eta tarteko leku horretan elkarriketarako eta ezagutza nahiz pentsamendu kritikoa transmititzeko espazioak sailatzen gara sortzen. Eta gainera, guk kultur bitartekaritza digitala egiten dugu, planteamendu horiek pentsamendu digitalaren bitartez bideratzen ditugulako, asko pentsatzen dugu erakunde birtualean, zer poetika eta zer politika egituratzen diren ekosistema horren bidez. Eta, halaber, internet ere lantzen dugu, bai materia gisa, bai hartan bizitzeko gogoia dugun lurralde gisa.

Remedios Zafra saiakeragileak, hain zuzen ere, museoak eta internet lotzen ditu, arlo sinbolikoarekin eta errealekin esperimentatzeko aukera ematen diguten fantasiako esparruak diren aldetik, eta gu kokapen horretan gaude pixka bat, hau da, museoak pentsamendua sortzeko espazioak izan daitezkeela ulertzen dugu.




Remedios Zafra esana du internet fantasiarako, arlo espekulatiborako eta irudimen erradikal horretarako lurraldea izan daitekeela. Gure ustez, museoak ere horixe ahalbidetzen ahal diguten espazioa dira. Gure iritziz, kultur bitartekaritzak zerikusia du bildumako piezak historikoki kokatzeaz haratago jo nahi duen praktikarekin. Gure ustez, izan ere, piezen arteko bitartekaritza-kontzeptu horiek informazio handia ematen ahal digu-



ten espazioa dira. Gure iritziz, kultur bitartekaritzak zerikusia du bildumako piezak historikoki kokatzeaz haratago jo nahi duen praktikarekin. Gure ustez, izan ere, piezen arteko bitartekaritza-kontzeptu horiek informazio handia ematen ahal digute eta piezak ulertzen lagundu, baina halako erreferenterik ez badugu, edo halako ezagutzarik ez badugu, agian ez gara gauza izanen bildumekiko lotura bat sortzeko.

Guretzat oso garrantzitsua da, eta uste dugu pertsona guztiek dutela museo-ko edozein bildumari lotzeko gaitasuna, edozein direlarik ere pieza hori sortu zen baldintza sozialei buruz dituzten ezagutzak. Horregatik saiatzen gara beste parametro batzuei balioa ematen dieten proiektuak bultzatzen, beste bilduma batzuekin lotzeko. Eta guk teknologiaren bidez eta birtualitatearen bidez egiten dugu.

Museoai berritasun handia eskatzen ari zaien honetan, badirudi museoek gero eta bilduma handiagoak izan behar dituztela; bada, gure iritziz, kultur bitartekaritza tresna egokia izan daiteke bildumaz aldatzen ez den museoa beti berritzailea izan dadin. Gu ez baikara beti pertsona berbera eta beti kon-



mediación cultural digital

- *prácticas presenciales desde el pensamiento tecnológico
- *prácticas presenciales intermediadas por tecnología
- *prácticas de mediación *online*

takizun berriak sor ditzakegu egonkorra den bilduma baten gainean. Eta horrelaxe ulertzen dugu guk bitartekaritza oro har, kultur bitartekaritza.

Dena dela, kultur bitartekaritza digitalaz ari garenean, errizoma ideia horri lotuta dauden pentsamendu esparru hori eta pentsaera horiek txertatzen dira, hau da, bestelako dinamikekin nabigatzen den artxibo baten ideari lotuta. Zehatz ez bada ere, kategorizazio bat saiatuko naiz egiten kultur bitartekaritzan egiten ditugun praktika motez: hiru formatu ditugu. Batetik, aretoan gailu teknologikoak erabiliz egiten diren praktikak, adibidez, gailu mugikorra erabiltzea bildumarekin konektatuko gaituzten tresna teknologiko jakin batzuetarako. Bestetik, teknologiarik ez duten praktikak, ez dute gailurik, baina pentsatzeko modu hori erabiltzen dutenak; gero adibide zehatzagoak ematen saiatuko naiz berariazko proiektuen bidez, Eta azkenik, online hutszeko proiektuak, pantailan soilik egiten direnak, eta instituzio fisikoa bisitatzeari helburu ez dutenak, baizik eta nabarmendu nahi dute instituzioak bere baitan bildua duen ezagutza horren guztiaren balioa, hau da, materialtasuna ez den guztiaren balioa, arlo ukiezinarena, instituzioak darabiltzan eta ibilaztzen dituen balio horien guztien balioa, bertan dauden obrez harata doazenak.

Bitartekaritza teknologikorik gabeko jarduera bat aipatzearren, adibidez ibilbide hau Irungo Gordailuan egin genuen, *Elementu guztiek har lezakete parte*. Biltegi bisitagarria da eta bertan euskal ondareari lotutako bilduma bat dago.



Lekua biltegi bat da, eta ez museo bat; piezak irizpide museografiko ortodoxekin bat ez datozen modu batean daude antolatuz, ez irizpide historiko eta kronologikoekin bat, baizik eta irizpide material eta dimentsional huts baten arabera daude antolatuz, pieza horien kontserbazioa ziurtatzeko. Orduan, bilduma hori Internetekin lotu nahi izan genuen, eta interneten, printzipio lineal eta kausalitatezko horiek balioa galtzen dute arlo errizomatikoarekin eta ausazkoarekin zerikusi handiagoa duten printzipioen aurrean. Orduan, espazio hori nabigatzailearen nozioetik bisitatze ariketa pèrfomatiko batzuk proposatu genituen. Interneteko nabigatzaile moduko bat bihurtzen gara, eta espazio hori arakutzen dugu eta hainbat keinu proposatzen ditugu, ondare horretan beste begirada batzuk pausatze. Adibidez, bilaketa motor gisa funtzionatzea proposatzen genien; orduan, termino batzuk ematen genizkien -adibidez, maitasuna, fedea edo mina-, eta pentsatu behar zuten biltegi horretako zer pieza itzuliko zuten, Google bezalako bilaketa motor bat balira.




Fisikoaren eta digitalaren arteko praktika hibrido gisa, adibidez, aipatuko dut Madrilgo Erkidegoko ikasleentzat egin genuen jarduera programa bat, Mataderon metabertsoen inguruan egon zen erakusketa bati lotuta. Metabertsoaren gaineko hainbat nozio aztertzen zituzten artistek eta artistentzat sortutako hainbat metabertso biltzen zituen erakusketa zen, hala nola identitatea, gorputza, jasangarritasuna, botere banaketa... Guk erakusketa bisitatzea proposatu genien, eta bisita horrek planteamendu eta hausnarketa kritiko batzuk eragitea, ondoren Mataderoko ingurunea azter zezaten, eta espazioan zehar QRak utzi genituen metabertso batzuetara sartzeko ate gisa, haiek sartu ahal izateko eta planteamendu horiekin lotutako eduki batzuk uzteko. Adibidez, ekologiarekin lotutako metabertso bat zegoen, eta proposatu genien Mataderoko espazioan zegoen naturari buruzko argazkiak uztea, edo Internetetik deskargatzen zuten 3Dko landareak sartzea... Orduan, dinamika *figital* bat da, arlo fisikoaren eta digitalaren artekoa, nolabait metabertsorako hurbilketa bat haiei emateko, ez soilik ikuspegi kritikotik, zeren argi baitago zer kritikatu handia dagoela, baizik eta espazio horien inguruan agentzia politiko bat emateko eta modu propositiboago batean ikusteko; oraintxe bertan eratzen ari diren ekosistema birtual horiek guztiek dituzten aukerak ikuste aldera.



Eta, azkenik, online testuinguruan zentzia baino ez duen proiektuaren adibide gisa, aspalditik gabiltza vitrin.as-en lanean, hau da, net.art proiektuen online galeria bat da. Net.art zer den ez dakitenentzat, Internetekin materia gisa garatzen diren praktika artistikoak dira, eta online praktika gisa soilik dute zentzia. Galeria bat eraikitzen ari gara, eta proiektu bakoitzak Espainiako lurraldeko museo bat jorratzen du. Orduan, museo horietara hurbiltzen gara, ikertzen ditugu eta proiektu bat aplikatzen saiatzen gara, eta proiektuan, nolabait, aukera poetiko batzuk antolatzen ditugu, elkarreragileak, museo hori birtualtasunean ulertzeko moduari buruzkoak. Guretzat ere badu zentzia, praktika pedagogikoa praktika artistiko gisa ulertzen saiatzen garelako. Praktika pedagogikoak ere prozesu batekin du zerikusia, emaitza artistiko bihurtzen den prozesu batekin, galeria horren bidez oso agerian gelditzen den bezala.

Galeria hori bisitatzea gonbidatzen zaituztegu. Eta proiektuetako bat Heriotza_Hands da, guk egindako lehen proiektua izan zen eta Bilboko Arte Ederren Museoak jorratzen du. Museoak, izan ere, bere bilduma iraunkorra alfabetikoki berrantolatzea erabaki zuen, bere 110. urteurrenaren karira, Kirmen Uribe artistaren laguntzarekin. Areto bakoitza letra batekin eta kontzeptu batekin zegoen lotua. A aretoa maitasunarekin zegoen lotua, B aretoa Bilbo-

rekin, C aretoa herritarrarekin, eta horrela, denak. Eta poetika museografiko hori bereziki estimulagarria iruditzen zitzaigun, baita kontzeptu horiek nola aldatzen ziren pentsatzea, nola artelanak esanahiaz aldatzen ziren, zeuden aretoaren izenburuaren arabera... Adibidez, Lucretia de Lucas Cranachen obra beti egon da H aretoan; hasiera batean Heriotza izenekoa, eta ondoren H aretoaren izena Heads and Hands izan zen, hau da, eskuak eta buruak. Orduan, nolabait areto horren izenburuak obra haietara hurbiltzeko genuen modua baldintzatzen zuen. Aretoari Heriotza deitzen zaionean, aretoari *eskuak eta buruak* deitzen zaionean ez bezala ikusten dugu obra; bat-batean, gure begirada mugitu egiten da, eta bereziki interesgarria iruditzen zitzaigun poetika bisual bat sortzen da. Eta, orduan, ideia hori web ingurunera nola egokitu pentsatuz, chatbot itxura hartzen duen proiektu bat garatu genuen. Txat orri bat da, eta online presentzia batekin hitz egin dezakegu. Nola sentitzen garen galdetzen digu, eta, zer erantzun ematen diogun, esaten ari gare-narekin lotuta dauden bildumako zatiekin erantzuten digu .



Asmoa da nolabait bilduma bat edo erakusketa moduko bat eraikitzea, elkar-rrizketaren intimitatetik sortzen dena; hizketaldi batetik, arlo testualetik, komisariotza-aukera horiek sortzea.

Nolabait, vitrin.as-en egiten duguna museoetara joatea da. Madrilgoak gara, orduan gure hiriaren zentraltasunetik pixka bat atera eta beste lurralde batzuetara hurbiltzen saiatzen gara. Eta geure buruari galdetzen diogu: museo

hau web orri bat balitz, zer forma izanen luke? Hori da pixka bat bilatzen saiatzen garena. Eta gure azken proiektuetako bat hemen egin genuen, Nafarroan, Browser-Based Ruins du izena, eta Ezprogi izeneko proiektu baten barnean egin genuen, egonaldi ibiltaria da eta udalerrriaren izena ere bada...



Egonaldi ibiltari hori egiten da udalerrria osatzen duten 12 herritan eta guk La Vizcaya Museoa birpentsatzeko gonbidapena jaso genuen. Etnografia-museo txiki bat da eta Ageza herrian dago. Lekuaren memoriaz mintzo den etnografia bilduma txiki bat da eta, vitrin.as-en ez dugu museo birtualaren ariketarik egin nahi, erregistratze-lanik egin nahi adibidez, ezta erakusketa gunearen erreplika birtualik egin nahi ere, baizik eta geure buruari saiatzen gara galdeztzen zerk bultzaturik egiten diren horrelako bildumak, zer zentzu duten eta nola konta genezake Interneti dagozkion ikus-entzunezko hizkuntza baten bidez.

Eta, kasu honetan, memoriaren eta identitatearen kontu honetan pentsatzen dugu. Ez dakit *metadatu* kontzeptua zer den ote dakizuen. Bai, ziur aski; baina ez dakitenentzat, metadatuak dira objektu digital guztiei lagun egiten dieten datuak. Adibidez, argazki bat, zuk argazki hori irekitzen duzunean, ba, argazki horrek duen formatua dago, adibidez, JPG; zenbat pisatzen duen, 5 mega, etab. Objektu digital horren identitatearen parte diren datu horiek


guztiak dira. Orduan, guk herri horretako historialari batek digitalizatutako bilduma hau bildu genuen eta metadatu horiek manipulatu eta modu kolektiboan egin ditugu. Orduan, webgunean sartzen zarenean, testu horiek editatu ditzakezu eta edozein gauza gehitu dezakezu, objektu hori izan zen horretatik edo fikziozko beste edozein kontakizunetik, eta irudia deskargatzen duzunean, irudia objektu digital horren parte izanen da. Oroimen horrek guztiak lagun egingen dio.

Ziur aski, museoa itxiko da, baina ariketa digital txiki horren bitartez nola-bait, saiatzen gara irudi horiek, bilduma digitalizatu horrek, aktibo jarrai dezan komunitatearen aldetik, ez bakarrik tokiko komunitatearen aldetik, baizik eta hemendik, gugandik, eta aktibo eta etengabeko zirkulazioan egon dadila. Oraintxe bertan, hurrengo irudian ikusten duzuen bezala, datu hau Bilzar honetatik editatu dugu.



Gure ustez, museo birtual batean pentsatzeak zerikusi handiagoa izanen luke horrekin 3Dko ekoizpen handi batekin baino, nahiz eta, orri nagusian sartuz gero, ikusiko duzue 3D eskaneatze nahiko pobre bat ere egin genuen, gailu mugikor batekin, baina emaitza itxurosoa da, nik uste. Proiektu hori ere partekatu nahi genizuen, gu ere beste nozio bat lantzen saiatzen baikara, hots, birtualtasun kokatua. Batzuetan pentsatzen dugu hodeia urrun dagoela, arrotza dela, eta argi dago ez dela horrela. Internetek forma du, materia du,

gorputzak ditu atzean, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu, hau da, bildumen inguruan komunitatea daudelako ideia lantzea .



Komunitateak aintzat harturik, nerabeentzat bereziki diseinatutako proiektu hau ekarri nahi izan dugu hona. 1517 Taldea da, Reina Sofia Museoko Komunitateen programan parte hartu zuena.

Programa honen xedea da Museotan egon ohi ez diren publikoak gonbidatzea; adibidez, nerabeak edo Reina Sofia Museoarekin hain lotuta ez dauden adinekoak, eta publiko horientzako programazio bat sortzea, museoa bisitatzeko ez ezik, nolabait huraxe bizitzeko ere. 2019an, Equipo 1517 taldea koordinatzera gonbidatu gintuzten, 15 eta 17 urte bitarteko nerabeentzat, eta ikasturte oso batean programazio bat egitera. Haiekin egon ginen. Nola egituratu dugu programa? Museo bat museo izateak zerk eragiten zuen geure buruari galdetuz. Museoaren eginkizun horietan pentsatzen dugu: kontserbazio eginkizuna, erakusketa eginkizuna, zabalkunde eginkizuna... eta nerabezaroari eta digitaltasunari begira saiatzen gara eginkizun horiek birpentsatzen. Ikusten ari zareten hau kontserbazio saioa izan zen. Bertan, arte garai-kideko museo batek kontserbazioari lotuta dituen erronka guztiez hitz egin genuen, eta ez dakigunez nola funtzionatuko duten bildumak dituen materialtasunak, ba, era berean, saiatu ginen instituzioak dituen erronka horiek solasean jartzen haien bilduma pertsonalek dituzten erronkekin; adibidez,


sare sozialetan sortzen dituzten bildumekin. Irudi artxiboak dira baina nerabeak ez dira haien jabe, baizik eta, agian, Instagram eta gisako enpresa handiak dira, eta pentsatu nola kontserbatuko dituzten artxibo horiek guztiak, dagoeneko sortzen ari den memoria hori guztia eta balioa ematea. Instagrameko iragazkiak kontserbatzeko tailer espekulatibo bat egin genuen, eta guk nahi baino haratago iraunen duen zerbaiten bidez egin genuen, plastikoaren bidez, alegia.

Perfomance bat artxiboaren bidez nola kontserbatzen den erronka bezala, pentsatuko dugu zer den Instagrameko iragazki bat, zer inplikazio dituen guretzat eta nola kontserbatu dezakegun Instagrameko iragazki bat izanen litzatekeenaren ideia hori; hots, dakizuenez, aurpegia manipulatzeko dizuten tresna horiek baitira, etab.

Urte batzuk geroago, 2022an, Equipo Motor koordinatzera gonbidatu gintuzten, Museoko Komunitateen programa horren barnean komunitateen komunitate bat zena. Aurreko komunitateetan parte hartu zuten pertsona guztiak gonbidatu zituzten, hau da, Equipo 1517, Equipo M (Adinekoen taldea) eta guztiak. Hura belaunaldien arteko komunitatea zen. Teknologiarekin lan egiten dugula esaten dugunean, nerabeekin lan egitera gonbidatzen gaituzte, baina guk uste dugu teknologiak orain denok zeharkatzen gaituela eta ezin dugula inor kanpoan utzi. Guretzat oso garrantzitsua da belaunaldien arteko talde horiekin lan egitea, eta, gainera, iruditzen zaigu ez dela soilik nerabeek adinekoei lagundu behar izatea teknologiarekin lan egiten dugunean, baizik eta adinekoek dituzten ezagutzak ere oso beharrezkoak direla eta belaunaldi gazteenei pasatu behar zaizkiela. Orduan, programa hau antolatu genuen, urte osoan zehar belaunaldien arteko talde horrekin landutakoa, eta, gainera, nolabait talde pribatiboa zenez, zeren aurretik komunitateetan parte hartu zuten pertsonak bakarrik baitzeuden gonbidatuta, ba gure helburua izan zen urte horretan eskuratuko genituen ezagutza guztiak, esperientzia guztiak, publikoari itzultzea.

Orduan, programa hori egituratu genuen, bilduma iraunkorraren berrantolaketa bisitatzeko, Vasos Comunicantes zuen izena eta zortzi episodiotan bidez zegoen egituratua. Museoak zortzi episodiotan oinarrituta antolatu zuen bere bilduma iraunkorra, eta episodio ideiak kontakizun posibleei buruz hitz egiten digu. Orduan, fikzio posibleen makina hau sortu genuen, eta saio ba-


koitzean hitz hauek ateratzen genituen, ideien glosario hau osatzen genuen, guztion iritziz ideia horiek bilduma definitzen baitzuten .




Orduan, tresna hau sortu genuen, glosario bat eratzeko ariketa kolektibo horren bidez, eta zuk hitz horietako hiru aukeratzeko badituzu, beste episodio posible bat itzultzen dizu, museoaren beste ibilbide posible bat; eta ibilbide horrek bildumako obrak jasotzeaz gain, bestelakoak ere jasotzen ditu, hala nola denok batera bizi izan ditugun memoria horiek, esperientzia horiek. Horrela, galdetzen zigutenean, guk nola egiten ote dugu web orri bat nik programatzen ez badakit; ba, urrats asko daude web orri bat sortzeko, eta eduki horiek guztiak, ezagutza horiek guztiak, ideia horiek guztiak, ba ez duzu koderik jakin behar horiek sortzeko. Proiektu birtual baten baterako sorkuntza kolektiboko prozesu oso baten icebergaurren punta bezalakoa da hau.

Hemen duzue komunitate honek Reina Sofia Museoan izandako esperientziaren inspiratutako fikzio berrien sortzaile hau, eta, gainera, webgune honetatik igaro diren pertsona guztien gainean sortu diren episodioak ikus ditzakezu.

Eta bilduma digitalizatuekin lan egiteko ideia hori, iruditzen zaigu erakundeek duten baliabide bat dela eta komunitateen zerbitzura jarri behar dela, ez soilik bisitetarako eta museo presentzialerako bisita bat eratzeko, baizik eta digitaltasunetik ere kontakizun berriak sor ditzakegu. Hau da, net.art proiektu




tuen edo proiektu digitalen sortzaileek ere baliabide horiek guztiak izan behar dituzte; Pradoko Museora obrak imitatzen doazen pintoreak dauden bezala, ba guk ere, artista digital gisa, bilduma horiek guztiak manipulatzen nahi baititugu. Eta proiektu bat sortu dugu, ikaskuntza kolektiboko talde bat, *Sin proyectar sombra* izenekoa, hots, Madrilgo udal museoetako bilduma digitalizatuetan interesa duten pertsona talde bat elkartzeko gara bilduma horiekin konektatzen saiatzeko. Dakizueenez, Madrilen, identitatea pixka bat kostatzen zaigu batzuetan, madrildarra izateak zer esan nahi duen jakitea eta topaguneak izatea.



Talde horren bidez saiatzen gara bilduma horiekin konektatzen eta, haietatik abiatuta, kontakizun berriak proposatzen. Kontakizunen bidez egiten dugu, hau da, katalogo digital horien bidez nabigatuz eta bilduma bat digitalizatzeko zer esan nahi duen pentsatuz. Eta Quinta del Sordo Sorkuntza garaikideko zentroan biltzen gara, bitartekaritza-egonaldi hori eman baitigu, bilduma digitalizatu horiek berraktibatze; beraz, ez dugu proiektu birtual handirik behar proposamen horiek guztiek balioa izan dezaten... Besterik gabe, agian, orain dagoenarekin, nabigatzeko modu berriak birpentsatu behar ditugu, haien bidez kontakizunak kontatzeko modu berriak.



Testuinguru horretan lan egiten dugu, eta guri oso estimulagarria iruditzen zaigu. Era berean, oso emankorra da, oraindik esperimendatzen eta probatzen jardutea zer aukera dauden erakunde fisikoaren eta digitalaren arteko zirrikitu horietan... Aukera asko instituzionaltasun berrietarako, demokratikoagoak, irekiagoak. Batzuetan pixka bat kostatzen zaigu erakundeei azaltzea horrelako proiektuetan inbertitzearen balioa. Baina, tira, guretzat bada go zer landu handia, eta, hortxe interesatzen zaigu ahalmen horiei buruzko gogoeta egiten segitzea, hau da, komunitatea nola sortu, museoa ulertzeko modu berriak nola sortu, eta begirada berriak nola sortu birtualtasunetik ekin.



Kultura KONTSUMITZEKO modu berriak

JAUME RIPOLL

Filminen sortzailekidea.

Azkena naizenez, eta neka-neka eginda egonen zaretenez hitzaldi sail luze-luzearen ondorioz, aski deigarria izanen den irudi batekin hasiko gara. Inor animatuko al da esatera zer filmez ari garen? Ba al dago inor? Hilabeteko harpidetza Filminera, asmatzen duenarentzat.



Hortxe esan dute, *Los cuentos de Canterbury*; beraz, hilabete doan Filminen. *Nola duzu izena, jauna? José Vicente, asmatu duzu.* Bitxia da, aurkezpen hau egiten dudanean, 20 urte pasatu ez dituztenen profilen artean, aski kostatzen zaie ikasleei zer film den asmatzea. Hortaz, *Los cuentos de Canterbury* hona ekarriz hasi nahi dut gaurko solasaldia. Pier Paolo Pasolinik egina, 70eko hamarkadaren bukaeran eta 80ko hamarkadaren hasieran Espainian 1.200.000etik gora lagunek zinetokian ikusitakoa. 37 milioi biztanleko herrialde batean, 1.000.000 bat ikuslek baino gehiagok ikusten zituzten Pasolini, Bergman, Rohmer, Costa-Gavras, Antonioni eta beste batzuen filmak. Jarri zuek nahi duzuen zuzendaria, kokatu 70eko urteen bukaeran eta 80ko urteen hasieran, eta 37 milioi biztanleko herrialdean, milioi erditik milioi batera bitarte ikusle joaten ziren zinetokietara film horiek ikustera. Non daude ikusle horiek? Galdu dira? Hemen ez daude denak, hemen batzuk daude; baina oraindik ere badaude, berritu dira edo ez dira berritu? Gaur, nik uste, horretaz mintzatzen saiatuko naiz zuekin, beste gai batzuen artean .



Gaurko solasaldiaren laburpena hemengo margolan hau izatea nahi dut, ziur aski zuetako askok ezagutzen duzuen: *Karnaba*, Fabritius pintore holandarren margolana, duela 370 urte hila 32 urte zituela, eta nire ustez, aski margolan adierazgarria da irudikatzeko nola sentitzen garen egun ikusleok kultur lanak ikusten ditugun ingurunean eta nola lan egiten dugun sare sozialetan. Nire iritziz, txosten txiki honen azalpenaren bukaera, nolabait zentzu handi samarra izanen du haren aipamena egiteak.



Guztiaren hasiera hemen dago: gastronomia baita ikusle gisa gertatzen ari zaigunaren guztiaren gakoa, eta era berean, zinema-plataformek, eta ez soi-

lik zinemakoek, hau da, kultur plataformek oro har, ikusleei eskaintzen dizkieten erantzunak. Lehenago, gozotegi batera joaten ginenean, gehienez jota pastel bat ordaintzeko dirua zenuen; orduan, gure aitek, amek, ordaintzen ziguten, eta pastel bat eskuratzen genuen. Denok begiratzen genuen, eta gehienez, bat erosten genuen eta, agian, igandean. Gaur egun, ez dugu pastel bat jaten, pastel guztiak baizik.



Ikusleok egoera hori dugu plataformen aurrean. Gaur egun, badugu idatzitako guztia, konposatu den guztia, grabazio guztiak, egin diren film guztiak, alde edo molde, bai eta serieak ere... Baina munduan gure aurretik izan diren guztien muga berbera dugu, hau da, bizitzaldi bat huraxe bizitzeko, bizitzaldi bat huraxe ikusteko. Eta kontu horrek, hau da, ikusteko dugunaren eta bizitzeko gelditzen zaigunaren arteko dilema horrek, halako tenkadura bat eragiten digu; ziur aski, zuei edota zuetako batzuei, baina oro har jende askori, gobernatzeko zaila zaion larritasun neketsu bat.

Egun, zinemazalea zinema-jalea da; seriezalea, serie-jalea. Orain, ez dugu ikusten, baizik eta ikusteko gelditzen zaiguna deskontatzen dugu. Eta jarrera horixe dute Filimin edo beste plataforma batzuetara etortzen diren ikusle askok.




Funtsean, irudi honetan dugun pertzepzio bera da eta, nik gustukoa dut hori honela definitzea: “museo handiko turistaren sindromea”. Hau Louvre da eta mundu guztia begiratzen ari da, zuek badakizue. Gioconda. Aurrean, berriz, Veroneseren *Kanako ezteiak* dago, hots, hamar metro bider bederatzi metroko margolana; inork ez dio jaramonik egiten. Ondoan, Rafaelen bi lan daude, Tizianoren hiru; eta zer esanik ez, Louvreko hirugarren solairua, zer ez dagoen han, Toussainten eta Géricaulten lanak, eta Louvrera joan bazarete, ikusiko duzue ia inoiz ez dagoela inor solairu horretan. Guk ez dugu Gioconda; Filminen ez dugu Gioconda; gehienez jota, Toussaint eta Géricaulten margolanak ditugu, Louvren goian daudenak, inor joaten ez den tokian.

Batek liburu argitaletxe bat badauka, ez du ere izanzen ziur aski jende guztia ikustera joaten den margolan hori. Eta nolabait, negozioari eusteko gaitasuna izaten segitu nahi badugu, pentsatu beharko dugu nola lortu Louvrera Gioconda ikustera doan jende horren zati bat hirugarren solairura igotzea gure lana ikustera. Sortzaileak bagara, pentsatu beharko dugu nola eraman jende hori haraino. Plataforma bagara, pentsatu ere beharko dugu nola eraman haraino. Zeren, oinarrian, “museo handiko turistaren sindromea” gertatzen baitzaigu leku batera joan eta badakigunean ez dugula behar besteko denborarik dena ikusteko. Eta egun osoa bagenu ere dena ikusteko, gure bisita azkenean baldintzatua, nekatua eta kutsatua gelditzen da, eta jakina, batek ezin du pasatu barrokotik errenazimendura, inpresionismora lasaitasu-

nez, edo antzinako Egiptora, dena ulertuko duela pentsatuta.


Gaur egun, gizartearen eragile nagusiak nagusiki bi polotan daude oinarrituta, nik uste: malenkonian eta berritasunean. Malenkonia, pentsatu ohi dut malenkonia munduan diru gehien mugiarazten duen legezko droga dela; malenkoniak diru-makineria izugarriak mugiarazten ditu, eta berritasunak ere bai. Eta Louvre bezalako leku bat irekitzen dugunean, zer ikusi esaten diguten huraxe ikusiko dugu. Badakit, ziur aski, jende guztiak ez duela hori egiten, ez horixe, baina jende gehien-gehienak bai. Eta egin behar duguna da – edota zenbaitetan zinemagintzak egin duen bide okerra, eta orain zinemaz mintzatuko naiz –, ba jende horri esan behar zaie: “*a, tuntunak zarete gero, margolan bat ikustera joaten zarete, eta kristal baten gainean dago, eta argazki bat egiten duzue eta ez duzue ulertzen; eta badago hori baino hobea den beste Da Vinci bat*”. Ikusleari ezjakina esatea ikusle hori galtzeko edo haren konfiantza galtzeko bide azkarrena da.

Konplize izan behar dugu; ez, ordea, irakasle. Jendeari irakaspenak emateko ideia horrekin, industria latino-espainiarrak publikoa baizik ez du galdu, publiko galera nabarmen etengabea, ikusleak nolabait sentitzen duelako azterketa egiten ari zaizkiola, hau edo hura nor den ez badaki, ba ezjakina sentitzen da, eta agian interesa pizten ahal dion hartatik urruntzen da.





Hau da mundu digitalean gaur egun erabiltzen den terminorik gorrotagarrietako bat. Zuetako askok badakizue, nik uste: Edukia. Ohartu zaitetze, liburuez mintzo garenean, liburuez mintzo gara, liburutegiez... Plataformetan, aldiz, edukiaz mintzatzen gara; ez filmez, ez serieez, ez film laburrez, ez luze- ez, ez dokumentalaz, ez ez-fikzioaz. Edukia: dena hor barnean. Gaur Diario de Navarrako kazetari batekin hizketan, hark esan dit, *ez, ez, edukia sortu behar dugu*. Zer esan nahi du edukia? Azkenean, edukia nire ustez zaratari dago lotua, ez-gogoetari, ikusten ditudan gauza askori, gauza batetik bestera pasatuta hartaz ohartu gabe.



Eta edukia, jakina, aditz bati dago lotua: kontsumitzeari. Eta kontsumitu aditza beste hitz bati dago lotua, beste aditz bati, engantxatu. Ziur, aunitzetan entzun duzuela: “a ez, ez dut serie hori ikusten, ikusteari utzi diot engantxatzen ez nauelako”. Kokaina, fentaniloa edo gisako zerbait balitz bezala. Serie-ek ez dute zertan engantxatu. Serie batzuk kolokan jarri nahi zaituzte, desero-oso sentiarazi nahi zaituzte, eta ziur aski, hasieran aspertu egingen zaituzte.

Ni uste dut, ikusle garen heinean, are gehiago aspertu behar garela. Nire ustez, asperdura sormenaren kapitulu pilotua da; orduantxe hasten da bat sortzaile izaten, egiazki aspertzen denean.

Eta jakinik egungo gizarteak termino horiek erabiltzen dituela ikusten dituen obrak baloratzeko, pentsatu behar dugu nola eman buelta kontu horri, hau da, nola irauli “engantxatzen ez banau, ez zait gustatzen” arazoa? Nik lehenago bideoklubak nituen eta, gogoan daukat, beti mostradorearen atzean nengoela, eta bazetorrela jendea gaueko 10etan, *Operacion Triunfo*, *Gran Hermano* zegoen egun haietako batean, edo Barçak jokatzen zuenean..., zer dakit nik, ez zegoen inor: leihatila, 50 euro. Eta norbait etorri, eta esaten zidan: *Jaume, zer duzu gaur ikusteko?* Eta film bat ematera nindoakionean, esaten zidan, *baina ez dadila europarra izan, aski arazo baitira bizitzan*. baze- goen ideia bat Europako zinemari buruz, hots, hura funtsean gaizki pasatzen zuen jende itsusiaren zinema zela. Horixe zen iruditeria kolektiboan, ikusle askoren iruditerian, Europako zinema mota. Ez da horrela jakina, baina nola- bait adierazgarria da ulertzea publiko batek horixe pentsatzen zuela eta, ikusle horienganaino iritsi nahi bagenuen, beste bide batzuk aurkitu behar genituela.

Gastronomiak egin du, literaturak ere bai, musikak ere bai, zinemak ez. Ba- tek janari japoniarra jan dezake, janari turkiarra jan dezake, filipinar batera joan daiteke jatera, ekuatortar batera... Zure lagunei esaten badiezu, *Ekua- dorko film bat ikusiko dugu, film turkiar bat*, denak lasterka aterako dira. Bat -batean mundu guztiak planak ditu gau horretan eta inor ez dago pelikula hori ikusteko prest. Hori, bitxia bada ere, gaur egun gertatzen da; nik Alaróko nire aitonari, Alaró Mallorca barnealdeko herri bat da; bada, hari esan izan banio berak 60 urte zituenean, 70 urte zituenean, *jan dezagun hegaluze gor- din bat*, zaplasteko ederra emanen zidan, eta esanen zidan: *hegaluzea zuze- nean ongi egina jarriko duzu, arrain gordina heriotza baita*. Gastronomian buelta eman diegu lehen aurreiritziz betetako gauzei, eta orain onartu eta ospatu egiten ditugu. Aniztasuna onartzen dugu, aniztasuna ospatzen dugu... Literaturan ere bai: Anagramako liburutegira joan zaitzek, Impedimenta-ra, Acantilado-ra, nahi duzuen lekura, eta ez dugu zuzendariaren nazionalitatea begiratzen. Musikan, Sibelius entzun dezakezu, Mahler entzun dezakezu, J Balvin entzun dezakezu, baina nekez ikusiko dut zinema kolonbiarra edo pu-

ertorricarra .

Puerto Ricoko musika, berriz, etengabe entzuten dut eta jende gazteak eten- gabe entzuten du. Haiek musikarekiko aurreiritzia galdu dute, baina zinema- rekikoa izaten segitzen dute. Beraz, zinemak arazo bat du, beste batzuek egin dituzten bideak nola gainditzten edo zeharkatzen dituen ikusi behar du.



Irudi hau ez da horrela, baina benetako istorio bat da. Pertsonaia baten isto- rioa da, Firmin Quintrat izeneko gizon batena. txantxetakoa ematen du Fir- min terminoa erabiltzeak, baina badago. Quintrat familiakoa zen, XX. men- dearen hasieran aberatsak zirenak; gurasoak hiltzen dira eta bi anaia geldit- zen dira. Eta Firmin Quintratek funtsean anaiari esaten dio: *begira, zuretzat familiako negozioen kudeaketa guztia eta nik diruaren erdia eramanez dut eta bizitza osoa emanen dut munduan zehar ibiltzen, ahalik eta kultura eta hizkuntza gehien aurkitzen. Dena den, bihar joanen naiz eta ez duzu nire ber- ri izanen hiltzen naizen arte. Ez dut argazkirik eginen, ez dut egunkaririk ida- tziko, ez dut margolanik margotuko. Nahi dudan gauza bakarra da nire begi- ak museo batean gordetzea, bizi izan dudanaren testigantza bakarra izanen baitira.*

Bitxia bada ere, Firmin Quintrat gaur egungo gizartearen kontrako adibidea izan liteke. Gaur egun, ikusten ari dena kontatzeko bizi da gizartea; ez, or- dea, hil arte zain egoteko, norbaitek ikusi duena konta dezan. Eta etengabe kontatze hori, Firmin Quintrat ez izatea, Firmin Quintraten antagonikoa iza-

tea baizik, ez da zalantzan jarri behar, ospatu egin behar da. Batzuetan amo- rru pixka bat ematen dit, *“irudiak partekatzen dira, filmak ekartzen dira...”*. Zoragarria da sareek sor dezaketen elkarriketa sozial mota hori. Halakoak ukatu beharrean, ospa ditzagun. Ni zinemazalea izan naiz Mallorcan, eta zi- nemazaleak ziren lagun batzuk izateko zortea izan dut, baina beste askok ez dute izan beren inguruan filmak erakusten ahal zizkien jenderik. Bada, gaur egun, sareak egotea, zinema horri buruz hitz egiten jarraitzeko kanalak ego- tea, hau da, gustuko duzun zinemari buruz, kezkatzen zaituen eta erakartzen zaituen zinemari buruz hitz egiteko kanalak egotea, hori ospatu behar dugu. Hau da, TikTok, Instagram, Facebook bera ere, X edo Twitter, Tinder edo Grindr, gaizkia direla pentsatzeko bide hori... inola ere ez. Publiko berria aur- kitzeko bide eta kanal ezin hobeak dira. Eta zinemari falta zaiona, gogoratu lehen irudia, publikoa da.



Nortasun krisi bat duenean, zinemak ia beti jorratu duen bideetako bat izan da gaiari dimentsio bat gehitzea. Ohartzen bazarete, telebistara iritsi zenean, zinemak dimentsio bat gehitzea erabaki zuen. Hori da Hitchcocken *Crimen Perfecto*, baina *Los Crímenes del Museo de Cera* ere aipa nezakeen, hots, Vincent Priceren filma, non hiru dimentsio ere bazeuden. Telebistara iritsi zen, arazo berri bat. VHSra iritsi zinenean, zer egin zenuen zinemak? Telebis- tara iritsi zenean egin zuen gauza bera, beste dimentsio berri bat: *Tiburón*, *Viernes 13*, beldurrezko filmak, *Pesadilla en Elm Street*... hiru dimentsiotan. Internet iritsi zenean, zer egin zuen zinemak? Dimentsio berria. Hiru kasue-

tan, telebistarekin, VHSarekin eta Internetekin, dimentsio estra horren bizitza nahiko laburra izan zen. Zergatik? Azken finean, hiru dimentsioek indarraldi mugatua dutelako, hainbat arrazoi direla medio.

Bata *lock-in* deritzon teoria da. Funtsean, kontzeptu globaleko akats bat da: betaurrekoek pertsonalak izan behar dute, eta betaurrekoak dituenak eta betaurrekoak gainean jartzen dituenak buruko min izugarria du, ezta *Jägermeisterrekin* ere. Beraz, ideia da horrek ez duela funtzionatzen. Bi, betaurrekoak etxe ingurunean desastre hutsa dira: jendeak, telebistak erosten dituzenean, Joko Olinpikoetan, Munduko Futbol Txapelketetan eta Eurokopian erosten ditu. Ideia hori dago oraindik munduan: ar menperatzaileak telebista oso handia partekatu nahi du lagunekin, edonoren partidua ikusteko. Hala da. Hartu diskurtsoa nahi duzuen bezala, baina horixe gertatzen da .



Zer gertatzen da? Txinako Olinpiadetan hiru dimentsioak erabili zirenean, konturatu ziren jendea kiroletan oso kontserbadorea dela etxean. Betiko plano bera nahi du, betiko bi dimentsioekin. Orduan, 3D horiek, azkenean, probatu egin ziren, ESPNk erabili zuen, eta ez zuen funtzionatu; eta zer esan etxeko erreproduzitzaileen hiru dimentsiotako filmei buruz, zeinetan frustrazio hori ere bazegoen: zuk etxean hiru betaurreko zenituen, bost lagun etortzen ziren, eta porroak balira bezala amaitzen zenuen, betaurrekoak elkarri pasatuta, asko jota filmaren bost minutu ikusteko, hiru dimentsiotan, inola-

ko zentzurik gabe. Sonyk alimaleko inbertsioa egin arren, estudioek alimaleko inbertsioa egin arren, Avatarrek eta Harry Potterrek arrakasta izan arren, gaur egun ez da inor hiru dimentsioez oroitzen, Appleko jendea izan ezik, eta pentsatu nahi du hiru dimentsioek porrot egin zuten lekuan orain 3.000 euro balio duten betaurrekoek funtzionatuko dutela, eta sekulako burua uzten dizute zuzenean, asozial ikaragarria iruditzeraino. Hori da kontzeptua.

Wisława Szymborska poetak zioen heriotza beti iristen dela instant batez atzeraturik. Nik heriotzaren ordeztokizuna jartzen dut. Batek pentsatzen badu 2000. urteez hitz egiten zuten filmez, *Regreso al futuro*, *Blade Runner*... Gure oraina ez da 2000 urteak proiektatu zituztenek imajinatu zuten oraina edo etorkizuna bezain distopikoa. Baina ez da beharrezkoa Wells zuzendariarengana edo 70, 60, 80eko hamarkadako zinemara joatea. Izan ere, zenbat aldiz esan digute Googleren betaurrekoek mundua aldatuko zutela? Duela 10 urte betaurrekoak iritsi behar ziren, eta gauza asko iritsi dira, gerrak, pandemiak eta beste gauza asko, baina betaurrekoak oraindik ez dira agertu gure egunerokoan. Telefono mugikorren etorrerarekin film laburrek inoiz baino bizitza handiagoa izanen zutela, presentzia handiagoa. Agian zuek ez zarete oroituko, baina mugikorrak bideoa erreproduzitzeko gai izaten hasi zirenean -Espainian, Amenaren garaiaz ari gara, eta jada bat ere geratzen ez den marka horiez-, marka guztiak hasi ziren film laburraren aldeko apustu sendoa egiten zuzen-zuzenean. Haiek uste izan zutelako erabiltzaileak, bezeroak, bideo laburrak ikusiko zituela mugikorrarekin. Eta bideo laburrak ikusi nahi ditu bai. Baina ez zituen ikusi nahi ezagutzen ez zuen jendearen fikziozko bideo laburrak.

Eta hemen beste hausnarketa garrantzitsu batzuk daude. Oparotasun une batean, zertara jotzen du? Berritasunera eta nostalgiara. Eta gaur egun jendeak bideo horiek ikustera jotzen du: Twitch zuzenean, bideo birala zuzenean, edo lehendik ezagutzen zuen bideoklipa edo artxiboa. Eztabaida bat dago, bi ordu egon gintezke eztabaidatzen adimen artifizialak zinemaren industrian eta, jakina, gizartean oro har, izanen duen eraginari buruz. Eta horrek solasaldi baterako emanen luke. Pozik gelditzen bazarete, datorren urtean itzul naiteke, eta AAK ikus-entzunezkoetan izanen dituen eragin argiei buruzko hitzaldi bat eginen dugu. Nik uste dut ikusiko dugun gauzetako bat, supermerkatu batera joaten garenean bio produktuak ikusten ditugun bezala, eta

eta batek pentsatzen du produktu hori osasuntsuagoa dela, eta bio orburu hori, ardo organikoa eta abar erosi nahi izaten dugun bezala, ba % 100 adimen artifiziala erabili gabeko filmak izanen ditugula. Giza filmak % 100, gure etorkizunaren bio-a izanen dena. Orduan hori, mehatxu gisa pentsatu beharrean, pentsa dezagun aukera gisa .

Ezagutzen duzue burbuila-iragazkia terminoa? Burbuila-iragazkia, funtsean, hemengo hau da. Hori guztia Internet da:



Eta badakizue, hau zuen Internet da edo gure Internet:



Zer gertatzen da? Alimaleko oparotasuna dagoen ingurune batean, imajinatu ezazue gomendatzen digutena soilik gelditzen dela. Internetera ez goaz bilatzera, aurkitzera baizik; eta kontzeptu guztiz desberdina da. Googlen hitz batzuk sartzen dituzunean, ez duzu Googleren bosgarren orrira joan nahi emaitza aurkitzeko; emaitza lehenengo lauzpabost sarreretan egotea nahi duzu. Beraz, ez goaz bilatzera, aurkitzera baizik. Eta bakarrik ezer deskubritu dezakegu, galtzeko prest bagaude. Eta ingurune horretan, Internetek ez du sustatzen galtzeko prest egotea. Jendea denbora asko pasatzen ari da TikTok, Instagram, El País edo El Diario Vasco-n, berdin zait. Baina jendeak ez du denbora asko ematen hainbat orrialdetan nabigatzen, ea gaur zein orrialde aurkitzen dudana ikusteko. Internet ez da sortu orriak, plataformak edo dena delakoak deskubritzeko. Eta funtsean, bilaketa algoritmiko baten bidez funtzionatzen du, eta algoritmoa errepikapena da, ez da deus zalantzan jartzea. Algoritmoa gustatzen zaigunaren erresonantzia-kaxa bat da. Eta, algoritmoaren eraginez, gure mundua gero eta txikiagoa da; mundua zalantzan jarri beharrean, huraxe berretsi egiten duelako; eta horrek gauza asko eragiten ditu gizarte mailan, ez dugu politikaz hitz eginen orain, baina uste dut garrantzitsua dela ingurune kulturalen eta ingurune zinematografikoan galdera egitea. Nola eragiten dio algoritmoak zinemaren industriari? Nola eragiten dio algoritmoak ikuslearen gogamenari?

[Ikus dezagun bideo hau 21:33 minutuan:](#)



“Zuen artean % 3k baino gutxiagok liburuak irakurtzen dituzuelako. Zuen artean % 15ek baino gutxiagok egunkariak irakurtzen dituzuelako. Ezagutzen duzuen errealitate bakarra telebistan ikusten duzuen delako. Gaur egun, belaunaldi oso batek telebistan ikusten duena besterik ez daki. Telebista ebanjelioa da, errebelazio gorena. Telebistak, izan ere, presidenteak, aita santuak eta lehen ministroak sortu edo suntsitu ditzake. Mundu ateo honetako indarrak izugarriena da. Gaixoak gu! hura esku okerretan erortzen bada. Beraz, itzali telebista. Itzal ezazue oraintxe bertan. Itzali eta ez piztu berriro. Itzali nik esaldi hau amaitu baino lehen. Itzali ”.

Film hau *Network* da. Espainian, *Network*, *un mundo implacable* izenburua-rekin estreinatu zen. Sidney Lumetek zuzendua, Paddy Chayefskyk idatzia. Paddy Chayefsky gutxi idatzi zuen gidoilari bat da, gazte hil zen, eta, funtsean, Aaron Sorkinek haren eragina jaso zuen edo harengandik jaso zituen ideia guztiak; ziurrenik zuetako askok ezagutuko duzue *El lado Oeste de la Casa Blanca* eta beste telesail ospetsu batzuegatik. Nolanahi ere, *Network*-kera itzuliz, klip hau partekatu dut, *Network*-en laburpen hau. Film honen bidez, Peter Finch-ek, hemen ikusten duzuen aktoreak, hil osteko Oscar saria irabazi zuen, Oscar saria jaso aurretik hil baitzen. Faye Dunaway eta William Holden ere aritu ziren. Espainian erabateko arrakasta izan zuen leihatilan... eta *Taxi driver*-en urtea izan zen. Bideo hau gaur egungo eszena bat izan liteke. Funtsean, gaur hizpide ditugun gaiei buruz hitz egiten du. Aldatu telebista sare sozialen ordeztu, eta predikatzailerik diskurtso mota hori gaur egun aplikatu daiteke. Izan ere, *Network* eskuin muturraz, armez, petrolioaren krisiaz, Errusiarekiko gatazkaz hitz egiten diguten diskurtsoz josita dago, eta gaur egun aplikatu eta ulertu daitezke.

Network buruz ari naiz algoritmoa zalantzan jartzen dugun unean, zeren algoritmo batek ez dizulako inoiz ere gomendatuko 70eko hamarkadako film bat, zu 2020-2023 bitarteko filmak ikusten ari bazara. Nahiz eta agian zuri, ikusle zaren aldetik, garrantzitsua iruditzen ahal zaizun horrelako film bat ikustea, gauzak zalantzan jartzen dizkizulako eta gaur egun gertatzen denarekin nolabaiteko lotura sentitu dezakezulako. Eta hemen dator nire ustez mahai gainean jartzea garrantzitsua den beste kontzeptu bat, nobedadearena. Hau da, noiz uzten dio film batek nobedade izateari? *Network* nobeda-

dea da ala ez? *Network*-ek 50 urte ditu. Nobedadea izan ote liteke? Ikusi ez dugun guztia al da nobedadea?

Gogoratzen dut bideoklubean nengoenean, jendea etortzen zela eta esaten zidala: *ez, film berri bat nahi dut*. Eta bi aste zituen film bat ematen zenionean, halako aurpegia jarrita begiratzen zizuten, esanez, *ez, ez, berria*. Pizza bero bat balitz bezala ikusten duzu. Oraingo gauza berri bat izan behar du. Eta sentsazio hori, berritasunaren bokazio hori, nik uste dut nolabait zalantzan jartzen lortu dugula Filminen bitartez. Eta ikustea publiko asko dagoela, eta publiko gazte asko, klasikoak ikusten dituen. Beste gauza bat jarri nahi dut zalantzan, amorru handi samarra ematen baitit, hots, gazteak etengabe gaitzesten aritzea. Gazteak nahasita daudelako ideia hori, pazientziarik ez dutelako ideia, nagiak direlako ideia hori... Gazteak, edo Filminen dauzkagun gazte asko jakin-nahiak dira. Eta jakin-min gisako horrek, jakin-min handi horrek, eraginik, adibidez, gazteek hau bezalako filmak aurkitzen dituzte.



Begiratzen badugu berria ez den zinemak zer pisu duen gainerako plataformetan, edo hobeki esan, berritzaile sumatzen ez den zinemak duen pisua, ikusiko duzue funtsean kolore gorrienak ez diren zatiari dagokiola. Eskuinalderantzko alde hori klasikoztat joko litzateke, kontzeptu klasikoak ere nola ulertzen dugun... Batzuek diote 90eko hamarkadako film bat klasikoak dela, beste batzuek *Tiburón* klasikoak dela, beste batzuek *Potemkin* korazatua dela soilik klasikoak... Azkenean, bi ordu egon litezke eztabaidatzen noiz amaitzen den

zinema klasikoa: 60. urtean, 70eko iraultzarekin, edo... Batzuek diote *Fight Club* edo *El club de la lucha* klasikoa dela, 25 urte dituelako. Orain ez dugu hori eztabaidatuko.

Baina edonola ere, hau da pixka bat gainontzeko plataformek nola zokoratu duten zinema mota hori, Filminekin alderatuta. Eta gure arrakastaren zati bat, baina baita beste fenomeno kultural batzuen arrakasta ere, izan da ulertu dugula publiko gazte handia dagoela, publiko berri handia, eta ez soilik publiko berria, zinema klasikoarekin nolabaiteko lotura zuzena sentitzen duena. Eta orduan, batzuek mugak ikusten dituzten lekuan, beste batzuek edo batzuok aukerak ikusten ditugu.



Eta hemen dator nire ustez giltzarria den hirugarren elementua. Lehenago burbuila-iragazkiaz mintzatu naiz, algoritmoa erresonantzia-kutxa dela, algoritmoa ukatzeaz... Nik ez dakit zuek, pentsatzen dut batzuek algoritmoekin lan egiten duzuela, gomendioekin, gomendio-kudeatzaileekin. Gomendio-kudeatzailea, jakina, baliagarria da. Plataforma global bat izan nahi baduzu, eta plataforma horrek askotariko katalogoa badu, oso heterogeneoa, mekanismoak edo bideak bilatu behar dituzu ikuslea etengabe zapuztuta ez sentitzeko. Eta algoritmoak, nolabait, ikuslearen frustrazio-arriskuak murrizten ditu. Bada japonierazko termino bat, baina orain ez naiz oroitzen zein den, barkaidazue, hots, apalategien eta liburuaren artean luzaroan paseatzen ibiltzearen ideia hori. Bat liburu-denda batera doa eta orduak eman ditzake paseatzen. Eta han bertan ezagutzaren bat eskuratzen dugu, ezta? Hara joan

eta liburu bat hartu eta kontrazala irakurtzen duzunean, agian orrialde batzuk irakurtzen dituzu, poema bat, zergatik ez? Eta agian deus erosi gabe alde eginen duzu liburu-dendatik, baina ez duzu sentitzen denbora galdu duzunik. Sentsazio hori, hau da, hor egon naiz eta gauzak ikusi ditut. Parketa duten liburu-dendez ari gara, gauza eroso batez; ez gara argi hotz desatsegina duen liburu-denda batez ari. Pentsatzen dut denok dakigula zertaz ari naizen

Askotan gertatzen da plataforma globaletan nolabaiteko izua dagoela ikusleok filma aukeratzeko behar izaten dugun denboraz, hau da, filma aukeratzeko ematen dugun denboraz. Hitz batez, zalantza tarte horretaz. Izan ere, pentsatzen dugu ikusle zalantzati hori galdu egin dezakegula. Eta gure kasuan bestelakoa pentsatzen dugu: ikusleak denbora asko pasatzen badu katalogoan nabigatzen, ba ontzat ematen dugu eta zoragarria da hura nabigatzen ari tzea, agian bildumak begiratzen dituelako, agian filmak gordetzen dituelako geroago ikusteko, agian film gehiago dituelako ikusteko bizitzan ikusiko dituenen ondotik ikusteko. Nolabait, hori ona da eta ideia horri heltzen diogu. Izan ere, plataforma bat eraiki dugu, liburu-denda bat eraikitzen den bezala, ba, hartan paseatzeko, eta hori zerbait aberasgarria izan dadin, ez denbora galtzen ibiltzeko hurrengo filma ikustera eramaneen nauen objektua aurkitu arte.

Eta hemen dator algoritmoaren eta Big Dataren arteko bereizketa, beharrezkoa. Algoritmoa, lehen esan dudana bezala, ingurune matematikoei pertsonalizatutako gomendioa da, eredu eta parametro jakin batzuetatik abiatuta film bat gomendatzera garamatzana. Big Data desberdina da. Big Data da, guk datuak ditugu, noski, eta aztertu egiten ditugu, eta datuen analitika ondo batzuk aterako ditugu. Eta horrek ez du zerikusirik algoritmoarekin: begira, ondorioak guk aterako ditugu eta guk erabakiko dugu Israel eta Gazaren arteko krisiaren kanal hori, edo Errusiak Ukraina inbaditzearen kanala, hitz egin nahi duzuen edozein gai, zer film ikusten ari zareten gehiago, zer film ikusten ari zareten gutxiago, zer gomendatu dezakegun, nola gomendatu dezakegun. Bestalde, adibidez, film labur bat filmatzen ari den eta trailer bat YouTube-ra edo Vimeora igotzen ari den mutiko bat, Big Datak trailer hori non ikusten ari den jakiteko aukera emango dio: Iruñean gehiago ikusten ari den edo Cadizen gehiago ikusten ari den; trailerra osorik ikusten ari den edo 5 segundoren buruan jendeak itzaltzen duen aspergarria zaiolako... Lehen ez


zegoen informazio mota hori guztia eskura dago orain eta garrantzitsua da. Big Data, halaber, aukera eman diezaioke negozio txiki bati oso diru gutxirekin publiko handiago batengana iristeko, sareetan segmentatutako publizitatearen bidez; konplexua eman dezake, baina, azken batean, informazio jakin bat duzunean, hori ez da zaila



Hau lehen Kevin Spacey izenarekin ezagutzen zen aktorea zen. Serie hori filmatzen izan zuen bere azken goren aldia: *House of Cards*. *House of Cards* ikusi duzue? *House of Cards* Netflixek ekoiztutako bigarren seriea izan zen, Netflixek ondutako bigarren originala. Eta algoritmoaren asmakizun gisa saldu zen. Netflixek *House of Cards* estreinatu zuenean esan zuen, *algoritmoari esker House of Cards gisako serie bat ekoiztu dugu*. Eta prentsak, une hartan, Netflixek ateratzen zuen edozein istorio erosten zuen, eta prentsak esan zuen: *bai, bai, eros dezagun ideia hori*. *House of Cards*, badakizue ez dela serie original bat. 90eko hamarkadako serie britainiar ikusienetako baten remake-a da, eta, izan ere, John Mayerren kanpainan, Erresuma Batuko hauteskunde orokorretan, kanpaina hein batean gelditzen zen *House of Cards*en asteko atala ikusteko. BBCKo serie bat izan zen, eta hiru denboraldi izan zituen.

Orduan, pentsa ezazue serie britainiar arrakastatsu baten remake-a den serie bat, thriller generokoa, eta zineman lan egiten dugun guztiok badakigu thrillerra dela, genero erotikoarekin batera, hobekien funtzionatzen duen

generoa. Thrillerrak filmatzeagatik ezaguna den gizon batek, sortzaile batek, zuzendua: David Fincher, *Seveneko* zuzendaria; protagonista nagusia *Sospechosos habituales* thrillerra eginez Oscar bat irabazi zuen aktore bat da. Eta 120 milioi dolarreko aurrekontuarekin. Egiazki algoritmoak behar badituzu hori arrakastatsua izanen dela sinesteko, *ipso facto* kaleratu behar duzu plataformako sormen eta ekoizpen sail osoa.



Algoritmo batek inoiz ez dizu esanen arrakastatsua izanen denik Cannesko Zinemaldian porrot egitetik datorren eta lurra jo duen idazle burusoil baten film bat. Algoritmo batek ez dizu inoiz esanen arrakastatsua izanen denik moja poloniarren gaineko *Ida* izeneko film bat, lau herenetan grabatua. Ez dago ez, ez esaten duen algoritmorik; joera bat dago azpiko merkatuan, eta badakigu Espainiak moja poloniarren filmak lau herenetan ikusi nahi dituela. Hori ez da gertatzen. Eta hor dago sorpresa, hor dago ofizioaren alde kitzikagarria, baina baita gurea ere ikusle gisa; ikusle gisa erakusten duguna da inoiz ez dugula errepikapenik nahi. Edo *La gran belleza*aren adibideak pentsarazten digu orain, 2024ko Cannesko Zinemaldiaren programazioa iragarria den honetan eta Espainiako banatzaile guztiok bertara joanen garenez filmak erosteko irrikaz, film horiek bilatuko ditugula: film berezi desberdinak, alegia.



Bereziak, bestelakoak, manantropo. Bitxiak, arraroak izan daitezela, baina ez hainbesterako. Bitxiak bai, baina amaiera zoriontsukoak. Bitxiak izan daitezela eta Rafaela Carráren musikarekin. Bitxiak izatea, baina Erroman gertatzea. Bitxiak izatea, baina pixka bat aberatsak. Bide hori bilatzen dugu pixka bat.

Gogoan daukat *Anatomía de una caída* filma banatu dugula beste batzuekin batera. Filmak Urrezko Palmondoa irabazi zuen Cannesen, eta guk gidoiaren gaineko filma erosi genuen duela urte eta erdi, 23ko urtarrilean. Ezer ikusi gabe, bi filmazio argazki bakarrik nituen, eta erdi bana erosi genuen Elastica Films zinema banatzailearekin, oso garestia zelako, eta garestiak diren gauzak erdi bana erosten dira. Eta gogoan dut Cannesen ikusi genuenean, filmak bi ordu eta hogeiraute baitzuen. Esana ziguten luzea zela. Zeure artean esaten duzu, epaiketei buruzkoa da, komertziala izanen da. Eta noski, ikusi genuen eta esan genuen, wow, agian ordu erdi gutxiagorekin jendeak ikusiko du. izuturik atera ginen banatzaileentzat saio pribatu bat egin zuten egunean; esan genuen, horrek ez du inoiz funtzionatuko, oso luzea delako, ez daki-gu erruduna edo errugabea den, ez dakit inork gogoko ote duen, bi hizkuntza dira, nola bikoiztuko dugu, dena arazoak ziren. Sei hilabete geroago, zortzi hilabete geroago, *Anatomía de una caída* izan da azken zazpi urtean gehien ikusi den film europarra. Laurehun mila ikuslek ikusi dute Espainian, eta, beraz, guri ere, hau da, bizitza osoa horretan lanean daramagunoi ere, erakutsi digu zeinen oker genbiltzan, publiko guztiak zerbait motx eta digerigarria nahi zuelakoan. Erronkak ere gustatzen zaizkigu.



Zati hau amaitzen joateko, nola eman dugu guk erantzuna? Nola eraiki dugu museo hori jendea goiko solairuraino irits dadila saiatzeko, arestian aipatu dugun Louvreko solairuraino? Lehen, garrantzitsuena, lankidetzan. Negozio bat muntatzen duzunean, negozio hori ezagutzera emateko konplizeak bilatzen dituzu. Konplizeak izan daitezke nik ile-apaindegi bat izatea, eta aurreko hotelarekin hitz egiten dut bezeroak niregana bidaltzeko. Hori da konplizitatea. Konplizea da plataforma bat duzunean eta dirurik ez duzunean, eta zu baino ezagunagoak diren komunikabideekin hitz egiten duzu baterako harpidetzak muntatzeko; konplizea da zuzendari gaztea zarenean, eta preskriptorea den norbaitekin hitz egiten duzu hark nor zaren ezagutzera emateko. Horrelako konplizitateak dira beharrezkoak. Zorionez, Espainiako zinemagintza edo Espainiako ekosistema kulturala oparoa da konplizitateetan. Inbidiaz hitz egiteko joera handia dago; niri izugarri gustatzen zait *Showgirls*, baina uste dut Espainiako kultur munduan uste baino *Showgirl* gutxiago daude eta konplizitate gehiago.

Bigarren elementua da besteak baino lehenago hastea. Besteak baino lehenago hastea oso ongi geratzen da beti biografietan eta artikuluetan, baina nahiko gaizki emaitzen kontuan. Funtsean, besteak baino lehenago hasten zarenean, besteak baino askoz gehiago okertzen zara, ez baituzu bide-orririk. Bide-orririk ez daukazunean, oihanean barna zabiltza aihotzarekin bidea eginenez, eta ez dakizu amildegirik dagoen, lehoi bat dagoen, eltxo bat eta zureak egin ote duen, edo ez dakit oso ongi zer gertatzen den. Filminek hamar urte eman zituen dirua galtzen, hau da, emaitza-kontu negatiboarekin, eta hamar urtez, hainbat bazkidek dirua jarri zuten urtero, Filmin izeneko konpainia itxi ez zedin edo eutsi ziezaion. Bazkideen artean, Golem aipatu behar da, Nafarroako konpainia bat eta, beraz, bidezkoa da gogoratzea eta eskertzea. Hori guztia gobernu autonomiko eta nazionalak bai zinema bai pirateriarendako legezko irtenbide oroi mespretxatzen zuten garaian; noiz eta Europar Batasunak eta harpidedunek bakarrik jardun zezaketenean gure alde.



Beste elementu garrantzitsua da nola lortu oparotasunari aurre egitea. Eta oparotasunak gauza asko esan nahi du: bat, eskaintza oparotasuna. Filmin dut bai, baina baditut Netflix, Prime, Max, Disney, Movistar, eta horri TikTok, Twitch, Facebook, nire bizitza pertsonala, seme-alabak, zinema, bidaiak... eta beste gauza asko erantsi behar zaizkio. Horrenbestez, oparotasun ekosistema horretan guztian, nola egiten diogu aurre horri guztiorri? Guk astean 12 film estreinatzen ditugu; beraz, gu oparotasunaren sortzaileak gara. Eta aski errepikatu ohi da filmak soberan daudela eta ikusleak falta direla dioen mantra hori, baina nork esaten dio zuzendariari bere filma ez zuzentzeko?

T.S. Eliot poetaren pasadizo oso on bat dago. T.S. Eliot ere editorea zen Faber argitaletxe ingelesean, eta T.S. Elioti eskuizkribuak bidaltzen zizkioten argitaratzeko, eta idazle oso astun batek esaten zion: “Eliot jauna, zergatik ez duzu nirea argitaratzen? Zergatik ez duzu nirea argitaratzen?” Eta Eliot nazkatuta zegoenez jaun horrek urtez urte eskuizkribua bidaltzeaz, honela erantzun zion, eta gutuna gorde da: “Begira, niri ordaindu egiten didate gustatzen zaidana argitaratzeko eta zu bezalako jendeak argitaratzea eragozteko”. Horrelako esaldiak gaur egun nahiko deserosoak dira eta ez dira askotan esaten, funtsean gaur egun gertatzen delako laudorioak ez duela azalpenik behar; kritikak, bai. Hau da, zuk esan dezakezu “zure filma asko gustatu zait”, eta “ah, zoragarri” erantzuten dute; baina “zure filma ez zait gustatu”, eta “zergatik?” erantzuten dute. Eta zergatia arrazoitu beharra dago.

Eta orduan, zergatia arrazoitu baino lehen, horretarako denbora gehiago behar baituzu, esaten duzu: begira, badakizu zer? filma estreinatuko dut eta, publikoarekin topatzean, kolpeak edo hostiak jasoko ditu, baina nik ez dizkiot emanen. Hortaz, sarrerako atea irekiagoa dago eta lan gehiago erortzen dira. Eta hori plataformetan gertatzen da, baina zinemaldietan ere bai.

Bat, nola kudeatzen dut oparotasuna? Bi, ezjakintasuna. Askotan ziurtzat jo dugu publikoak badakiela zertaz ari garen, edo zertaz ari garen axola zaiola, eta ez du hori nahitaez jakin behar. Publikoak ez du jakin behar nor den Pasolini, zer zen *Network*, nor den Humphrey Bogart, nor den Hemingway edo nor den Proust. Izan ere, izen horien inguruan, bulegoan bertan eta jendearekin hizketan, ba entzuten ditugu: “ah, ez dakit nor den Proust”, “ez dakit nor den Faulkner”, “ez dakit nor den Humphrey Bogart”. Lehengo egunean, nire bost lagunekin ari nintzela, inork ez zuen Humphrey Bogart ezagutzen... Tira, normala da, 25 urte dituzte, ez dute zertan Humphrey Bogart ezagutu. Ez dute *Casablanca* ikusi, hau da, Humphrey Bogarten filmik ezagunena. Ez dute zertan jakin nor den. Zinemaren ikono bat da? Agian norbaitentzat, baina haintzat Brad Pitt izanen da, ez Humphrey Bogart. Orduan ez dugu ziurtzat jo behar nor den Humphrey Bogart. Ez dugu esan behar: *hostia, ezjakin kaikuok, Humphrey Bogart nor den ez jakitea ere*. Ez, esateko beste modu bat bilatu behar da, *hostia, sekulako pertsonaia ikustera joanen zarete, deabrua baino itsusiagoa, 1,40 altueran eta, azkenean, Lauren Bacallekin joan zena*. Hori da Humphrey Bogartez gustatzen dena. Orduan, zuzenean, horrelako gauzak egin behar dira, eta ez esan, handikiro, “Locarnoko zinemaldian aukeratutako filma”. Jendeak ez badaki non dagoen Locarno, nola pentsatuko du Locarnoko Zinemaldian hautatua dagoela. Horrelako gauzek, irakasle-bideek, ikasgaiek, horiek ia ez dute inoiz funtzionatzen.


Hirugarrena interesik eza da: Europako zinema edo egile-zinema zinema aspergarria dela pentsatzea, zinema adeitsua, eta etxean ezin direla film jakin batzuk ikusi. Etxean peripeziak bakarrik lekua duelako ideia hori; “filmetan gauzak gertatzen ez badira, aspertu egiten naiz eta telebista gelditzen dut...”. Baliteke batzuk aspertzea eta telebista gelditzea, eta beste batzuek osorik ikustea; ni, pertsonalki, oso nekatuta nago etxeko ikusleari egiten zai-on egiatzko mespretxu etengabe horretaz. Beti dago ikusle ona zinema-

-aretoetakoa delako ideia hori, etxeko ikusleak ikusle maila txikiagoa duela-ko ideia. Ez dakit Goya sariaren azken gala ikusi ote zenuten, baina mundu guztiak sari jasotzean esaten ari zen: *zoazte zinemara, zoazte zinemara*. Ez, ez. Esan behar duzuna da, ikusi filma, ikusi filma. Ikusleak erabaki dezala filma non ikusi nahi duen edo non ikusi dezakeen; zinema-aretorik ez dagoelako, joateko denborarik ez dudalako, edo dena delakoagatik.

Horri lotuta, bigarren klaxe bat ere badago, filmak ti-ta hasieratik bukaerara ikusi behar direla. Zinema-aretoa bazoaz, horrela ikusiko duzu, ezin baitiozu proiektzigileari esan gelditzeko nik komunera joan nahi dudanean, edo gose banaiz. Baina etxean filmak gelditu ditzaket. Bada, geldi ditzagun filmak. Filmak gutxi gelditzen dira, nik uste. Hau da, film bat gaizki ikusi aurretik, hobe da gelditzea eta ongi ikustea zatika, osorik gaizki ikustea baino. Eta hori berriro lotua dago ikusleari filmak nola ikusi behar dituen azaltzeko leloarekin.

80ko hamarkadan hazi ginenetako asko bideoklubaren seme-alabak gara. Eta horrek esan nahi du gaztelaniara bikoiztutako filmaren seme-alabak gara, lau hereneko formatuan ikusiak. Beraz, *El Gato Pardo* Burt Lancasterren erdia ikusten genuen. Formatu horrekin ikusten genituen filmak 80eko hamarkadan, eta, hala eta guztiz ere, zinemazale izaten jarraitu dugu, inoiz baino zinemazaleagoak. Eta gaur egun mundu mailan gidari diren zuzendariak ari gara.

Hemen dator pazientziarik ezaren kontua. Eta bi filmekin gertatu da, bi kasu oso zehatzekin. Bata Chantal Akermanena izan zen. Zuetako askok badakizue *Jeanne Dielman* aukeratu zutela *Sight and Sound* aldizkarian egindako inkestaren baten bidez zinemaren historiako filmik onena. Hori zalantzan jar dezakegu; Garcok liburu bat idatzi behar zuen hori zalantzan jartzeko; hortaz, baduzue eztabaidagaia. *Jeanne Dielman* bi ordu eta berrogei edo bi ordu eta erdiko filma da, oso erritmo geldoa duena. Eta bestetik, Béla Tarr. Béla Tarr zuzendari hungariarra da *El Caballo de Turín* da. Eta ez dakit Béla Tarr ikusi ote duzuen, baina *El Caballo de Turín* ez da presexki *La Jungla del Cristal*. Oso kadentzia geldoa du eta, jakina, mila geruzako sakonera. Bada, *El Caballo de Turín* eta *Jeanne Dielman* dozenaka mila lagunek ikusi dituzte plataforman, eta osorik ikusi dituzte: zatika, baina osorik. Beraz, badago itxaropena, badago ikusleria eta badago bidea, inpazientzia endemikoa delako eta sendatu ezin den gaitza delako ideari buruz eztabaidatzeko edo horri aurka egiteko.



Hortaz, aukeratu ditugun bideak, eta zuetako norbaitek Filmin erabili badu jakinen du, funtsean dira: bata, elkarlana, eta bestea, hurbiltasuna. Zuk besteek baino diru gutxiago duzunean, besteek baino gihar gutxiago duzunean eta besteek baino altuera txikiagoa duzunean, besteek baino arinagoa izan behar duzu, eta iragazkorragoa inguruarekiko besteek baino. Oso zaila da beste plataforma batzuk ausartzea, animatzea edo behar besteko erreflexuak izatea guk egiten ditugun bildumak egiteko. Edozein igandetan, errealitateari, gaurkotasanari erantzuten diogun edo erantzuten diogu, eta hori egiten dugu uste dugulako zinemak, zinemaren zati batek, bizi garen testuinguru jakin batzuk hobeki ulertzen laguntzen ahal digulako.

Eta beste elementu bat ere badago. Filmin hasi genuenean, 2008an plataforma atera eta 2010ean lehenengo harpidetza atera genuen, 300 pelikula genituen: 280 dramak ziren. Imajinatu, gehiena drama: 280 drama, 5 komedia nik utse, beldurrezko 4 film eta erotiko bat. Hori zen Filminen katalogoa 2010ean. Pentsa, une horretan generoka indexatu izan bagenu; zuek Filmin sartu eta ikusten duzue: Dramak, 290; Komediak, 5. *Bale, gafapasta aspergarriok, banoa lasterka eta hemendik eta ez naiz inoiz gehiago itzuliko*. Nolabait, porrotera baino eramanen ez gintuen bide bat zela jakinik, buelta eman genion eta esan genuen: generoak sortu beharrean, hau da, generoaren arabera bilaketak egin beharrean, gogo-aldartearen arabera bilaketak

sortuko ditugu: nire bikotekide ohia gogoratzeko filmak. Nork gogoratu nahi du bere bikotekide ohia? Inork? Nolanahi ere, ikusminak bultzaturik sartuko naiz ikustera ea Filminek zer film gomendatzen didan, gogoratu nahi ez du-dan norbait gogoratzeko. Eta hori da, ba esan beharrean: igo Louvreko laugarren solairura, ikusi behar duzun margolan bat dagoelako, hori esan beharrean, ba, inoiz espero izanen ez zenukeen gauza arras bitxi bat jarriko dizut; eta zu erortzen zara. Eta ez da clickbaiting bat, beste gauza bat da, pixka bat emozionalagoa da, eta joan eta esaten duzu, zer dago? Edo Rosaliak ikusten duena, edo C-Tanganak ikusten duena edo Hideo Kojimak ikusten duena, oso urrun dauden adibideak jartzearen. Hor sartuko zara .

Guk ikusi genuen Seijun Suzuki bezalako zuzendari baten lanak ikusten hasi zirela. 60ko hamarkadako zuzendari asiarra da, bere Yakuza filmengatik eza-guna “Lo que ve Tarantino” izeneko bilduma bati esker. Kontua da jendeak ez duela bilatzen bere telebista bilatzailean, telebistako aginteetan, Mende-baldeko aginte txarrenak baitira... zeren urte askoko atzerapenarekin heldu baita etorkizuna 2024 honetan telebistako aginteetarako... Jendea saiatzen bada Suzuki telebistako aginte batean idazten, ba okertuko dira; ziur aski S bat jarriko dute, bi Zeta, K bat, Y bat, eta, orduan, bilatzeari utziko diozu, eta hor konpon. Ez duzu eginen. Eta Kiarostamy, Tarkovsky... auskalo zer idatziko duzun. Orduan, zein zen bidea? Adibidez, *Tarantinok Suzuki gomendatzen du* tankerako bildumak; orduan, nik Suzuki ikusiko dut. Gaspar Noe oso adibide garbia izan zen. Rosaliak Gaspar Noé jarri zuen *El mal querer* laneko esker onetan, abesti bat aipatu aurretik, eta une horretantxe Gaspar Noeren ibilbi-dearen zati bat bultzatu zuen espainian, eta badakit *Irreversible* filmatu zuela, baita *Climax* ere, baina, hala ere, une horrek bultzatu zuen film hori, eta sinetsiezadazue, Gaspar Noeren filmen banatzailea naizelako eta fenomeno hori zuzenean bizi izan genuelako.

Y Eta bada beste elementu garrantzitsu bat; zuek ere kontuan hartu beharrekoa, baldin eta inoiz plataforma bat egiten baduzue edo plataformetan lan egiten baduzue: ez duela zerikusirik batere webean nabigatzeak –hau da, ordenagailuan nabigatzeak– tabletan edo mugikorrean nabigatzearekin, telebistan nabigatzearekin. Ordenagailuan, teklatuak agintzen du; tabletean, hatzak agintzen du; telebistan, aginteak agintzen du. Eta nabigatzeko hiru

modu erabat desberdin dira, bilatzeko hiru modu erabat desberdin, eta, beraz, hiru modu erabat desberdin dira ikuslea eroso sentitzeko aukera emanen duen ekosistema bisual bat eraikitzeke. Esaten duena, *nire orria moldagarria baita*: utikan, zoaz beste gauza batzuk lantzeraz, ez duzu ideiarik ere gauza horiek nola funtzionatzaren duten. Hori ez da bide bat, edo hau inora ere ez joateko bidea da. Eta luzaroan uste izan zen, zenbat eta handiagoa izan pantaila, orduan eta handiagoa zela ikuslearen fideltasuna pantailarekiko, baina frogatu da ezetz, ez nahitaez. Adibidez, tabletak pertsona askoren konpainiako animaliak dira, ohera eramaten dituztenak; tableta jarri eta lo gelditzen dira, edo iPad ere askotan bikotekidea da, ezta? Eta frogatu da horrek funtzionatzaren duela; osorik ikus dezakezu edo lo geldi zaitezke.

Eta azkenik beste elementu bati buruz hitz egin nahi nuen. Oparotasun ingurune honetan, oparotasun itzel honetan, gakoa da obrak nola deskubritzen ditugun. Eta obrak preskriptoreekin deskubritzen dira. Preskriptorea zure bikotekide ohia izan daiteke, C-Tangana... edo preskriptorerik orokorrena zinemaldiak dira. Literatur edizioaren munduan, batek nolabaiteko konfiantza eta konplizitatea du argitaletxeekin, ezta? Batek Acantilado-ko liburu bat ikusten du, edo Impedimenta-koa, edo Asteroide-koa, edo Anagrama-koa... baita Alfaguara-koa ere, edo Tusquets etxekoa, eta esaten du, *a, ona behar du, haiek argitaratua baita*. Zinema-aretoekin antzera gertatzen zen, agian ez hainbestean, baina filma hemen edo han bazegoen, haietaz fida naiteke; baina gutxiago, egia baita zinema aretoek batzuetan nahastu egiten gaituztela. Orain Harry Potter dute espero ez zenuen zineman, eta abar. Zinemaldiekin ere gerta dakiguke. Zinemagintzak ez du lortu banatzaile nazionalak iruditeria kolektiboan sartzea, literatur argitaletxeak edo disko-zigilu batzuk sartu egin diren bezala.

Zinemaldiak preskripzio-elementu ukaezinak dira, zinemaldiak audientzia sortaileak dira; gu urte askotan aritu gara lankidetzan zinemaldiekin. Pandemiara, zinemaldiak askotan online egin behar izan ziren, modu birtualean, eta askok guregana jo zuten beren obrak plataformaren bidez eskaintzeko, eta oso ongi funtzionatu zuen. Eta askok ulertu zuten Internetek zer aukera ematen ahal zion zinemaldiari, zinemaldia edozein zelarik ere; adibidez, poesia, eta bagenituen bideopoesia zinemaldiak, baita dokumental edo

beldurrezko filmen zinemaldiak ere. Bada, urtebetean landu duzun zazpi eguneko zinemaldi bat mugatzen baduzu 50 laguneko zinetokietara, zure lana oso motz geldituko da. Lan hori, 50, 200 edo 300 jarlekuko areto horretaz gain, dozenaka mila ikusle dituen audientzia potentzialarekin partekatzen baduzu, zure lana aberasgarriagoa izanen da bai zuretzat, bai zure zinemaldirako, marka gisa, bai zure babesleentzat, hau da, ikusgarritasuna nahi dutenentzat, bai ikusgarritasuna behar duten sortzaileentzat, bai eta ikusleentzat ere, ikusleok azkenean argi eta garbi eskertuko baitugu hobe dela filma gu gauden tokian ikustea; horrela, ni ezin banaiz Bartzelonara, Sevillara, Gijonera edo Iruñera joan, filmaz gozatzen jarraitzen ahalko baitut. Baina, zoritxarrez, pandemia amaitu ondoren, bide hori egin zuten zinemaldi askok atzera egin dutela. Erabaki dute hori ez zela bidea, beldur baitziren Internetek ez ote zuen janen zinema aretoa, eta aski frogatu da zinema aretoaren esperientziak ez duela zerikusirik etxeko esperientziarekin, batez ere zinemaldi batean.



Guk, duela 14 urte, gure zinemaldia sortu genuen, Atlantida izenekoa; Mallorcan egiten da, uztailaren 20tik 28ra. Gonbidatuak zaudete etortzera; doakoa da, beraz, gonbidapena merke ateratzen zait, eta musika, zinema eta hitzaldiak uztartzen dituen zinemaldia da. Zergatik uztartzen ditugu musika, zinema eta hitzaldiak? Bi arrazoiengatik: Pasoliniren publiko galduaren zati

bat berreskuratzeko edo berritzeko obsesio honetan, uste genuen kontzertuak zirela hori lortzeko bide erabilgarrienetako bat, eta guk, Mallorcan, kontzertuak antolazten ditugu: Rigoberta Bandini, Morat, Alice edo Julieta, eta, ondoren, kontzertu horiek ikustera doan publikoa erakar dezaketen filmak ematen ditugu; artetik esateko, publiko horrek ez daki ja ere film horiei buruz. Morat ikustera joan zen publikoak inoiz ez zuen ikusiko *Mogul Mowgli* bezalako film bat; Riz Ahmedekin egindako film bat da, Londresko rapero pakistandar bati buruzkoa, eta bat-batean 1.500 neska-mutil ikusten zenituen inoiz ikusiko ez zuten film batekin haluzinatzen. Hori da musikaren boterea. Musikak berez duen boterea, baina baita botere preskriptorea ere. Eta ez duzu Morat esaten ikusiko: *film hau gomendatuko dut*, horrek ez du funtzionatzen; hor zaude eta ikusten duzu, horrek funtzionatzen du.

Eta hitzaldiak, berdin. Zer egiten dute zinemaldiek dokumental bat eramaten dutenean? Zuzendaria ekartzen dute, zuzendariak dokumentalari buruz hitz egiten du, dokumentala hasten da eta agian Q&A bat dago. Guk, berriz, hauxe egin genuen: gonbida ditzagun dokumentalak jorratzen duen gaiari buruzko aditu ezagunak, eta horrek publikoa erakarriko du dokumentala ikustera geratuko diren aditu horiek ikusteko. Eta buelta ematea da. Eta jendeak esanen du, *Zergatik ez duzu zuzendaria ekartzen? Zuzendariak hitz egin behar du bere lanaz...* Beno, baina agian beste bide batzuk daude haren lanak berez bere kabuz hitz egin dezan, eta lana ikusiko duen publiko gehiago egon dadin. Hori da pixka bat bide horiei buelta ematea.

Eta ibilbide desberdinak bilatzeko asmo horretan, bi komunikazio mota egin ditugu beti zinemaldia saltzeko. Zinemaldiaren lehen edizioaren trailerrak partekatuko dizkizuet; bigarrena, Mallorcan.

[Ikus dezagun bideo hau 21:33 minutuan:](#)



Ikusten duzunez, bi adibideak ia antagonikoak dira. Bi zinemaldi ezberdin dirudite, baina zinemaldi berberak dira. Zergatik jartzen dugu azkenean, adibidez, Putin, kolonialismoa, Tinder...? Hau da, publiko gaztea erakartzen ahal duten hitzak. Ikus-entzule berriak bilatzeko bideetako bat da: ez izan arazorik, ez izan lotsarik... Zinemaldi tradizionalak zuzendari izenak jarriko lituzke. Baina zertarako jarriko ditut zuzendari izenak, inork ezagutzen ez baditu? Orduan, beste bide mota batzuk bilatzen ditugu publikoa bilatzeko, filmak ikus ditzaten.

Eta orain bai, bukatzeko, hasieran erakutsitako margolanera itzuliko gara eta, nik uste dut margolanaren ideia dela gauzak hurbilagoetik ikusi behar direla. Margolana *Karnaba* da eta, margolan horretatik abiatuta, Donna Tartte-ek izenburu bereko liburu bat idatzi zuen, *bestseller bat*. Margolana Holandan dago... Fabritiusen zortzi lan gelditzen dira museoetan gordeak, nik uste. Batzuk National Galleryn daude; beste batzuk, Rijksmuseumen, eta hau horietako bat da.

Karnaba ikusten dugunean, hasieran askatasun faltsuko irudi bat sumatzen dugu; batek karnaba ikusten du, txoria ikusleari dago begira, eta uste dugu

libre dagoela, ez baitago kaiolarik. Baina egiazki kate batek lotua dago. Eta gu libre gaudela pentsatzen dugulako ideia hori dago, baina azkenean kate bat dugu oin azpian. Eta guk Filminerako lantzen dugun ideia da, ba, artean lan egiten dugula kate hori hautsi dadila saiatzeko, ikusleak egiazki askeak izan daitezen beren erabakian. Eta horretarako kalitatezko zinema eduki beharra dago, guk eskaintzen duguna bezalakoa.





Kultura zerharkatzea: belaunaldiak aurrez aurre?

Fernando Sáenz de Ugarte, gestor cultural y productor, **e Iván Carmona**, cofundador y violonchelista de Suakai.

Fernando Sáenz de Ugarte:

Sarrera gisa, egia da bidean atzera begiratzen duzunean, nik adin jakin bat baitut, egia da atzera begiratzen baduzu oso argi ikusten duzula zein izan diren ibilbideko mugarriak, ezta? Eta aurrera begiratzen duzunean, ez dakizu zein izanen diren zure etorkizuna markatuko duten mugarriak. Eta, hala ere, iraganeko mugarriak oso argiak dira. Eta begira, hezkuntzak eta astialdiak ekarri naute honaino. Ni scout talde batean nengibilen, Gasteizko auzo batean, bat-batean Gasteiz eremu soziokulturalaren erdigune bihurtu zen une batean, ia ia estatu mailan. Izan ere, Kataluniarekin batera, eremu soziokulturalaren bi garapen-gune handiak izan ziren. Auzo bakoitza bere gune soziokulturala izaten hasi zen, etab. Eta horren guztiaren erdian, lana izateko aukerak eraman ninduen. Une hartan, 16 urte nituenetik, bat kartelak jartzen egon zitekeen, ez dakit zer banatzen, antzoki baten irteeran gauzak muntatzen eta desmuntatzen, eta bide bati heltzen diozu, eta pixkanaka honaino iristen zara, auskalo etorkizunak nora eramango gaituen.

Egia da argi dauzkadala atzean dauden mugarriak; aurrera begira ez. Eta profesional gisa egiten duzun eraikuntza erabat modularra dela: hau da, piezak batzen dituen mekanoa zara, ez dut RoboCop bat esango, baina egia da piezak batzen dituzula, zure egunerokotasunak eskatzen dizun bitartean. Eta batez ere nire garaian, horretarako preskakuntzarik ez zegoen garaian; nik aisialdiko begirale eta zuzendari titulua ere banuen... eta animazio soziokulturalaren titulua ere bazegoen, garai hartan ordu eta praktika batzuen bidez lortzen zenuena. Animatzaile soziokulturalaren titulua benetan izan aurretik.

Orduan, ni batez ere toki horretatik heldu naiz, hau da, lotura handiagoa dut hezkuntzarekin eta denbora librearekin, batez ere arlo komunitarioarekin eta soziokomunitarioarekin, eta hori oraindik ere gogoan daukat, eta gero, hori ere Giza Eskubideekin garatu dut; eta Iván batez ere musika arlotik heldu da, baina azken finean, gero aulkia pertekatu genuen eta horretan guztian aritu ginen lanean. Agian, egia da ni arlo soziokulturalaren garaitik natorrela, eta une hartan boom hori gertatu zen hiri batetik, eta uhinak harrapatu ninduen eta, orduan, aurrera jotzen duzu eta honaino iristen joaten zara. Eta denbora hortan guztian, esan beharra dago Kultur Kudeaketa izeneko haur horri inortxok ere ez zuela ezagutzen: garai hartatik orain arte aldatu dena bitarte.

do Gestión Cultural no lo conoce ni su madre; desde aquel tiempo a lo que ha cambiado hasta ahora.

Iván Carmona:

Lehenago (gure artean) hitz egin dugu desberdintasunak aurkitzen saiatzen ginela. Bada, desberdintasun hau edo hura izan daiteke, eta gero, egiazki, bide berean elkartzen ginen... Baina egia da nire iragana aski desberdina dela. Ni txelo-jolea bainaiz eta, egiazki, nik txeloa ikasten dut. Hasieratik beretik oso argi izan dut jo eta jo nahi dudala eta badakit txeloa ikasiko dudala, baina galdetuz gero zer formatutan, non, orkestrak gustukoak ote dituzun, azkenean non joko duzun txeloa... ez nuen erantzuna argia. Banekien zerbait desberdina egin nahi nuela eta, 23 edo 24 urte nituela, ez naiz oroitzen, Suakai sortu genuen nire bikote-kidearekin, Claudiarekin, bera biolinista baita, pixka bat posizio horretan zegoena, zazpi urte gehiagorekin. Eta, egia esateko, Suakai muntatzeko lehen ideia izan zen jotzen segitzeko eta, garai hartan, guk oso garrantzitsutzat jotzen genuen kontu batengatik, hots, kalitatea, kalitaterik gorenekoa izan zedila, eta musikari mota horiekin lan egiten saiatu ginen eta bestelako gauza bat izan zedila. Gu mundu klasiko batetik gentozen, klasiko peto-pettoa, eta nire ustez, mundu hori pixka bat atzean gelditu da eta gelditzen ari da zenbait arlotan berrikuntzari eta abarri dagokionez. Ez naiz mintzatzen niretzat zer den berrikuntza, nire ustez hori ez baita denok txelo elektrikoekin jotzea eta jauzika aritzea. Ez da holakorik behar. Baina tira, guk zerbait desberdina egin nahi genuen.

Y Eta orduan Suakai sortu genuen eta, arestian esan dudana bezala, denetarik egiten hasten zara, hots, web programatzailea, bideo muntatzailea, eta orduan, txelista izateari uzten diozu.... nahiz eta guk horixe mantendu nahi izan. Eta orduan, denetarik egiten hasten zara, sektorea ezagutzen hasten zara, baina nik ez nuen hain harreman sakonik izan sektorearekin harik eta Suakai muntatu genuen arte eta, poliki-poliki, ohartzen zara zer dagoen. Jada zortzi urte daramatzagu eta uste dut dagoeneko guztiaz ohartu garela eta gure hasierako ideia oso utopikoa eta oso ideala zela; mito batzuk erori zaizkigu eta beste batzuetan gauza berriak ikasi ditugu, eta, egia esan, pixka bat bideak irekitzen ari zaizkigu eta segitzen dugu. Orain bertan, urriaz geroztik, Suakairen inguruko birplanteamendua egin dugu maila kontzeptuetan, eta

zortzi urte pasatu behar izan dira hori pasa zedin, baina tira, proiektu guztietan bezala, nik uste. Horra nire sarrerako historia.

Fernando Sáenz de Ugarte:

Oro har, komunean genituen gauzen artean, ikusten genuenez, orain Dantzaz ekimenaren bidez egiten saiatzen ari garena, hots, sektorea bultzatzen saiatzea, dantza garaikidearen sektorearen garapena eragiten saiatzea, oso esparru edo testuinguru argian, gainera, lurralde-esparruan, baina haien artean berezko harremana duten lurralde jakin batzuetan, erran nahi baita, bai Euskadin, bai Nafarroan, bai Iparraldean edo Akitanian, eta orain ere proiektu pirenaiakoetan gabiltza. Beraz, topaketarako lurralde horiek bilatzen ari gara zentzu horretan, sektore horretan eragin nahian, eta sektore horretan, ba, amatxo artista izan nahi dut, baina galdetzen zaio serio-serio zer izan nahiko duzun edo zer ikasi...

Iván Carmona:

Hori aunitzetan galdetu didate: baina zertan ari zara lanean? Ez, musikaria naiz. Ez, baina zertan ari zara lanean?

Fernando Sáenz de Ugarte:

Eta nola egiten saiatu... bat, saiatu behar dugu hori normalizatzen, eta bi, saiatu behar dugu behar diren baldintzak sortzen hori guztia gertatu ahal izan dadin. Zer testuinguru eman behar diogu horri guztiorri? Eta alde bate-tik, geure kultur kudeaketako lanbidean ere prestatzen segitu behar duzu; gutako bakoitza, egia esan, heldu den tokitik heldu da edota, batzuetan, kultur kudeaketatik ere etortzen zara zuzenean eta poliki-poliki zeure burua prestatzen joaten zara. Eta artista bazara, zeure burua prestatzen joan behar duzu eta nola egin hori guztia. Nola zoaz interprete gisa? Baina horrez gain, konposatu beharra daukat, ekoiztu beharra daukat, banatu beharra daukat... Eta balio-kate guztian sartzen zara ia nahi gabe.

sito... Y entras a toda la cadena de valor casi sin quererlo.

Iván Carmona:

Egia da figura nahiko desberdinak garela, eta zuk arlo publikoan lan asko egin duzula, eta nik arlo pribatuan erabat; SL bat da Suakai; baina, egia esan, batzuetan nahastu egiten da SLrena. Badirudi SL bat sortzeagatik dirua irabazten ari garela, ziur aski nik agian aretoko soldatarik apalena dudanean, baina, egia esateko, nire helburua da, Suakaiko kide gisa, musikaren bidez eragitea; gure kasuan, gizartean oro har, baina sektorea ere gero eta gehiago altxatzen eta profesionalizatzen joatea. Gustatuko litzaidake 17 Suakai egoitea kale berean, ahal bada. Hau da, niretzat ez da lehia; horrela, den-denak asko irabazten du. Eta suposatzen dut arlo publikotik, printzipioz, ideia bera izan beharko litzatekeela, baina gero ez daukat garbi kasu batzuetan... zeren hor hasten baitira gauza politikoak egoten, eta niri batzuetan nire sentsazioa politikoei dagokienez, batzuei dagokienez noski, eta nire iritzia da noski, lehenengo helburua lasterketari eustea eta hartan jarraitzea dela, eta bigarren helburua jada beste guztia; orduan batzuetan hori ez dator bat, baina nire iritzia da.

Orduan, benetan helburua berdina da. Guk zortea dugu Suakain, nahi duguna egiten baitugu, eta hori da inoiz galdu nahi ez dudana gauzetako bat. Hau da, babesleekin etab. lanean ari gara oraintxe bertan eta, iaz, babesletza bat planteatu zen oso enpresa handi batekin, diru askoren jabea, eta hura atzera botatzea eragin zigun gauzetako bat izan zen operatibotasun osoa galduko genuela eta ez genuela hori nahi, hori delako gure ideiak egiteko aukera ematen diguna, nahi dugunean. Eta hori zoragarria da.

Fernando Sáenz de Ugarte:

Babesletzaren gaia atera duzun honetan, edo zer kontrapartida egin behar duzun zuk laguntza batzuk dituzun bitartean, publikoak edo pribatuak izan... Askatasunaz, sormen-askatasunaz, berrikuntzaz, etab. asko hitz egiten den arren, nik gure egunerokoan ikusten dudana gauzetako bat da nahiko bideratua dagoela zure sormen-alderdiak ere norantz jo behar duen. Hau da,

“kontuz, jasagarria al da? Jasagarritasunez ari al zara lanean?” “Kontuz, adibidez, identitateen eta horrelako gauzekin. Kontuz ez dakit zer egitearekin...”. “Kontuz estetikekin”. “Kontuz halako gaiarekin...” Orduan, sormen askatasuna gorabehera, zuen ekoizpenak egiteko orduan, beste aldea ere begiratu behar duzu, babesle batek eman diezazukeena edo erakunde publiko bat izan daiteke zuzenean, “hau ez dut ikusten” esaten dizuna.

Iván Carmona:

Ni ados nago, kasu askotan halako bidea egitea, pixka bat halaxe agintzen delako. Izan ere, uste dut, adibidez, amateur-profesional gaiak ari garela, uste dut hobetu beharko litzatekeen gauzetako bat dela sektorea bera profesionalizatzearen gaia. Amateur-profesionalaren gaian beti ulertzen da amateur versus profesional gisa, eta nik ez dut horrela ulertzen. Nire ustez, bi gauza desberdin dira; izan ere, sektorean dugun zorte handia da oinarri amateur izugarria dagoela, hori ez da iturgingen artean gertatzen. Baina horrek beste alde bat ere badu, hots, iturgingen bat ez zaizula inoiz joan larunbatean txorrota bat aldatzera, txorrotak aldatzeko gogo handia duelako: “hori nire grina da eta txorrota bat aldatu behar dut”. Musikan, adibidez, hori izugarri gertatzen da. Orduan, nire ustez, bereizi egin behar dira. Nik proposamen bat bidaltzea programatzaile bati (hemen asko daude), eta 3.500 euroko cachea ez dela garestia; ba, besterik gabe, baldin eta talde amateurraren 1.500 euroekin alderatuz gero, ba gauza desberdinak dira. Ez baitago altarik, ez BEZik, ez egiturarik, eta ziur aski agian gutxiago irabazten ari naiz.

Eta nire ustez garrantzitsua da irizpide batzuk ematea, diru-laguntzaren bidez edo, are, babesleen bidez ere bai. Haiek beren interesak dituzte, hor ere badago puntu pribatu bat, sektorea profesionalizatzeko ideia horrekin bat ez datorrena agian; gero zuk ere aukeratzen duzu nahi duzun babeslea, noski, baina pixka bat ere jarri behar da fokua. Agian babes pribatu batean ezetz esan behar duzu, balioengatik soilik, ez dira soilik haiek zuri ezetz esaten dizutenak. Baina maila publikoan, eta ni horretaz ari naiz, oso interesgarria da irizpideak ematea, niri iruditzen zait ez dela gauza txarra.

cen que no a ti. Pero a nivel público, que es donde yo me centro, es muy interesante que se dicten las líneas, a mí me parece que no es algo malo.

Fernando Sáenz de Ugarte:

Eta maila artistikoan ere, sorkuntza artistikoari dagokionean?

Iván Carmona:

Ez, maila artistikoan ez. Lehengoan, ikuskizunak ekoizteko Artem Pro deialdiaren oinarriak irakurri genituen, orain aterakoa. Adibidez, balorazio irizpide guztietatik, 100 puntukoa, nire irizpidearen arabera, proposamenari berez 30 edo 25 puntu dagozkio. Gainerako guztia generikoa da: generoaz ari naiz, irisgarritasunaz, bideragarritasun ekonomikoaz... Gauza garrantzitsuak dira, jakina, baina nik musika klasikoko kontzertu bat edo rock kontzertu bat planteatzen badut, independenteak izanen dira. Hau da, proposamenarekiko independenteak. Eta nik uste dut konponbidea hortxe dagoela, ez daitezela baloratu beharreko gauzak izan. Niri ez zait ongi iruditzen genero aniztasunak dirulaguntza batean 5 puntu izatea; benetan egin nahi baduzu, jarri baldintza gisa, esan bezala, % 40 edo % 30 egin behar da. Baina ekintza hori egiteko, agian pixka bat ausarta izan behar, agian proiektu batzuk ez direlako sartzen, agian batzuk kexatuko zaizkizulako. Gutxi gara eta agian konplikatu da, nik uste.

Edo baldintza izan dadila Gizarte Segurantzaren alta ematea. Ez didate inoiz musikari baten alta eskatu eta 8 urte daramatzat. Guk musikariei alta eman diegu baita beilatoki batean ordu laurden baterako ere, eta holako askotan jotzen dugu: alta ematen zaie, jakina. Ezkontzen sektorean alta eman dugun bakarrak izan gara. Eta bitxia da; izan ere, talde guztiak 500 eurora artekoak dira gutxi gorabehera, eta gero bikoitzetik gorako jauzia dago, eta orduan gu sartzen gara. Boloak galtzen dituzu? Bai, noski. Baina... zergatik ez da jartzen antzokietan baldintza gisa sartzeko altan egotea, Arenan bezala? Jartzazu diru-laguntzan. Diru-laguntzan ez didazu langileen alta exijitzen, adibidez.

Generoa, irisgarritasuna... nire ustez oso gauza garrantzitsuak dira, baina jarri baldintza gisa. Horrek eraginda, aukeratzen diren proposamenak bat datoz zuk nahi dituzun ildoekin, eta, gainera, proposamen artistikoa bera baloratzeko duen puntuazioaren ehunekoa askoz handiagoa da. Orduan, izanen duzun proposamena onena izanen da, ziurrenik. Berno, bestalde, egia da oso gutxi garelako; orduan erabakia pixka bat ausarta da, zeren agian gutxi horietako batzuk ezabatuko baituzu.

Fernando Sáenz de Ugarte:

Kontra arituko natzaizu, pixka bat. Lehenago, udal batzuetako programatzailerekin edo kultur teknikariek hitz egin dugu, eta esan dute azken X urteetan pasa garelako kudeaketa administratiboa % 20 izatetik eta gainontzeko % 80 herrian mugimendu kultural eta artistikoa lantzetik, eta orain administrazioa % 80 da, eta mugimendu kulturala, berriz, % 20. Argi eta garbi, ordu gehiago eta baliabide gehiago behar ditugu, hori benetan mugitu dadin, eta gero kexatzen gara mugimendu gutxi dagoelako: “ez baita publikoa etortzen”. Bai, badugu zer egin handia. Gauza horiek guztiak kontrolatu behar baldin baditugu, sektorean beti daukagu joera irizpide gehiago egoteko, kontrol gehiago egoteko, lan administratibo gehiago egoteko, eta ez dakit zer gehiago egoteko. Orduan, kontua da nola gobernatu ditzakegun tresna horiek.

Eta egileei buruz hizketan, interpretazioei buruz baino gehiago, arte eszenikoak zuzeneko arteak baitira, eta zuzeneko arteetan norbaitek sortutako, ekoiztutako edo dena delako zerbait interpretatzen duen jendea egon behar da hor, eta hori ere defendatu egin behar da. Baina egileei dagokienez, egiletzan ari den zenbat jende, dela idazketan, dela zernahitan, egiazki dira egileak denbora osoan?

Iván Carmona:

Oso-oso gutxi. Musikaren sektorean, nik horixe ezagutzen baitut, nik bereizketak egiten dut, zeren musikari buruz hitz egiten dugunean David Bisbal edo Barricada garelako baitirudi. Nire ekoizpen lanetako bat bera ere ezin da

joan Zentral edo Arenara, adibidez. Orduan, badago arte eszenikoen eta musikaren artean bereizten duen alde bat, baina guk egiten dugun horretan behintzat ez dago hainbesteko bereizketarik, nik musika arte eszenikoak deitzen diot. Esaten dizudanagatik, beraz, ez da David Bisbal. Gero, badago sustatzaileak eta halakoak sartzen diren sektore musikal bat, baina hori beste kontu bat da. Baina benetan gu bezala, Raul dago, David Echeverria dago, eta aski, hau da, enpresa bat dugu eta musika-proiektuak egiten ditugu; baten bat agian ahaztuko zait, baina bai, oso-oso gutxi gara. ek agian utzi egin ninduen, baina bai, oso gutxi gara. Baina nik uste dut horrelako gauzak ez exijitzeagatik eta gauden hiruretatik bi geratzen garela pentsatzeagatik, zein da alternatiba? Orain arte bezala jarraitzea? Jarraitzen baitugu. Hau da, nik zortzi urte daramatzat eta ez da berririk ere egon. Orduan, uste dut pixka bat erradikala izan behar dela hor, eta uste dut profesionalizazio horrek, hain zuzen ere, jende gehiago izatea eragingo duela eta jende gehiago ausartzea honetatik bizitzera.

Azkenean, agian beste irizpide mota batzuk alde batera utzi behar dira. Artem Pro-ra itzuliko naiz, hori baita profesionalentzako dagoen diru-laguntza; horregatik, horretan eta arlo publikoan ere jartzen dut arreta. Beste baldintza bat ere badago, hots, beste bost emanaldi izatea, eta niri hori hasieran behintzat ongi iruditzen zait: Izan ere, ekoizpen bat egiten duenak bere staffaren nomina guztiak ordaintzen dituelako, eta gero eta gero estreinaldia bakarrik egiten du eta ez du gehiagotan ematen; beraz, uste dut horregatik jartzen dela baldintza hori. Baina, egia esateko, oso zaila da, ez da erreala, programatzaile askok hori sinatu diguzue -eta eskerrik asko mesedeagatik-, eta gero esaten dizute: sinatuko dizut baina gero bidali iezadazu eta, gero, ikusiko dugu kontratatzen zaitugun edo ez.

Orduan, hori da errealitatea. Agian, adibidez, hori kendu egin behar da, eta espero izatea proiektu superprofesional horietan, nik ziurtatzen dizut bost jarduera baino gehiago eginen ditudala. Baina bost baino gehiago egiten ez baditut, izorratua nago, hilda nago. Orduan, ikuskizun hori finantzatzen ari bazara eta ni profesionala banaiz eta enpresa bat mantendu beharra badut, jakizu askoz gehiago egin behar dudala. Orduan, ia fokua beste alde batean jartzea izanen litzateke, leku berera iristeko. Nire iritzia da.



Fernando Sáenz de Ugarte:

Bai, gertatzen dena da oraintxe bertan zeure burua hainbat kapelurekin funtzionatzen ari dela aldi berean: gerente gisa lan egin behar duzu, hau da, ikusi behar but nire negozioa, nire business model hori, benetan bideragarria izan ote daitekeen edo ez, eta erakundeak egiazki behar beste laguntzen ari diren nik izan dezadan aurrera jo dezakeen *business model* bat. Baina, jakina, zure kapela ere jantzita izan behar duzu, interprete-kapelua pentsatzen dut; zure ekoizle-kapela ere jantzita, zure konpositore-kapela, eta abar. Orduan horrek guztiak buru beraren barruan bizi behar du eta hori ere ez da erraza. Eta argi dagoena da Volkswagengo muntaketan izatera, argi dutela zeintzuk diren auto batek eduki behar dituen piezak, hor ez dago arazo handirik eta auto horrek pieza jakin batzuk eduki behar ditu.

Hala ere, kulturaren mundu honek askotan laborategi etengabea dela ematen du. Aizu, zer gertatzen da hau kentzen badiogu? Jakina, normalean ez da ibiliko; zeren, gorpilak kentzen baitzikio, motorra ere, ez dago gasolinarik edo dena delakoa, eta nahiko erabakigarriak diren elementu batzuekin joaten gara gauzak funtzionatu dezan, eta saiakerak egiten joaten gara. Kulturaren mundua laborategi handia gara eta, maila instituzionalean batez ere, hau da, kultur politikak nola sortu, nik uste dut KUNAn nahiko argi dugula, huts handia dugula udaletan, eta hain zuzen, udalek kultur politiken zati handi bat

definitu behar dute. Izan ere, hori guztia finantzatu ahal izateko iristen den dirua udaletik dator % 70en edo % 80n. Baina udalek, Estatu santu honetan, ez dute markatua zer egin behar duten diru horrekin. “Jarri dirua”. “Zenbat?” “Berdin dio”. “Baduzu teknikaririk?” “Zer da teknikariaren kontu hori?” “Ba jarri ere bai, baina baita jai eta gazte arlorako teknikaria, bai eta ez dakit zerena ere. Eta zertan aritu behar duzu? Ba, horretan. Eta zure programazioak zer irizpide ditu? Ba, behartzen gaituzte irizpide ekonomikoa soilik izatera, eta administratiboki eramangarria izatera.

Ea, gauza batzuk esaten dizkirate niri, Dantzaz-i, eta edonori, eta kontua ez da gaizki esanak daudela, errealitatearen argazki bat baita. “Zer, zer ekarriko duzue?” “Teknikoki?, nola?”. Orduan, edozein korapilo tekniko, muntaketa aurreko edo ondorengo egunetan egin behar ote den, auskalo zer, hori beste harri bat da nahiko beteta dagoen motxila batean. Orduan, benetan mugitzea kostatzen zaion auto bat dugu, eta gure pieza guztiez egingo dagoen auto bat da. Ez da soilik artistaren pieza, egilearen pieza, eramailearen pieza, publikoaren pieza, baizik eta gainera ahaztu egiten dugu ekosistema horrek guztiak nola funtzionatzen duen. Normalean, begirada nahiko itxia izaten dugu gureaz, eta izugarri kostatzen zaigu hori guztia egin ahal izatea. Ederra da zinez balio-katearen zati desberdinetako jendea egoteko moduko topaketak egitea. Eta niri hori funtsezkoa iruditzen zait.

Adibidez, esaten badizuegu “kaixo, 2.000ko boloa egin diezazuket edo bolo bera egin diezazuket 1.500ean”. Orduan, iturgina larunbatetan etortzen ziztazuneko horrekin ari gara jokatzeko, zuk esan duzuna, larunbatetan etortzen dela asko gustatzen zaiolako. Eta lehenago zen: “tira, BEZarekin edo BEZik gabe?” Eta zuk erabakitzen zenuen BEZarekin edo BEZik gabe egin nahi zenuen, baina aukera zegoen, ba BEZik gabe. Batzuetan badira gauza horiek sartzeko moduko zirrikituak, baina superserioak izan beharko genuke halakorik ezin dela egin esateko, hau serioa izan behar da. Eta eszenan hiru pertsona baldin badaude, normalean hiruko erregela bat izan beharko genuke eta esan, hiru pertsona eszenan, ba gutxienez 3.000 euro izan behar dira, gutxi gorabehera, edo 2.000 eta ez dakit zenbat. Ezin da izan lanera datozen hiru pertsona izatea, entseguak egin dituztenak eta dena delakoa, eta hori kobratu behar izatea. Minimo batzuk egon behar dira. Orain nekazaritzan egin nahi dugun gauza bera, hau da, tomate bat, ba begira, tomate edo esne

honek ezin du balio hori baino gutxiago. Zergatik? Ba, hori ekoizten duena hil egingen zaigulako. Eta hiltzen bazaigu eta ez badu ekoizten, ba arazo handi bat izanen dugu.

Orduan lehengaia gara pixka bat. Izan ere, azken finean, egiletza horiek hau sortzen duten lehengaia direlako, eta zaindu egin behar ditugun, sortu edo ekoiztu behar dugu taula baten gainean jartzen dugun denbora osoan bizirik dagoen zerbait, eta, beraz, hori guztia mantendu egin behar da. Baina ez da kalitatezko estandar bat, irizpide ekonomiko soil bat da esateko, egoera honetan honek minimo bat izan beharko luke. Hori antzokietara iritsi beharko litzateke, noski, zuek kudeatzen baitituzue antzokiak, eta nahikoa baituzue egiten duzuenarekin horrek guztiak funtzionatu dezan. Eta badirudi beti daudela hatz salatzaileak eta esaten dutenak: “ah, kaka hutsa zarete, programatzaileak kaka hutsa zarete, puta-ideiarik ere ez duzue zer programatu behar duzuen”. Ideia esan dut, ezta? Barkatu hitzagatik... Eta orduan, nire ustez, kontua ez da gu seinalatzen aritzea, “eta zu zakurra zara, Ivan, zuk ikaragarri kobratzen didazulako eta nik badakidalako zer... eta zuk auto bat erosi berri duzula, eta gainera ikusi zaitut”. Horra beti pertsonen kontra jotzeko saiakerak hori, huts egiten ari den egituraren kontra jo beharrean. Dugun egitura egiazki dago gaizki planteatua aspalditik hona eta orain gero eta gehiago ari da huts egiten.

Euskadin, gurearekin muga egiten duen autonomia erkidego polit horretan, Creativity World Forum izeneko gauza bat sortu da hiru egun hauetan. Euskadin duten euskalki berri bat da, ingelesa deitzen dena. Ingeleseaz erabat, itzultzailearik gabe; beraz, edo badakizu ingelesez edo iz.... hadi, eten-puntuak. Eta mundu osoko esperientziak etorri dira sormenaren mundua guri zer den esateko: hemendik aurrera, jakizue, sormen eta kultur industrietan hartuko dituzte hemendik aurrera gure kultur politika guztiak, anai-arrebok, lagunok, eta super-sortzaileak izanen gara. Hori esaten digute egunero sortzen ari diren eta egunero sormena bizibide bihurtzen ari diren artista eta egileoi. Baina, dena den, han ez zegoen, ez egilerik, ez kultur munduko jenderik, ez artearen munduko jenderik. Unibertsitateetako jendea zegoen, enpresa handietako jendea zegoen, horretan diharduten agentzia publiko handietako jendea zegoen; hara, baina bat-batean kultur eta arte politikak egiten ari gara, kulturarik eta arterik gabe. Eta badirudi hori dela gainera

datorkiguna. Eta hori arazo larria da, hau da, hainbeste estaltzen ari zaigu arlo administratiboan, politikoa... Zuk diozuna: zuk sorkuntza lan bat egiten duzunean edo zure nobela handia sortzen ari zarenean, benetan munduko gauzarik garrantzitsuena izanen da bertan agertzea beren identitatea X, cis edo dena delakoa duten pertsonak? Benetan garrantzitsua izanen da zuk esatea nobela horren barnean, auto horretan dabilena, auto elektriko bat edo diesel-auto bat dela? Ez dakit. Gero bitartekoak gutxi gorabehera jasangarriak izatea? Ados, joan gaitezen horixe aldatzen. Baina uste dut zerbaiten erdian gaudela... Gramscik esaten zuen mundu zahar bat hiltzen denean, mundu berria jaiotzen dela, eta tartean, munstroak daudela. Eta munstro-une batean gaude, nik uste. Munstro asko sortzen ari dira, batzuk guay daude, magikoak dira, haiekin bizi daiteke, baina, oro har, niri izugarri kostatzen zait munstro horietako askorekin bizitzea.

Iván Carmona:

Ni, programatzaileei dagokienez, ez naiz “gaizki egiten dute” esaten duen horietakoa. Egoera benetan baita zaila, nik uste. Egunean 400 edo 200 mezu dauzkaten, nola esanen dizut nik “ez duzu nirea irakurri?” Badakit ez duzula nirea irakurri, ezin baituzu. Puntu batean hori oso ongi ulertzen dut. Baina nik foku handia jartzen dut arlo publikoan, uste dudalako guk indarra egin dezakegula eta ahal dugun indar guztia egiten dugu. Baina historia aldatzeko, nik uste dut arlo publikotik presio handia egin daitekeela. Nik, Suakaiko zuzendari naizen aldetik, denbora asko ematen dut webgunea egiten, txeloa jotzen, eta abar, baina Suakaiko zuzendari naizen aldetik, benetan gutxi zuzentzen ari naiz. Agian egin behar dudana da, eta hori da urte hauetan lortzen saiatu garena, beste pertsona bat aritzea webgunea egiten. Korapilatsua da, oso korapilatsua da.

Baina benetan bistatik kentzen badugu gobernatzen duenak, legeak egiten dituenak, gobernatu egin behar duela, legeak egin behar dituela, paperean lurperatua egon beharrean, ba hor konplikatu dago. Nik ez daukat irtenbiderik, jakina, bestela kristalezko bolatxo bat izanen genuke eta ni oso aberatsa izanen nintzateke, eta Suakai mundua barna ibiliko lizateke. Eta ez, oso zaila da. Ez dakit. Gero geure buruarekin ere kritikoa izan behar dugu. Berrikuntzaren gaia, adibidez, lehen esan duzun bezala, programatzaile bati eska-

tu behar zaio altaren gaia egotea, talde profesionalen ehuneko bat egotea urtean antzokira joateko...

Geure baita ere pausatu beharko genuke begirada, berrikuntzaren gaia oso garrantzitsua iruditzen zaidalako. Niretzat, berrikuntza eguneratua egotea da, besterik gabe: duela hiru urteko iPhone bat zaharra iruditzen zaizu, 2006ko SEAT bat ikusten duzu, eta esaten duzu, trastea! Eta, hala ere, musikan kontzertuak oraindik ere egiten ditugu, ez 2006koak bezalakoak, baizik eta 1700ean bezalakoak. Badakizu? Eta lau milioi eta erdi eskuratzen ditu sinfonikoak? Horrelako zerbait, ez daukat gogoan. Ez gara polemikan sartuko. Milioi bat gora, milioi bat behera. Eta ez dut esan nahi Beethovenen bosgarrena biolin elektrikoekin jo behar duzunik. Egunean pixka bat egotea, besterik ez. Agian, kontzertua aurkezteko formatua aldatu behar duzu: argien diseinua eta ikus-entzunezko bat, kito. Dolby Atmosen egitea ere ez dizut esaten, gu egiten ari garen bezala.

Baina uste dut nik aipatu ditudan baldintza horiek Nafarroako Gobernuak planteatu behar dituela, haiek ematen baitute sosa. Ni ez naiz sinfonikoa iraungi egin behar dela pentsatzen duen horietakoa, ezta pentsatu ere. Uste dut izugarria dela zer lekutara iritsi den. Zoragarria iruditzen zait. Funtzionario musikaria? Orintxe sinatuko dut, bihar. Oso posizio onena daude eta hori ezin da galdu. Baina agian exijitu egin behar da: hau emateko, gauza batzuk bete behar dituzu. Eta nire ustez, berrikuntza oinarritzakoa da. Atzean geratzea da. Oraindik kanpanoloak jantzita edo Seat Pandan joatea bezalakoa da. Inork ez du planteatzen.

Fernando Sáenz de Ugarte:

Hain zuzen ere, arteek duten gauzetako bat da hein handian artisautza direla. Eta artisau-lan hori defenditu beharra dago. Eskola Musikan hasi eta Goi-mailako Kontserbatorioan bukatu bitartera eginak dituzun 16 edo 18 urte horiek... orduak batzen badituzu, ez dakit zenbat ordu, eta kredituetara eramaten badituzu, auskalo zenbat kreditu liratekeen. Eta lan hori funtsean errepikapenean dago oinarritua. Artisautza lana da. Behin eta berriz, behin eta berriz, errepikapena, errepikapena. Eta horixe egiten du egiazki interprete on batek, baina baita egile on batek ere. Hau da, artisautza lana da eta

defenditu beharra dugu. Badira artisautza lantegi batzuk baina agian ez diogu ikusten hainbesteko zentzurik unitate gisa. Diozun bezala, orkestra, kaka zaharra. Burgosko Katedrala, eraitsi iezadazu, hemen Primark bat egiteko; horixe dago boladan. Ez, mantentzen saiatu beharra dago. Eta nire ustez, orkestra bi gauza dira: ondarea da eta gaur egungo kultura ere bada. Aldi berean da garaikidea eta ondarea. Eta hala izan behar du.

Izan ere, nik defendatzen dut antzoki bakoitzak fabrika izan beharko lukeela herri txiki bakoitzean. Arazoa da ez dugula egiturarik horretarako. Ez zaitezte jipoituak sentitu, ez duzuelako zuek egin behar. Kontua da udalek beren kultur eta arte politikaren baitan a planifikatu beharko luketela antzokia ez dardila soilik izan erakusteko lekua. Antzoki horretan sortu egin behar da, antzoki horretan ekoiztu egin behar da eta antzoki horretan komunitatearekin egin behar da lana. Eta horretarako, hemen lanean ariko diren profesional asko eta asko behar ditugu. Eta herri txiki batean, agian, fabrika txikiago bat dago. Eta herri handi batean edo Iruñea bezalako hiri batean ba fabrika tzar bat egon behar da, eta bertan profesionalak lanean. Funtzionario izateaz eta ez izateaz esaten duzun hori, ongi, berrikusiko dugu. Izan ere, bizitza osoa interprete edo artista gisa ematea ere...

Iván Carmona:

Noski, hor irizpideak eduki behar dira gero jarraitzeko eta, nire ustez, ebaluazioak egin beharko lirateke...

Fernando Sáenz de Ugarte:

Baina fabrika egotea funtsezkoa da, nire iritziz. Horrelako fabrikak egon behar dira, horrexek mantentzen baikaitu egiazki. Eta plantilla bat egon beharko litzateke, baina agian aldi baterako kontratuekin, artisten Gizarte Segurantzako gure sistemak ederki ahalbidetzen baitu. Behin-behinekotasuna mantentzen jarraitzen dugu, eta, beraz, jendea kontratatu dezakezu X proiektuetan, baina aurrera begira ere egon daitezela eta komunitatearekin harremana izan dezatela, eta amateurrek ere izan dezatela parte hartzeko au-

kera. Alemaniar estiloan eta atzetik koruak egotea eta, gero, ez dakit zer eta zernahi landu dezatela. Baina horrelakoak egon beharko luke. Eta dagoen apurra mantendu egin behar dela uste dut. Eta Burgosko Katedralaren adibi-dearekin, mesedez, Burgosko Katedrala izan dadila eta hala izaten jarrai dezala, nahiz eta haren iruditeria ez izan zuzena identitarioki, eta bere horretan mantentzea oso jasangarria ez izanik ere, pentsatu gabe nola eraiki zen, kolonialismo handia baitago zinez, klasismo handia, eta hau edo hura handia ere, baina horixe gara. Hau da, ezin dugu ahaztu hori hor dagoela.


Iván Carmona:



Nire ustez, ez da bateraezina. Izan ere, batuta joan behar du. Guk beti musikaz hitz egiten dugu, eta esaten dugu: etorkizunari begira, iragana ohoratu-ta. Eta nire ustez, ez dira gauza desberdinak. Iruditzen zait orkestrak bere funtsa duela, musika klasikoak berezko du bere funtsa, eta hori ez da galdu behar. Horregatik diot ez dela beharrezkoa Beethovenen bosgarrena egitea soilik biolin elektrikoekin; ez, nik uste. Den bezalakoa da, den bezalako soinua du, eta zuk diozuna da, Burgosko Katedrala, alegia. Baina horrek ez du esan nahi ezin dituzula interesgarriagoak egin Burgosko Katedraleko bisitak, gaur egunera egokituak eta agian interaktiboa den sistema batekin. Horrek esan nahi du Burgosko Katedrala ez dela lehen bezala bizitzen ari? Noski, argia jarri dute mezak egiteko, badakizu? Lehen ez, lehen kandelak jartzen ziztuzten. Adibide tonto bat da, baina ikusten da nora noan. Orkestra jarri dut oso adibide argia delako: beti hitz egiten dugu orkestrari buruz, azkenean diru asko eskuratzen delako eta adibide ona direlako... Esan nahi dut, emadazu milioietako bat eta gauza miragarriak eginen ditugu. Gauza izugarriak egiten ari gara, oihartzun handikoak eta aurrerapen teknologiko handien bidez, eta beste, oso gutxirekin...

Orduan, uste dut berrikuntza hori exijitu behar dela, baina lehen ere esan dizut, ez hainbeste teknologikoa. Hori, hasieran behintzat, ziurtzat jo behar da; teknologiaren munduan bagaude, bada, bai, alderdi teknologikoa sartuko duzu. Agian instrumentuan ez, agian hori mantendu nahi duzulako. Agian ez musikan, primeran, baina zerbait. Gogoan dut eztabaida batean... polemia-

ka eragingo dut ziur aski, norbaitek entzuten badit hil egingen nau, baina nik gogoan dut lehenagoko gerentearekin, Maria Antoniarekin, izandako eztabaida bat; harekin primeran moldatzen nintzen ni, eta jada ez dagoenez, hitz egin daiteke, eta eztabaida publiko bat izan zen, ikusgai dagoena, baina berrikuntzaz aritu ginen. Eta gure adibide batzuk jarri zituzten. Gainera, bitxia izan zen, duela sei urteko gure adibide bat jarri zutelako, eta nik esan nuen, nire ustez hori jada ez da berrikuntza, hori jada pasatu zaigu, niretzat hori jada zahartua dago. Eta esan zuen: gu berrikuntzan ari gara sarrerak internetez hartzeko modua jarria dugulako. Hori horrela izan zen, eta ez dut gogoratzzen zer gehiago. Eta sare sozialak programa berri baten bidez daramatzagu.

Niri ez zidan grazia handirik egiten, kezkatu egiten ninduen. Baina hori asko gertatzen da. Eta gero badago alde bat, baita ere, artisten munduan, kulturen munduan, oso guay-ak garela eta beti gustatzen zaigula ba, begira, nik egiten dudana barren-barrenetik egiten dut, barnealdea oso gauza funtsezkoa da... Bai, baina lehengoan jasangarritasunaz ari ginen biltzar batean, eta esaten zuten, ez dago deus jasangarriagorik gitarra akustikoa akustikoan jotzea baino Orbeako basoan. Ongi, ongi. Nik ere proiektu bat egiten dut, eta herriz herri joaten naiz, zortzi biztanleko herrixketara, baina 200.000 euro kostatzen da urtero, nondik aterako dut sosa? Orduan, puntu batean oreka hori konplikatua da. Eta hor sartzen dira baldintzak, nik hori guztia exijituko nuke. Bestela, ez zara sartuko.





Huarte — Uharte Arte Garaikideko Zentroan egindako kongresua
2024ko apirilaren 16a eta 17a

ETORRIKO DENA

Babeslea



Laguntzaileak



Antolatzailea

